

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO
HAUTAPROBAK
FILOSOFIA

PLATON

2011KO UZTAILAREN AZTERKETA

«Nik esan nion: adiskide, berriro ahantzi legez ezin zaiola bestelako biziera opa ezein hiritar motari, aitzitik, hiri osoan nahi du ongia hedatu, hiritarrak batuz edo konbentzituta edo behartuta, bakoitzak taldearentzat ekar lezakeen laguntza elkarrekiko zabalduz eta horretarako hirian egin baditza ez da, noski, bakoitzak gogo duenera jardutera itzul dadin, herriaren batasunerako eurok zuzentzeko baizik».¹

PLATON, *Errepublika*

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1. Labur ezazu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzerako)
3. Platonen iritziz, Estatu zuzena lortzen da Estatuko klase bakoitzak berez dagokiona betetzen duenean. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUA

1. Azal ezazu, laburki, zer den dialektika Platonentzat (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
2. Deskriba ezazu, laburki, arimaren eta haren bertuteen doktrina platondarra (1,5 puntu). (Gehienez, 150 hitz)
3. Azal ezazu zertan den Aristotelesek Platonen Ideien doktrinari eginiko kritika (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

¹ Te olvidas nuevamente, amigo mío, que nuestra ley no atiende a que una sola clase lo pase excepcionalmente bien en el Estado, sino que se las compone para que esto suceda a todo el Estado, armonizándose los ciudadanos por la persuasión o por la naturaleza, haciendo que unos a todos se presten los beneficios que cada uno sea capaz de prestar a la comunidad. Porque si se forja a tales hombres en el Estado, no es para permitir que cada uno se vuelva hacia donde le da la gana, sino para utilizarlos para la consolidación del Estado.

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ

Pasarte honetan, Platonek hiri-estatuko komunitatearen garrantzia aldarrikatzen du. Haren aburuz, hirikideei dagokiena da gizabanako bakoitzari dagokiona, hau da zorientasuna. Horretarako, Platonek uste du hirikide horien artean zabaldu egin behar dela komunitatearen gogoia, eta beste biztanle batzuekin hiriko garapenean hirikideek parte hartu behar dutela. Azken finean zorientasuna edo ondo bizitzea (“biziera opa”) ez dagokio soil-soilik gizabanakoari, baizik eta Estatu batean bizi diren hirikide guztiei. Ildo horretatik, legea eginda dago hiritarren taldekoarentzat eta ez bakar bakarrik gizabanakoentzat. Estatuak, nolabait, biztanleen arteko elkarteak sustatu behar du.

2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK

LEGEA: Platonen estatu idealean, Errepublikan alegia, aginteak jakintsuenen esku egon beharko luke. Jakintsuenek ez lukete legerik beharko hiria zuzentzeko zer egin behar duten badakitelako. Hala ere, hori zaila da errealitatean, eta beraz, legeak beharrezkoak dira. Legeek hiriaren harmonia, denon ongia, bermatu behar dute. Hori gerta dadin eta interes partikularrak nagusitu ez daitezten, estatuak pertsonen bizitza zorrotz arautu (legearen bitartez) eta hiritarren zereginak antolatu behar ditu, bakoitzaren gaitasunen arabera bizitza pribatua desagerraraziz.

HERRIAREN BATASUNA: norbera ongien dakien zereginetan aritzen denean lortzen da hiri harmoniatsua edo zuzena, eta ondorioz, zorientasuna. Bakoitzak bere interes propioa (familiarena, lagunena...) bilatzen duenean, batasuna eta harmonia galtzen dira eta estatuaren galbidea eta usteltzea dator. Herriaren batasuna lortzeko, beharrezkoa da ikasketa-prozesu antolatua norberaren gaitasunak zeintzuk diren ikusteko eta horien arabera hiriak behar duen zereginetan jarduteko. Norberaren gaitasunaren arabera aritzeak zorientasuna eta elkarri lotzea (batasuna) dakartza.

3. PLATONEN IRITIZ, ESTATU ZUZENA LORTZEN DA ESTATUKO KLASE BAKOITZAK BEREZ DAGOKIONA BETETZEN DUENEAN. GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ PLATONEN TESI HORREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Platonen arabera, Estatu zuzena lortu behar dugu. Horretarako giza talde bakoitzari dagokio jarduera edo lantxo konkretu bat. Jarduera hori ondo egiteko giza talde bakoitzak gaitasun propioa dauka eta bere lana egiteko abian jarri behar du.

Platonek proposatzen duen Estatu idealean, hiritar bakoitza zorientatua izango da hobekien egiten dakien zereginetan (gaitasun bereziei esker) arituko litzatekeelako. Pertsona bakoitzak dituen gaitasunak sustatzea guztiz onuragarria da, bai maila pertsonalean bai estatu mailan.

Hau da, gizabanako bakoitzari dagokion eginkizuna determinatuta dago gizabanako horren gaitasunaren arabera. Gaitasun hori garatzeko behar-beharrezkoa da ikasketa batzuk egitea. Beste era batera esanda, behin baino gehiagotan Platonek hegaldarazten digu hezkuntzaren garrantzia. Egia esan, ez dago esan beharrik oso garrantzitsua dela hezkuntza, ikasketa horien bidez bakoitzari dagokion gaitasuna

ezagutzeko eta garatzeko. Zentzu horretan, Estatuak eskaintzen duen hezkuntza onuragarria da bai gizabanako bakoitzarentzat, bai gizartearentzat. Orokorrean, Platonen tesian alde positibo da hori. Ildo horretatik, oso positiboa da hezkuntza-sistema bat antolatzea hori sustatzeko, ezen norberaren gaitasunak aurkitzeak eta garatzeak izan beharko lukete hezkuntzaren helburuak. Orobat, hiriaren ikuspegi honetan, oso positiboak diren balioak indartzen dira, eta norberaren interesak gainditzea elkartasuna irakasteko bidea da.

Beste alde positiboak aurki ditzakegu Platonen tesian: hala nola, lanaren banaketa, interes orokorra sustatzeko interes partikularren aldean, eta abar. Azken finean, komunitate batean denok parte hartu behar dugu komunitate hori aurrera eramateko eta agertzen diren arazoetan denon artean konponbidea aurkitzeko. Alde horretatik, lankidetzaren ere izan daiteke gizarte ideal honetan balioesten den beste balioetako bat; gaur egun lankidetzaren ezinbestekoa da arazoak gainditzeko, zenbait arazo, ekologikoak, ekonomikoak guztion artean konpondu behar baititugu.

Hala ere, ezin da onartu edozein preziotan. Izan ere, pertsonak pertsona egiten gaituen hori, askatasuna, jokoan dago. Platonek uste du berak proposatutakoa bermatzeko askatasuna murriztu behar dela eta, ondorioz, estatuaren parte hartzeak ez du mugarik: bizitza pribatua guztiz antolatua dago. Beraz, lehenago aipatutako gaitasunen garatzea ez litzateke izango pertsonaren garapen osoa, bere aukeratzeko gaitasuna mugatua dagoelako. Horren guztiaren ondorioa litzateke pertsonaren garapen askea mugatzea. Estatuak zoriontsu izateko era ezarri nahi du, eta hori ezinezkoa da. Zoriontsua izateko erak norberaren aukerakoa izan behar du, eta inola ere ez inposatua. Estatuak zoriontsu izateko erak eskaini ahal dizkigu, baina sekulan ez inposatu.

Hala ere, norbera ezin da zoriontsu izan nahi duen eran, eta, hemen bat nator Platonekin, legeak muga gaindiezinak jarri behar ditu. Baina, Platonengandik urrunduz, muga horiek estatuarentzat ere balio beharko lukete. Platonek bilatzen duen hezkuntza morala helburu ona izan arren, benetakoa askatasunean lortzen da. Denon ongia zehazterakoan, totalitarismoaren arriskua ekidin behar da, eta horretarako demokrazia aktiboa da bidea. Oso garrantzitsua da hezkuntza zibikoa.

Amaitzeko, esan beharra dago Platonek proposatutako estatua zurruna dela, eta garapen indibiduala kolokan jartzen duela. Era berean, arriskuan gaude Estatu mota horretan guri dagokiguna galtzeko, hots, gure askatasun propioa. Estatu horretan, gizarte guztiaren zoriontasunak, gizabanakoen zoriontasunaren aldean lehentasuna dauka. Agian, gizabanakoaren zoriontasuna interes arrunta lortzeagatik zalantzan izango da. Hori guztia ikusita, K. Popper-ek liburu batean (*Gizarte irekia eta haren etsaiak* izenburuko liburuan, hain zuzen ere) salatu zuen Platonen Estatu ideala, demokratikoa ez izateagatik.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUA

1. AZAL EZAZU, LABURKI, ZER DEN DIALEKTIKA PLATONENTZAT

Elkarrizketari lotzen zaio hitz hau. Sokratesi jarraituta, Platonek uste zuen ezagutza lortzeko bidea elkarrizketa zela, baina sofistek ez bezala, helburua ez zen bakoitzari komeni zitzaiona argudiatzea, baizik eta galdera zuzenak eginez erantzun egokiak eskuratzea: egia lortzea. Beraz, Sokratesek egin zuena bere maieutika metodoarekin Platonek ere, nolabait, abian jarri zuen dialektika metodoaren bidez. Platonek gizabanako desberdinen arteko dialogoa edo eztabaida baino ez bazen ere, gero, nork bere buruarekin izan dezakeen dialogoari ere deitu zion dialektika. Beste era batera esanda, nork bere buruari egin diezazkiokkeen galderak, eta galdera horiei

norberak erantzunak bilatzen saiatzea, eta, horrela, ideien arteko ordena eta era guztietako erlazioak aurkitzea da dialektika.

Platonen ustez, hainbat ezagutza maila daude, eta batetik bestera igotzea beharrezkoa da jakinduria eskuratzeko (horri goranzko dialektika deitzen diogu). Eta behetik goranzko igarobide honen bultzagarria heziera dugu. «Goranzko bidea» den ikasketa-prozesua da dialektika, baina zentzu hertsian azken mailari bakarrik dagokio. Galdera eta erantzunen bitartez, zientziaren printzipioak eskuratzean datza. Horretarako, mailaz maila igaro behar da hasierako hipotesi okerrak (iritziak) baztertuz, ideia aldaezinak (zientzia) eskuratu arte. Filosofoak azken urratsa emango dute, eta, ondorioz, dialektikoak izango dira: zientziak ezagutu ondoren, Ongia (azken urratsa) ezagutzea lortuko dute. Esan beharra dago, ikaskizunak bukatu ondoren, hiriaren agintea beren gain hartzeko gai izango direla. Gizakiaren eginkizun garrantzitsuenetakoa adimena prestatzea da; hots, iritzietatik goiko esentziak (ideiak) aritzea.

Hala ere, dialektika horren barnean beste bide bat proposatu zuen, matematikaren bidez egin litekeena. Platonek matematikaren bidea beherantz doan bidea dela dio; orain arte ikusitakoa, hots, dialektikarena, berriz, gorantz doa. Matematikaren metodoak horrela funtzionatzen du: lehendabizi, hipotesi bat ezartzen da —hau da, alde zurretik lan egin ahal izateko, behar duen oinarri bat zehazten da—, baina frogatu gabea da; gero, hipotesi horretatik ezinbestez eratortzen diren beste ideia batzuk bilatuz joango da. Beraz, *goitik* hasi eta *beherantz* doan bidea dela esan liteke.

Platonen dialektikaren kontzepzioak, azken finean, metodo logikoa gogorarazten du: egia batetik edo batzuetatik abiatuta, beste egia batzuk ezagutzera iritsi. Arestian esan dudan legez, dialektikaren planteamendu horren arabera, ideien mundua hierarkizatuta dago, eta piramidearen erpinean *ongiaren* ideia dago.

2. DESKRIBA EZAZU, LABURKI, ARIMAREN ETA HAREN BERTUTEEN DOKTRINA PLATONDARRA

K.a. VII. mende inguruan, *orfismo* izenarekin ezagutzen diren Asiatik etorritako praktika mistikoak zabaltzen dira Grezia osoan barrena. Orfismoak erakusten du erlijioa ez dagokiola Estatuari, gizaki bakoitzaren salbazioari baizik. Erlijio salbatzaile den aldetik, orfismoak arimaren (*psichéren*) jainkozkotasuna aldarrikatzen du eta bizimodu garbian oinarrituriko jarduera etikoa. Orfismoaren doktrinaren barnean garrantzitsua da *metempsikosiaren* doktrina. Horren arabera, gorputzak arima atxilotuta eta kutsatuta dauka, eta gorputza hiltzen denean arima beste gorputz bati lotzen zaio. Berraragitzearen (transmigrazioaren) prozesu luzean, arimaren helburua garbiketa da, garbiketa osoak jainkozko mundurako itzulera ekartzen baitio.

Poema homerikoetan, *arima* hitzak (*psiché*) *bizia* esan nahi du: **iturburua**, **taupada** eta **higidura**. Arnas edo ufako batek gorputz osoa zeharkatu eta gorputzari bizia ematen diolako ideia hori gure kulturaren lehenengo testu idatzietan ere agertzen da. *Arima* hitzak ere arrazoimenarekin zerikusirik duela. Alde horretatik, gorputzaren aurkako dela adierazi ere, adierazten du. Beraz, **gorputzari bizia ematen dion iturburua** da arima, eta halako ikuskera dualista bati jarraituz, **gorputzasunaren aurkako elementua** ere bai.

Platonen planteamendua, nolabait, dualismo hori (*arima/gorputza* dualismoa, hain zuzen ere) ikus daiteke. Gizakiarengan bi osagai bereizten ditu bere antropologiak: gorputza eta arima. Gorputza arimaren espetxea da, eta, bere eduki propioen (besteak beste, pasioen, desioen, sentimenen eta beldurren) ondorioz, arimaren bizimodu egokia oztopatzen du. Arima immateriala eta betierekoa da, eta mundu adigarriari dagokio. Izan ere, arimaren goiko alderdia Demiurgok sortzen du, ideiak eredutzat hartuz. Beraz, gorputzaren gainean dago, eta gizakiaren benetako osagaia da. Arima gorputzetik askatu

behar da, gorputza arimaren espetxea den neurrian. Arimaren helburu nagusia gorputzetik askatzea da.

Platonen aburuz, arimak hiru joera edo hiru alderdi ditu:

- **Irritsezko alderdia.** Gorputzaren behar eta senen iturria. Hilkorra da, eta Platonek sabelaldean kokatu zuen.
- **Alderdi suminkorra.** Afektuekin eta borondatearekin lotua. Hori ere hilkorra da, eta bularrean dago.
- **Alderdi arrazionala.** Demiurgoak (badenaren sortzailea) sortu zuen, eta mundu idealaren nagusitasunaz jabetzen da. Hilezkorra den joera bakarra da, eta garunean kokatu zuen Platonek. Materialtasun guztietatik urrun egon nahi duen joera da.

Atal bakoitzari **bertute** edo helburu etiko bat dagokio. Horrela, **arrazoi-arimaren** onbide edo bertutea **zuhurtzia** da. Beraz, egia eta ongia eta egia bilatzea du eginbide. **Suminezko arimaren** bertutea **sendotasuna** dugu. Gure asmo eta nahiak, harro sentitzekoa, ospea eta boterea lortzekoa, besteak beste, behar bezala orekatzen saiatu behar du, baita norberari zuzendutako erasoen aurka tinko jardutean ere. **Irritsezko arimarena**, azkenik, **neurritasuna** da, gure guraien joerak neurtzeko eta menderatzeko ardura duena.

Hiru arima-zati hauetan nagusia arrazoi-arima edo alderdi arrazional da, gainerakoei nagusitu behar baitzaie, mendean hartuz. Ezin daiteke ahaztu, baina, arimen ontasunak (bertuteak) orekatzen ez badituela, gizabanakoak ez du **zuzentasuna** lortzerik izango.

3. AZAL EZAZU ZERTAN DEN ARISTOTELESEK PLATONEN IDEIEN DOKTRINARI EGINIKO KRITIKA

Errealitateari buruzko azterketan (Ontologian, hain zuzen), Aristotelesen eta Platonen planteamenduak desberdinak dira. Platonek defendatu zuen mundu sentikorra ez dela benetako errealitatea. Aristotelesek, aldiz, errealitatea substantziala eta errealitate akzidentala bereizi zituen. Aristotelesek errealitate substantzialaren barnean sartzen du, alde batetik, inguratzen gaituen eta zentzumenez hautematen dugun errealitatea, lehen errealitatea edo lehen substantzia, eta bestetik, esentzia unibertsalak edo bigarren substantzia. Errealitate akzidentala da gauzaki zehatzetan bakarrik hauteman daitezkeen ezaugarriak: kantitatea, neurria, kolorea, etab. Izatez errealitatea den bakarra lehenengo errealitate substantziala da, eta akzidenteak ez, ezen lehenengo errealitate substantzian baino ezin dira izan. Errealitatearen barruan lehenengo substantzian jartzean, zentzumenen bitartez hautematen dugun zehaztugabeko materia, Platonen idealismoaren aurrean errealismoa aldarrikatu zuen Aristotelesek.

Nola azaldu mundu sentikorrean aldaketak izatea? Platonen ustez, mundu sentikorra benetakoa ez delako, kopia baizik. Zer dio Aristotelesek? Aldeketa azaltzeko, Aristoteles bere teoria hilemorfikoan oinarritu zen. Zertan datza? Lehenengo eta behin, aldaketa zer den zehaztu behar da. Aristotelesen arabera, hiru elementu sartzen dira aldaketa-prozesuan: orain dena (oraingo izatea edo forma), aldatzen den gaia (subjektua), eta ez-izate erlatiboa, hau da, izan daitekeena (potentzialitatea). Izakiak ez dira oraintxe direnak bakarrik, izan daitekeena ere bai. Beraz, izakiak bi elementuz osaturiko substantziak dira: materia (*hylea*) eta forma (*morfe*). Baina Aristotelesen ustez, formak ez daude materiatik haragoko beste nonbait (Platonen ideien munduan), materia bati era banaezinean lotuta baizik.

Errealitatea ulertzeko era horrek eragina zuzena du ezagutzaren teorian (epistemologian), ezen Platonen ikuspuntutik ezagutza prozesuan esperientzia sentikorra engainagarria eta guztiz baztergarria bada, Aristotelesen ustez, ordea, ezagutza

esperientziarekin hasten da, eta, ondorioz, inola ere ez baztergarria, nahiz eta esperientziarekin ezagutza ez den amaitzen.

2014KO EKAINAREN AZTERKETA

—Adiskide maitea, berriro ahaztu duzu —esan nuen— legeari ez zaiola interesatzen egundoko zoriontasunaz gozatzen duen gizatalderik egotea; osterantzean, hiri osoan zoriona zabaltzen ahaleginduko da, eta konbentzituta edo behartuta hirikideen artean bizikidetasuna ere sartzen, bakoitzak taldearen mesedetan eman ditzakeen laguntzak emanaraziz. Legeak berak tankerako gizon-emakumeak hezten ditu, ez baina, norberak nahi duen eran jarduteko, baizik eta estatuaren batasuna lortzeko asmotan.²

PLATON, *Errepublika*, VII. Liburua, 5

GALDERAK:

1. BLOKEA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzerako)
- 1.3. Platonen iritziz, Estatu zuzena lortzen da Estatuko klase bakoitzak berez dagokiona betetzen duenean. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN JARTZEA

- 2.1. Platonen ideien teoria (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Dualismo antropologikoa: gorputza eta anima. Arimaren teoria (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Platonen ideien teoriaren kritika aristotelikoa: Hilemorfismoa (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

² Te has vuelto a olvidar, querido amigo –dije–, de que a la ley no le interesa nada que haya en la ciudad una clase que goce de particular felicidad, sino que se esfuerza por que ello le suceda a la ciudad entera, y por eso introduce la armonía entre los ciudadanos por medio de la persuasión o la fuerza, hace que unos hagan a los otros partícipes de los beneficios con que cada cual puede ser útil a la comunidad, y ella misma forma en la ciudad hombres de esta clase, pero no para dejarles que cada uno se vuelva hacia donde quiera, sino para usar ella misma de ellos con miras a la unificación del Estado. [PLATÓN, República, VII, 5]

ERANTZUNAK:

1. BLOKEA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPECTATUZ (1 PUNTU)

[Aurreko azterketaren testua da, beste itzulpen batean; beraz, galdera honi erantzuteko ikusi 1.1. erantzuna, 4. Orrian]

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ TERMINO BAKOITZERAKO)

ZORIONTASUNA: Platonen aburuz, gizakiaren azkeneko helburua zoriona lortzea litzateke, arimaren ahalbideak behar bezala sustatuta. Zein bidetatik iristen gara zoriontasunera? Zertan datza gizakiarentzako Gorengo Ongia? Hauxe da erantzuna: Gorengo Ongia atseginaren eta jakinduriaren arteko bizimodu konbinatu bat izan liteke soilik. Plazeraren eta jakinduriaren arteko nahastura horrek, baina, neurriko nahastea izan behar du. Ongia eskuratzeko, plazera eta jakinduria era egokian konbinatu behar dira. Bertutea eraginda, beraz, ongi absolutua atzematen duen pertsona, gorengo zoriontasunera iristen da. Bertutea arimaren osasuna dela dio Platonek. Eta arima osasuntsu agertzen da bera osatzen duten zatiak dagokien moduan eta zereginetan aritzen direnean: norberak ongien egiten dakien zereginetan aritzen denean. Hortaz, arrazoi-arimak jakintsu eta zuhurki jardun behar du; suminezko zatiak, berriz, sendo; eta irritsezko alderdiak, azkenik, neurritsu. Horrela jokatuta, arima osasuntsu dagoela diosku Platonek, bere barne-indarren artean harmonia nagusi delako. Bertutearen jabe izatera heldu da. Hala nola parekatzen duen Platonek bertutearen nozioa zuzentasunaren ideiarekin.

ESTATUAREN BATASUNA: norbera ongien dakien zereginetan aritzen denean lortzen da hiri harmoniatsua edo zuzena, eta ondorioz, zoriontasuna. Bakoitzak bere interes propioa (famiariena, lagunena...) bilatzen duenean, batasuna eta harmonia galtzen dira eta estatuaren galbidea eta usteltzea dator. Herriaren batasuna lortzeko, beharrezkoa da ikasketa-prozesu antolatua norberaren gaitasunak zeintzuk diren ikusteko eta horien arabera hiriak behar duen zereginetan jarduteko. Norberaren gaitasunaren arabera aritzeak zoriontasuna eta elkarri lotzea (batasuna) dakartza.

1.3. PLATONEN IRITZIZ, ESTATU ZUZENA LORTZEN DA ESTATUKO KLASE BAKOITZAK BEREZ DAGOKIONA BETETZEN DUENEAN. GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ PLATONEN TESI HORREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA. (3 PUNTU) (200-300 HITZ)

[Ikus ezazu, 4. orrialdeko disertazioa]

2. BLOKEA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN JARTZEA

2.1. PLATONEN IDEIEN TEORIA (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

Platonen filosofia aipatzen denean, normalean burura etortzen zaigun lehenengo edukia Ideien teoria da. Teoria ezaguna benetan, baina bitxia eta kontraintuitiboa, alderdi askotan gure egunerokotasuneko intuizioaren kontra egiten baitu. Hori dela-eta, Ideien teoria edukiak aztertu aurretik, komenigarria da, lehenbizi, teoriaren jatorria eta, bigarrenik, doktrinaren helburua argitzea.

Arazo filosofiko bat planteatzen digu Platonek: existitzen al dira balio absolutuak, hots, Zuzentasuna, Eskuzabaltasuna, Ausardia edo Edertasuna? Objektu, ekintza, jarduera eta gizaki zuzenaz gain, Zuzentasuna existitzen al da? Platonen erantzuna baiezkoa da: kasu jakin eta zehatzez gain badaude, haren ustez, bertute absolutuak, objektu, ekintza, jarduera eta gizaki bertutetsuekin identifikatzen ez direnak, eta, azken finean, moral finkoa eta benetako ezagutza bermatzen dituztenak. Izan ere, Platonen ikuspegi filosofikoaren arabera, benetako objektuak –benetako ezagutzaren objektuak ere badirenak– ezin dira izan inolaz ere sentigarri, ustelkor, mugikor eta denborazko objektuak. Aitzitik, benetako objektuak Parmenidesen *denaren* ezaugarriak izan behar dituzte, hau da, betierekoak, geldiak, ulergarriak, bakarrak eta denborarik eta espaziotik kanpokoak izan behar dute. Platonen ustez, badago beste mundu sentigarria, ezagutza zientifikoa eta ezagutza morala bermatzen dituena. Mundu hori Ideien mundua da.

Platonek, filosofatzen hasi bezain laster, Parmenidesengandik datorren gai batekin topo egin zuen: *izatearen* eta *ez-izatearen* arazoarekin. Nola uztar daitezke adimenak eta zentzumenek sumatzen dituzten aurkako bi errealitate horiek?: Batetik, adimenak aurkitzen duena, *izatea*: bat, aldaezina, betierekoa, perfektua; Bestetik, zentzumenek jasotzen dutena: askotarikoa, aldakorra, hilkorra, akastuna.

Arazo horri irtenbidea emateko, Platon baino lehen, zenbait saiakera izan zen. Atomisten dotrinak, esaterako, helburu horri zuzentzen zitzaizkion, baina ez zuten lortu. Platonek jauzi kualitatiboa eman zuen izatearen arazoa aztertzean.

Arazo horretaz aparte, Platonek ere aintzat hartu zuen Heraklitok planteatu zuena. Hau da, Heraklitok erakutsi zigunaren arabera, munduan etengabekoak dira higadura eta aldaketa. Horrek zerbait arazo sortu zizkion Platoni. Errealitatea etengabe higitzen ari den heinean, ezinezkoa da ezagutza zientifikoa eratzea. Zientzia edo ezagutza zorrotzak ondo definitu behar ditu bere ezaugarriak. Hala ere, zientzia gara zedin, definizioek ezin aldatuko ezaugarriez osatuta izan behar dute. Baina mundu fisikoa, errealitate materialak etengabe aldatzen eta higitzen ari dira. Beraz, definizioak ezin dira mundu fisikoan, errealitate materialetan aurkitu. Platonek, nolabait, arazo filosofiko hori konpontzen saiatuko da.

Gauzen izatearen eza (perfekzio-eza) begi-bistakoa da. Baina horretaz ohartu ahal izateko, *izatea* ezagutu behar da nolabait; *perfektua* den zerbaitekin alderatu behar da mundu fisikoko gauza bat, beraren perfekzio-ezaz ohartzeko. Baina, nondik ateratzen da errealitate perfektu horren ezagutza? Garbi dago ez dela zentzumenen bidez lortutako zerbait. Zentzumenen bidez ikusi, usaindu, ukitu, dastatu eta entzuten direnak gauzak dira, eta ez dago, gauzen artean, zurtasuna edota betierekotasuna izenekorik. Horrelako errealitateak ez dira *gauza sentikorrek*. Platonek **ideia** deitu zien. Izen hori grekoko *eidos* hitzetik dator; euskaraz, forma edo egitura esan nahi du.

Idea edo formen ezagutza ezinbestekoa da, gauzen perfekzio-ezaz ohartzeko ez ezik, edozer gauza identifikatzeko. Inoiz ikusi ez den zakur bat zakurra dela eta mahai bat zakurra ez dela jakin daiteke, aldez aurretik *zakurra izatea* zer den —zakurraren ideia— ezagutzen delako. **Ideiak** dira gauzak identifikatzeko erabiltzen diren ereduak, biak alderatuz. Gauza bat ideiekin alderatu eta, adibidez, zakurraren ideiarekin bat datorrela ikusten denean, zakur bat dela jakiten da. Zakurren **esentzia** (zakur bakoitza zakur izanarazten duena) zakurraren ideia da.

Baina, horrez gain, objektuak taldekatu ere egin daitezke ideiei esker. Adibide berarekin jarraitzeko, zakur guztiak *zakur* kontzeptuaren barruan jar daitezke, *zakur* ideiarekin existentziari esker. Horrela ez balitz, ezinezkoa litzateke objektu desberdinen artean inolako bereizketa egitea. Horrek guztiak ez du esan nahi Platonek proposatutako ontologian ideiak kontzeptuak direnik. Kontzeptu baino areago dira ideiak. Hizkuntza

arruntean ideiak dira pertsonoi bururatzen zaizkigun asmazioak, burutapenak, etab. Platonen ideiak ez dira gizabanako baten pentsamenduaren asmazioak edo burutapenak, **eredu aldaezinak, betierekoak edo perfektuak** baizik: **benetako errealitatea, mundu errealdaren eredu** eta funtsa ere baitira.

Beraz, filosofiaren sorreraz geroztik, filosofoek bilatzen zuten *izatea* —*ez-izate* bereizi beharrekoa— ideietan aurkitu zuen Platonek. Eta **ideia** horiek, gauzak ez diren arren, nolabaiteko errealitateak direla nabaria eta ukazina iruditzen zitzaion Platoni: berez eta egiaz dira izatedunak.

Pitagorikoen antzera, Platon errealitatearen azalpen dualistan oinarritu zen: *ideiak/gauzak*. Hori da Platonen bi maila *ontologikoak* (existentzia- edo errealitate-maila) bereiztearen oinarria: ideiak eta gauzak bereizita daude; ez daude maila berean, bakoitza mundu diferente batean baizik: **ideien mundua** eta **gauzen mundua**.

— **Ideia** bakoitzaren berezitasunak Parmenidesek *izateari* emandakoak dira: bat, betierekoa, aldaezina, perfektua.

— **Gauzek**, berriz, Heraklitok egotzen zizkien berezitasunak dituzte: askotarikoa, hilkorak, aldakorak, mugatuak.

Horren bidez, filosofiaren arazo handienetako bati —mugimendua eta gelditasuna; aldaketa eta iraunkortasuna— irtenbidea aurkitu zion. Parmenidesen eta Heraklitoren pentsamenduak bateragarri bihurtu zituen: irauten duena ideia da; aldatzen dena, gauza.

Horrez gain, mundu horietako bakoitzeko objektuak ezagutzeko behar diren gaitasunak gizakiak badituela esan zuen; baina gaitasunak desberdinak dira mundu bakoitzarentzat. Horrela, bada, gauzak zentzumenen bidez ezagutzen dira, baina ez da berdin gertatzen ideiekin. Azken horiek ez dira gorpuzdunak, eta zentzumenek ezin digute inola ere haien berririk eman. Adimena da gizakiak ideiak ezagutzeko erabili behar duen tresna. Horregatik, egiten duen bereizketan, gauzen munduari **mundu sentigarri** (zentzumenen bidez ezagut daitekeena) eta ideien munduari **mundu adigarri** (adimenaren bidez ezagut daitekeena) ere deitu zien Platonek.

Bi mundu horien errealitate-maila ez da berdina, Platonen ustez. Bietatik benetan erreal mundu adigarria da; besteak, erreal ez dela esan ez badaiteke ere, askoz maila apalagoa du, han dauden *gauzak ideien* kopia inperfektuak baino ez baitira. Ideiak ezagutzen direnean, *egia* ezagutzen da; gauzak ezagutzea, berriz, itxura hutsean gelditzea izango litzateke.

Beraz, orain arte ikusitakoa aintzat hartzen, eta era laburrean azaltzeko, Platonek bi errealitate-maila bereizten dituela ondoriozta dezakegu:

- **Errealitate sentigarria**: zentzumen bidez hautematen den errealitate materiala, etengabeko aldaketa eta mugimenduan dagoena. Mundu sentigarri izaki naturalaren eta euren irudien mundua da. Aurrera ikusiko dugunez, Haitzuloaren alegorian, hain zuzen ere, haitzulo barneko eramaileen objektuak eta euren irudikatzen dute mundu sentigarria.
- **Errealitate adigarria**: arrazoimenaren bidez ezagut daitekeen mundua; errealitate ideala betiko, iraunkor eta geldia da, eta ezin hauteman daiteke zentzumenen bidez. Mundu adigarria errealitate matematikoen eta Ideien mundua da. *Haitzuloaren alegorian*, haitzulotik kanpoko izaki naturalek eta euren islek irudikatzen dituzte.

Platonek biak onartzen baditu ere, lehentasuna ematen dio errealitate edo esparru ontologiko adigarriari, bere ikuspegian benetako errealitateak iraunkor, betiko eta aldaezinak baitira. Mundu sentigarria, berriz, bigarren mailako errealitatez hartzen

du, haren objektuak iraunkorrak ez baitira; eta, ondorioz, ezin dira izan ezagutzaren objektuak. Ikusi dugunez, Parmenidesek zentzumenen mundua ukatu zuen; Platon ez da horren erradikal agertzen. Hala ere, zentzumenen errealitateari bigarren mailako existentzia ematen dio, eta Ideien errealitatearen menpe kokatzen du. Ideien teoria Platonen pentsamenduaren erdigunea da, eta horren inguruan antolatzen dira gai guztiak.

Orain arte ikusita daukagu zer diren ideiak. Halaber, arakatu egin behar dugu zer-nolako lotura dagoen aipatutako bi errealitatearen artean.

Arestian esan dugun legez, azpimarratu behar dugu ideiak ez direla, inolaz ere, gogo-kontzeptuak. Ideiak ez dira gogoak sorturiko kontzeptuak, berezko errealitateak baizik; objekturik errealeak dira, eta izaki naturalei errealtasuna ematen diete. Mundu adigarrien ideia asko daude, baina haien arteko erlazioa hierarkikoa da, hau da, ideia guztiak ez daude maila berean. Hala nola, oinarrian zentzumenen munduko izakiei eta objektuei buruzko ideiak daude; gero, objektu matematikoei buruzkoak; maila gorenena, ideia ekikoei eta estetikoiei buruzkoak (adibidez, edertasunari eta justiziari buruzkoak); eta azkenik, **bere baitako** Ongiari buruzko ideia. Ideia horrek ematen die zentzua giza ekintzei, eta hura da, halaber, gainerako ideien erredua. Hura justifikatzeko oinarririk ez da behar. Horra *ideia* horren ezaugarrietako bat. Hala, bada, *bere-berezko da* egiazkoa, adimen eta **izaki ooren** funts eta jatorria delako. *Haitzuloaren alegorian* ikus daitekeenez, antzeko zerbait gertatzen da eguzki-argiarekin, ikusteko moduko bihurtzen baititu zentzumenen munduko objektuak; eguzki-argirik gabe ez legoke kolorerik, eta ikusi ere ez genuke egingo objektuen arteko desberdintasunik.

Gizabanakoa ere ideien parte da, hainbat aldetatik, eta beraz, Ongiari buruzko ideiarene parte izate hori ezinbestean izango zaio erabakigarri bizitzan. Izan ere, eguzkiak egiazko mundua nola, Ongiaren buruzko ideiak hala argitzen du gizakia, hura da gizakiaren zentzua.

Hala ere, oraindik ez dugu arakatu nola lotzen dira bai mundu materiala edo errealitate sentigarria eta mundu *eidetikoa* edo errealitate adigarria. Hau izango da, hemendik aurrera azaltzen saiatuko garena.

Ideien munduaren aldean, zentzumenen mundua –aldakor, ustelkor, denborazko eta materiala dena- *kopia* bat besterik ez da, bigarren mailako errealitatea. Bestalde, Platonek inoiz ez du era zuzen eta argian azaltzen mundu sentigarriaren eta mundu adigarrien arteko lotura nolakoa den. Horretarako, metaforak erabiltzen ditu beti: gauza sentigarriak existitzen dira. Ideiak haien *ereduak* direlako, hau da, ideietan **parte hartzen** dutelako. Adibidez: objektu, ekintza edo gizaki bat ederra da *Edertasun* ideian *parte hartzen* dutelako, edo *Edertasun* ideia *eredutzat* hartzen duelako. Gauza bera esan daiteke gainerako errealitate naturalei dagokionez. Edonola ere, Platonek argi eta garbi uzten du ideiak objektu sentigarrien kausak direla.

Platonen ontologiarekin amaitzeko, gaineratu behar da ideien alboan, Platonek mundu sentigarriaren sorrera azaltzen duten bi kausa gehiago aipatzen dituela: **azkeneko substratu materiala** (*Chora*) eta **printzipio antolatzailea** (*Demiurgo*). *Timeo* izeneko elkarriketak deskribatzen duenez, mundu sentigarriaren objektu jakin bat sortzen da, *Demiurgok*, ideia eredutzat hartuz, materia modelatzen duelako.

Hala ere, galdera batzuk erantzunik gabe geratu dira oraindik. Esaterako, nola azaldu zuen Platonek bere Ideien teorian agertzen den bi munduen existentzia? Noiz eta nola sortu dira bi mundu horiek? Batera sortu al dira? Edo bata bestea baino lehenago, eta, orduan, zein lehenago?

Gogoratu behar da ideien ezaugarri bat *betierekotasuna* dela. Ideiak, beraz, ez ditu *inoiz inork* sortu. Betidanik eta betiko daude hor, beren mundu perfektu eta aldaezin horretan.

Mundu sentikorreko gauzak, berriz, ez dira betierekoak: sorrera dute, eta baita amaiera edo suntsipena ere. Gauzen sorrera azaltzeko mito bat erabili zuen. Platonek zioenez, ideien munduan bizi den erdi jainko batek, **Demiurgoak** (*artisaia*, grekoz), ideiak eredutzat hartuz sortu zituen gauzak: zuhaitzaren ideian oinarrituz, zuhaitzak sortu zituen; mendiaren ideian, mendiak; zakurraren ideian, zakurrak... Lan horretan, betidanik existitzen zen materia, zeharo desordenatuta erabili zuen, egin zitekeen mundurik ederren eta hoberena egiteko. Dena den, mundu horrek ez du ideien munduak duen perfektioa. Demiurgoak ez zuen mundu perfektua sortu; kopia bakoitza, gauza bakoitza, inperfektua da. Horregatik, **egiazko bakarra ideia bera da**; gauzak, berriz, ideia horien antza duten kopia kaskarrak besterik ez dira.

Baina, zer dute komunean espezie bereko gauza guztiek, espezie horretakoak direla esateko? Platonek **partaidetzaren** (*methexis*) edo **imitazioaren** (*mimesis*) kontzeptuak erabili zituen. Horrela, zakur konkretu guztiak zakurraren ideiarekin partaide direla esango zuen; edota zakurraren ideia imitatzen dutela. Beste batzuetan, berriz, gauzek ideien **presentzia** dutela adierazten zuen.

Baina azalpen horrekin ez zuen gauza handirik konpontzen: ideiak gauzetatik bereizita badaude, zer esan nahi du **presentzia** edo **partaidetza** esaten duenean? Arazo hori ez zuen inoiz egoki konpondu.

2.2. DUALISMO ANTROPOLOGIKOA: GORPUTZA ETA ANIMA. ARIMAREN TEORIA (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

K.a. VII. mende inguruan, *orfismo* izenarekin ezagutzen diren Asiatik etorritako praktika mistikoak zabaltzen dira Grezia osoan barrena. Orfismoak erakusten du erlijioa ez dagokiola Estatuari, gizaki bakoitzaren salbazioari baizik. Erlijio salbatzaile den aldetik, orfismoak arimaren (*psichéren*) jainkozatasuna aldarrikatzen du eta bizimodu garbian oinarrituriko jarduera etikoa. Orfismoaren dotrinaren barnean garrantzitsua da *metempsikosiaren* doktrina. Horren arabera, gorputzak arima atxilotuta eta kutsatuta dauka, eta gorputza hiltzen denean arima beste gorputz bati lotzen zaio. *Berraragitzearen* (*transmigrazioaren*) prozesu luzean, arimaren helburua garbiketa da, garbiketa osoak jainkozko mundurako itzulera ekartzen baitio. Arimaren garbiketa lortzeko metodorik lagungarriena materiatik ahalik eta urrunen egotea da. Orfismoaren tesiek eragin handia dute pitagorikoen pentsamendu filosofiko-erlijiosoan eta, ondoren, Platonen ikuspegi antropologiko eta etikoan.

Poema homerikoetan, *arima* hitzak (*psiché*) **bizia** esan nahi du: **iturburua**, **taupada** eta **higidura**. Arnas edo ufako batek gorputz osoa zeharkatu eta gorputzari bizia ematen diolako ideia hori gure kulturaren lehenengo testu idatzietan ere agertzen da. Hala ere, era berean, *arima* hitzak ez du bakar-bakarrik adierazten *bizia* ematen digun zerbait. *Psiché* hitzak berak iradokitzen digun bezala, *arima* hitzak ere arrazoimenarekin zerikusirik duela. Alde horretatik, gorputzaren aurkakoa dela adierazi ere, adierazten du. Beraz, **gorputzari bizia ematen dion iturburua** da arima, eta halako ikuskera dualista bati jarraituz, **gorputzasunaren aurkako elementua** ere bai.

Platonen planteamendua, nolabait, dualismo hori (*arima/gorputza* dualismoa, hain zuzen ere) ikus daiteke. Izan ere, bikoiztasun (dualismo) onto-epistemologikoa antropologian ere islatzen da. Gizakiarengan bi osagai bereizten ditu bere antropologiak: gorputza eta arima. Gorputza arimaren espetxea da, eta, bere eduki propioen (besteak beste, pasioen, desioen, sentimenen eta beldurren) ondorioz, arimaren bizimodu egokia oztopatzen du. Arima immateriala eta betierekoa da, eta mundu adigarriari dagokio. Izan ere, arimaren goiko alderdia Demiurgok sortzen du, ideiak eredutzat hartuz. Beraz, gorputzaren gainean dago, eta gizakiaren benetako osagaia da.

Arima gorputzetik askatu behar da, gorputza arimaren espetxea den neurrian. Beste gainerako gai filosofikoetan bezala, gizakia ere erdibanatuta gelditzen da: alde batetik, gorputza, materia, zentzumenak, pasioak eta kalte egiten diguna; beste aldetik, arima, ulermena, egiaren bilatzea eta onura egiten diguna. Platonek gizakiaren baitan ezartzen duen *haustura* mendebaldeko pentsamenduaren ezaugarri aipagarria izango da.

Fedro dialogoan, Platonek —gurdiaren mitoaz gain (oroimenaren teoria)— arimaren kontzepzioa azaltzen du. Pitagorikoen eraginez, arimaren hilezkortasunean sinesten du: gorputza besterik ez da hiltzen. Hori gertatzen denean, gorputza hiltzen denean, arima gorputzetik askatzen da, eta gorputzak berak dakartzan lotura guztietatik: beharrak eta pasioak (gosea, egarria, desio sexuala, oinazea...). Gorputza da arima ideietatik urrun mantentzen duen espetxea. Arimaren helburu nagusia gorputzetik askatzea da. Baina haragitze-zikloak kontuan izanik, arazo bat sor liteke: heriotza bakoitzaren ondoren, arima behin eta berriz, betiko, haragituko balitz, sekula ez litzateke erabat libre izango. Platonek irtenbide bat aurkitu zion: arima gizakiarengan haragitzen denean, lehen aipatutako bederatzi graduak pasako ditu, eta, azkenean, filosofo izatera iritsiko da; orduan, hil ondoren, arima ez da berriz haragituko, eta zoriotsu biziko da betiko ideien munduan.

Hirugarren aspektu bat ere ikus dezakegu *Fedro*ren mitoan: arimak dituen joerak. Gurditik tiratzen duten bi zaldiek eta gidariak arimaren alderdi edo joera desberdinak adierazten dituzte. Izan ere, arimak hiru joera ditu:

- **Irritsezko alderdia.** Gorputzaren behar eta senen iturria. Hilkorra da, eta Platonek sabelaldean kokatu zuen. Ideien kontenplazioa galarazten saiatzen den zaldi bihurriak irudikatzen du.
- **Alderdi suminkorra.** Afektuekin eta borondatearekin lotua. Hori ere hilkorra da, eta bularrean dago. Ideien kontenplaziorako bidea mantendu nahi duen zaldi apalak irudikatzen du.
- **Alderdi arrazionala.** Demiurgoak (badenaren sortzailea) sortu zuen, eta mundu idealaren nagusitasunaz jabetzen da. Hilezkorra den joera bakarra da, eta garunean kokatu zuen Platonek. Materialtasun guztietatik urrun egon nahi duen joera da. Ideiei begira egon nahi duen gurdiaren gidariak irudikatzen du.

Arimaren izaera horri egokitzen zaion etika berezia planteatu zuen Platonek. Atal bakoitzari **bertute** edo helburu etiko bat dagokio. Hiru arima zati horietan alderdi arrazionala edo arrazoi-arima da, gainerakoei nagusitu behar baitzaie, bere mendean hartuz. Arrazoizko zati hau hiltzen ez den bakarra da, beste biak gorputzari lotuta daudenez gero, gorputzarekin hilko direlako. Suminezko eta irritsezko arima zatiek gizakiaren alderdi sentikorra eskaintzen dute. Arima arrazionala, berriz, ideien mundukoa da izatez, bertan egon eta bertatik baitator kasuan kasuko gorputz hauetara.

Bestalde, arima zati bakoitzari berezko bertutea (ontasuna) dagokio bere izateaz (jitez). Horrela, **arrazoi-arimaren** onbide edo bertutea **zuhurtzia** da. Beraz, egia eta ongia eta egia bilatzea du eginbide.

Suminezko arimaren bertutea **sendotasuna** dugu. Gure asmo eta nahiak, harro sentitzekoa, ospea eta boterea lortzekoa, besteak beste, behar bezala orekatzen saiatu behar du, baita norberari zuzendutako erasoen aurka tinko jardutean ere.

Irritsezko arimarena, azkenik, **neurritasuna** da, gure nahien joerak neurtzeko eta menderatzeko ardura duena.

Arestian esanda dagoenez, Platonek, *Fedro* elkarrizketan, hegodun gurdiaren alegoria erabiltzen du arimaren natura azaltzeko. Gurdi-gidaria, arimaren zati prestuen eta jasoena, ideiak ezagutzen aritzen da, eta, horretarako, beste bi zatiak bideratu eta zuzendu behar ditu. Adorea eta borondatea erakusten dituen zaldi zuri eta ederrak arimaren zati oldarkorra adierazten du, eta erraz bidera daiteke. Arima irritsuaren berri

ematen duen zaldi beltz, txar eta itsusia, grina eta irrika neurrigabeen mende, bideratzen zailagoa da. Edonola ere, bi zaldiak egoki menderatu behar ditu gurdi-gidariak; bestela, hiru arimen ontasunak (bertuteak) orekatzen ez baditu, gizabanakoak ez du **zuzentasuna** lortzerik izango.

Beheko taulan erakusten dira, hain zuzen, arimaren hiru zatiei dagozkien ezaugarriak eta gainerako ondorioak Platonen teoria etikoari eta politikoari dagokienez.

Arimaren zatia	Adiezpide alegorikoa	Ezaugarri psikologikoak	Berezko bertutea	Hiri-egitekoa
Arrazoi-arima edo zati arrazionala	Gurdi-gidaria (burua)	Gogamena (pentsamena, nahimena)	Zuhurtasuna	Filosofo-agintaria
Suminezko arima edo zati oldarkorra	Zaldi zuria (bihotza)	Adorea, kemena, haserrea, ausardia	Sendotasuna	Zaindaria (soldadua)
Irritsezko arima edo zati irritsua	Zaldi beltza (soina edo sabela)	Plazera, mina, behe-senak, grinak	Neurritasuna	Eskulangilea
Arimaren oreka eta harmonia	Hegodun gurdia, ondo zuzenduta	Hiru zatiak zein bere bertuteari eustea	Zuzentasuna	Hiri zuzena

2.3. PLATONEN IDEIEN TEORIAREN KRITIKA ARISTOTELIKOA: HILEMORFISMOA (2 PUNTU) (GEHIENEZ, 250 HITZ)

Platonek eta Aristotelek eszeptizismoa baztertu nahi dute, eta hori dela-eta biek esaten dute errealitatea adigarria dela eta ezagutu egin daitekeela. Baina benetako **errealitatea (Ontologia)** zer den azaltzeko onduan, bi planteamenduak desberdinak dira. Esan bezala, Platonek adierazi zuen mundu sentikorra ez dela benetako errealitatea: zehatzago esateko, ez dela errealitatea. Aristotelek, aldiz, **errealitate substantziala** eta **errealitate akzidentala** bereizi zituen. Aristotelek errealitate substantzialaren barnean sartzen du, alde batetik, inguratzen gaituen eta zentzumenez hautematen dugun errealitatea, lehen errealitatea edo lehen substantzia; eta bestetik, esentzia unibertsalak edo bigarren substantzia. Errealitate akzidentala da gauzaki zehazetan bakarrik hautematen daitezkeen ezaugarriak: kantitatea, neurria, kolorea, etab. Izatez errealitatea den bakarra lehenengo substantzia baino ezin dira izan. Errealitatearen barruan lehenengo substantzia jartzean, zentzumenen bitartez hautematen dugun zehaztugabeko materia, Platonen idealismoaren aurrean **errealismoa** aldarrikatu zuen Aristotelek.

Nola azaldu mundu sentikorrean aldaketak izatea? Platonen ustez, mundu sentikorra benetakoa ez delako, kopia baizik. Zer dio Aristotelek? Aldaketa azaltzeko Aristoteles bere **teoria hilemorfikoa** oinarritu zen. Zertan datza? Lehenengo eta behin, aldaketa zer den zehaztu behar da. Parmenidesekin bat dator honako honetan: zerbait ez izatetik izatera iragatea da, edo alderantziz izatetik ez izatera. Baina ulertu behar da zer den ez izate hori. Hazi bat ez da itsasontzi bat, eta gainera ezin da izan. Kasu horretan aldaketa ezinezkoa da. Baina hazi bat, oraindik, arrosa ez da, baina izan daiteke. *Ez-izate* hori desberdina da, zentzu erlatibotan ulertu behar da, eta ez du ukatzen aldaketa. Aristotelesen arabera hiru elementu sartzen dira aldaketa-prozesuan: orain dena

(oraingo izatea edo **forma**), aldatzen den gaia (**subjektua**), eta ez-izate erlatiboa; hau da, izan daitekeena (**potenzialitatea**). Izakiak ez dira oraintxe direnak bakarrik, izan daitezkeenak ere bai. Beraz, izakiak bi elementuz osaturiko substantziak dira: **materia** (*hylea*) eta **forma** (*morphe*). Baina Aristotelesen ustez, formak ez daude materiatik haragoko beste norbait (Platonenen ideien munduan), materia bati era banaezinean lotuta baizik.

Errealitatea ulertzeko era horrek eragin zuzena du **ezagutzaren teorian** (**epistemologian**), ezen Platonen ikuspuntutik ezagutza-prozesuan esperientzia sentikorra engainagarria eta guztiz baztergarria bada, Aristotelesen ustez, ordea, ezagutza esperientziarekin hasten baita, eta, ondorioz, inola ere ez baztergarria, nahiz eta esperientziarekin ezagutza ez den amaitzen.

Eta mundu sentikorraren ulerketari eta teoria hilemorfikoari lotuta dago gizakiaren definizioa. Gogoratu behar dugu Platonen ustez gorputza arimaren kartzela dela, eta zentzu hertsian, gizakia arima baino ez dela, nahiz eta gorputz batean egon. Aristotelesek bestela pentsatzen du: arima bizi-printzipioa da, gorputzari lotua eta, beraz, hilkorra. Gorputza eta arima batasun substantziala dira; hots, bi elementuek errealitate bat osatzen dute: gizakia. Gauzak horrela, Aristotelesek zalantzan jartzen ditu arimaren hilezkortasuna eta Platonen erreminiszentziaren teoria.

Zoriontasunari buruzko bi pentsalarien ulerketa ere desberdina da. Platonek ezagutzarekin lortzen du. Oraintsu eman bezala, hiri justuan, jakintsuek gobernaturiko hirian lortzen da zoriontasuna. Aristotelesen arabera, guztiok nahi dugu zoriontsu izan, eta ondo bizitzea eta ondo jokatzeko zoriontsu izatea da. Baina zehatz-mehatz zertan da bien arteko desberdintasuna? Lehen azaldutako bertute-kontzeptuan. Platonen ustez, arimaren alderdi bakoitzari dagokion bertutearen arabera antolatutako bizitza orekatua da zoriontasuna. Zentzu horretan, zoriontasuna *barne-printzipio* (berezko gaitasun bati) bati dago lotua. Hala ere, Aristotelesen ikuspuntutik, alegia, praktikaren bitartez lortzen den helburua da, eta ez berezko gaitasun batzuei esker.

AGUSTIN HIPONAKOA

2011KO EKAINAREN AZTERKETA

«-Jakina bada ez dela zorionduna nahi duenaren jabe ez dena, lehen ikusi dugunez, eta inor ez dabilela aurkitu nahi ez duenaren bila, eta [akademikoak] beti egiaren atzetik dabiltzala, garbi dago, beraz, egia lortu nahi dutela, egia aurkitu nahi dutela. Baina ez dute aurkitzen. Porrot egiten dute, beraz, haien ahalegin eta asmo guztiek. Ez dute, bada, nahi dutena eta, beraz, ez dira zoriontsu. Baina inor ez da jakintsu zoriontsu ez bada; akademikoa, beraz, ez da jakintsua».

AGUSTIN HIPONAKOA, *Bizitza zoriontsuaz*

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu agertzen diren ideiak eta haien artean dauden loturak (1 puntu).
- 1.2. Azal itzazu azpimarratutako hitzak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. Agustinen iritziz, jakintzaren eta zoriontasunaren artean lotura estua dago, eta lotura horren gunean Jainkoa dago. Egin ezazu disertazio bat, tesiaren aldeko eta kontrako ideia bat gutxienez adieraziz. Azkenik, egin testuan agertzen den arazoari buruzko gogoeta pertsonala (3 puntu) (200 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Askatasuna eta gaizkiaren arazoa Agustin Hiponakoaren pentsamenduan (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
- 2.2. Historiaren filosofia: lurreko hiria eta Jainkoaren hiria (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
- 2.3. Ezagutza: Arrazoia eta Fedea Tomas Akinokoarengan (2 puntu) (200 hitz gehienez)

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU AGERTZEN DIREN IDEIAK ETA HAIEN ARTEAN DAUDEN LOTURAK (1 PUNTU).

«Jainkoaren nahia denean betetzen duenak, arima espiritu lohitik garbi izanik, haren jabe da, eta zoriontsua izaten lortuko du». Hori da hori, Agustin Hiponakoaren tesi nagusia. Ildo horretatik, zoriontasuna jakinduriarekin berdinduko da, eta soil soilik Jainkoaren ezagutza erdiesten den heinean. Akademikoak egiaren bila dabiltza, aurkitu gabe. Gorengo Egia, hots, Jainkoaren oinarrizko ezagutzan datzana, aurkitu ez duten bitartean, zoriontasuna ez dutela lortuko ez dago esan beharrik, zoriontasuna bera aipatutako jakinduriari soilik dagokiolako.

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATUTAKO HITZAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO)

ZORIONDUNA: San Agustinen kezka nagusia ez zen bakarrik egia bat topatzea, baizik eta, ororen gainetik, **bihotza aseko zuen egia aurkitzea**. Zoriontasuna horrela baino ezin baita lortu. Esan daiteke, hortaz, Agustin **eudamonista** zela. Baina aipatutako eudemonismo hori ez da suntsi daitezkeen ondasunetan edo grinak asetzean oinarritzen. Ezta epikureoen erako plazer moderatuak eskuratzean ere. Horiek guztiak gizakia zeharo ase ezin duten zoriontasun galkorrak baitira. **Benetako zoriontasuna egia osoaz jabetzean** datza, baina egia partikular guztiak transzenditzen dituen egia izan behar du, bestela ez litzateke propio egia bat izango. Agustinek bilatzen duen **Egia, egia posible guztien neurria (Absolutua) da**. Goi Neurri hori Jainkoa baino ezin daiteke izan. Jainko hori ezagutzeak eta edukitzeak zoriontasuna eskaintzen dio gizakiari. Jakintsuaz gainera, inor ez da zoriontsua, zeren inor ez baita zoriontsua egia ez badu irrikatzen. Egia aurkitu ez duena ezin da zoriontsu izan.

AKADEMIKOAK: Platonek eraikitako Akademiatik garatu ziren korronte filosofiko desberdinen kideak ziren akademiko horiek. Korronte horien artean Epikurok sortutakoa, zinikoak, estoikoak eta eszeptikoak, besteak beste, ditugu. Azken hauen kontra argudiatu zuen Agustin Hiponakoak. Eszeptiko horiek, Agustinen garaian Platonen akademia eskolako kide horiek egia ez dela existitzen diote, zeren eta existituko balitz gizakiok ezingo baikenuke ezagut.

1.3. AGUSTINEN IRITZIZ, JAKINTZAREN ETA ZORIONTASUNAREN ARTEAN LOTURA ESTUA DAGO, ETA LOTURA HORREN GUNEAN JAINKOA DAGO. EGIN EZAZU DISERTAZIO BAT, TESIAREN ALDEKO ETA KONTRAKO IDEIA BAT GUTXIENEZ ADIERAZIZ. AZKENIK, EGIN TESTUAN AGERTZEN DEN ARAZOARI BURUZKO GOGOETA PERTSONALA (3 PUNTU) (200 HITZ GEHIENEZ)

Agustin Hiponakoa kristau sinestuduna denez, zoriontasuna ez du jartzen mundu fisikoko ondasun materialetan. Kristau izan aurretik, hainbat filosofia-korrontetatik ibili zen gaitzaren zergatia bilatzen eta zoriontasuna lortzen. Filosofia horietan ibili zen garaian izan zitezkeen plazer fisiko guztiak dastatu zituen, *Aitorkizunak* idazlanean aipatzen duen bezala, baina, hala eta guztiz ere, ez zuen bilatzen ari zen zoriontasun osoa lortzen. Kristau bihurtu zenean, zenbait idazlanetan argi eta garbi esaten digun bezala, zoriontasun osoa eskuratu zuen. Zoriontasun hori ez da aurkitzen aldakorrak eta galkorrak diren ondasun materialetan, iraunkorra eta suntsiezina den Izaki Absolutuan baizik, hau da, Jainkoan. Arazoa da nola lortu Jainkoa, edo nola izan Jainkoaren jabe, Jainkoaren jabe dena guztiz zoriontsua baita. Eta hori lortzeko, Jainkoak profeten bidez adierazitakoa edo bakoitzari bere kontzientziak azaltzen diona bete behar da. Horrela, arima garbi dago, Jainkoaren grazian, eta gizakia guztiz zoriontsua da. Egia da kristau-

sinestedun batentzat Agustinek proposatutako bidea lagungarria izan daitekeela zoriontsua izateko, baina sinesgabe batentzat ez da bide egokia. Badaude beste bide batzuk zoriontasuna lortzeko lagungarri izan daitezkeenak: adibidez, osasuna, adiskidetasuna, maitasuna, ohorea, agintea, ondasun materialak, barne-lasaitasuna eta bakea... Niretzat, zoriontsu izateko, nahikoak dira osasuna, familia eta lanaren bidez gutxieneko ondasun material batzuk izatea.

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. ASKATASUNA ETA GAIZKIAREN ARAZOA AGUSTIN HIPONAKOAREN PENTSAMENDUAN (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Gure askatasun-kontzeptua eta Agustinen desberdinak dira. **Askatasunari buruzko Agustinen pentsamendua teologikoa** da. Askatasuna eta *liberum arbitrium* edo aukeramena sinonimoak dira guretzat; eta ordea, San Agustinentzat.

Hiponako filosofoaren pentsamenduaren abiapuntua gizadi eroria, baina Kristok berrerrosia da. Abiapuntu hori kontuan izan gabe, ezin uler daiteke San Agustinek askatasunaz eta *liberum arbitriumaz* (aukeramenaz) dioena. Egiaz, **gizakia askea da**, baina gizakia da, librea delako hain zuzen. Askatasunik gabe ezinezkoa da gizaki izatea. Erabaki ahal duelako, **borondatearen** (nahimenaren) **autodeterminazioa erabili ahal duelako** da gizakia. Dena dela, zer aukera dezake, edo zer aukeratu behar du? **Gizakiak**, Jainkoak sortuak, **Harenganako (Jakinkoa) joera** izan behar du.

Jainkoarengana zuzendu behar du bere burua, kontzienteki edo inkontzienteki, eta horixe du helburu. Jainkoak, gizakia sortu zuenean, Bera maitatzeko agindu zion. Ez dago askatasunik eskubiderik gabe, baina obligaziorik gabe ere ez dago askatasunik. Gizakiak ongirako joera izan behar du, eta gizakiarentzat ongi hori Jainkoa da: Hura maitatzera behartuta dago. Jainkoa lortzeko askatasuna izango du, baina ez badu Jainkoa lortzen, zorigabekoa izango da. Jainkoa zerbitzatzen duenean aske izango da, eta zoriontasuna lortuko du; esklaboa, berriz, Jainkoagandik urruntzen denean.

Gizakia askatasunean sortua izan zen, bere sortzailea maitatzeko gaitasunez hornitua. Baina jatorrizko bekatuagatik, gizaki erori gisa, askatasuna galdu zuen, eta *liberum arbitrium*a, aukeramena edo askatasuna berreskuratzeko aukera izan nahi du. Hona hemen guretzat adiera desberdina duen Agustinen hizkuntza-erabilera; Agustin Hiponakoaren ustez, gizakiak bekatua egin zuen aukeramen edo borondateagatik gaitza sortuz. Gizakia bere buruaz eta bera baino gutxiago diren gauzez gozatzearren, Jainkoarengandik urrundu eta bekatuen erori zen.

Gizakia ezin da bere kabuz egoera horretatik altxatu. Bere buruaz beste egin zezakeen, adibidez, baina ezingo luke bere burua berpiztu. Hori lortzeko, beharrezkoa da Jainkoaren laguntza: altxatzeko ahalmena izateko, Jainkoaren grazia behar du. Gizakia graziari esker aske da, eta lor dezake bere askatasuna. Horrek ez du esan nahi graziak giza nahimenaren aurka jokatzen duenik; aitzitik, Jainkoagana erakartzen du. **Graziari esker, gizakiak bekatuagatik galdu zuen askatasuna berreskuratzen du.**

Oker jokatzen duenak, bekatua egiten duenak ezin du Jainkoaren graziarik gabe Jainkoa bera maitatu. Hau da, gaitza inoren laguntzarik gabe egiten du gizakiak, baina ez ongia: **ongia egiteko beharrezkoa du Jainkoaren laguntza**. «Behar ez dena desiratzen duena... oker dabil». Bizitza zoriontasunaren bila dabilzan gizakiak ez dira okertzen. Errorea, zorionera daraman bideari ez jarraitzetik datorkie, zeren gizakiak nahi duen lekura ez daraman bidetik joatean baitatza errorea. Bizitzako bidean oker ari den neurrian aldentzen da jakinduriatik, zeren Goi Ongia den Egiarengandik urruntzen baita.

Agustin bizitza osoan gaitzaren arazoaz kezkatu ibili zen. Gaitza munduan etengabe ikus daitekeen zerbait da. Horrela ditugu naturaren gaitz fisikoak (lurrikarak, ekaitzak, lehorteak, gaixotasunak...), eta gaitz moralak (gaiztakeria, krimena, mendekua, gerrateak, adimen-ahultasunak, depresioak, bakardadea, larritasuna, beldurrak...)

San Agustinek gaitz fisikoa izaki sortuen ustelgarritasun-ikuspegitik ikusten du. Ustelgarritasuna ez da gaitz bat bere baitan; gauza ustelkorrak onak dira (Jainkoak sortu duen oro ona da). Gauzak ustelkorrak dira, zeren halakoak izango ez balira, Jainkoa izango balirateke. Onak izango ez balira, ez lirateke existituko. Beraz, existitzen diren gauza guztiak onak dira, baina ez absolutuki (guztiz) onak.

Jainkoa izaki betea da, ongi absolutu eta aldaezina. Sorkariak, izaki sortuak, giza natura, ordea, izatea duen neurrian dira onak. Horrela, izatearen proportzioan doa ongia; beraz, gaitza ezin har dezakegu ongiaren kontrakotzat. Gaitza ongi zehatz baten ausentziari jartzen diogun izena besterik ez da.

Bestalde, gaitz morala gizakiak egiten duen aukeramenaren (*liberum arbitrium*) erabilera okerretik dator, eta gizaki da horren erantzulea, ez Jainkoa. Aukeramena, bada, ez da ongi absolutu bat, gaitzerako arriskua dakarrelako; hala ere, ongi bat da, zorientasunerako baldintza den ongia.

2.2. HISTORIAREN FILOSOFIA: LURREKO HIRIA ETA JAINKOAREN HIRIA (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Hiponako pentsalariak *Jaikoaren Hiria* idazlana jentilen erasoei aurre egiteko idatzi zuen, hots, Eliza idazlana babesteko, erromatar askok Inperioaren gainbehera leporatzen baitzioten Elizari.

Jaikoaren Hiria idazlanean, Erdi Aroko ideietan eragin handia izan zuen historiaren filosofia lantzen da, bereziki, kristaua. Jentilen aurrean, kristauen apologia gisa aurkezten da. Agustinen Historia unibertsalaren filosofia honetan, gizadiaren kronika bi hiriren arteko borroka gisa agertzen da: lurreko hiria eta Jainkoaren hiria. Munduko gizakiak bi taldetan banatuak ikusten ditu Agustinek. Alde batetik, Jainkoa mespretxatuz, beren burua Jainkoa baino maiteago dutenak; bestetik, Jainkoa gauza guztien gainetik, nork bere buruaren mespretxuraino maite dutenak. Lehenengoak lurreko hiritarrak dira; norbera goratzeko balioak onartuz, Jainkoari uko egiten diotenak. Bigarrenak, zeruko, jainkoaren hiritarrak dira; nork bere autonomiari uko eginez Jainkoa aukeratzen dutenak. Azken hauek munduko balioak Jainkoarengana heltzeko bitarteko bezala erabiltzen dituzte, eta lehenengoek, berriz, munduko errealitateak helburu bihurtzen dituzte.

Jainkoaren eta lurreko hiritarrak nahasirik daude historian zehar. Gero, azken epaiketari, banandu egingo dira; batzuk sarituak eta besteak zigortuak.

2.3. EZAGUTZA: ARRAZIOIA ETA FEDEA TOMAS AKINOKOARENGAN (2 PUNTU) (200 HITZ GEHIENEZ)

Tomasen ustez, Filosofia eta Teologia bi zientzia desberdin dira beren eduki, metodo eta irizpideetan. Edukiei dagokienez, esan daiteke mundu naturaleko objektuak direla Arrazoiaren edukiak; Fedearnak, ordea, mundu naturalaz gaindiko objektuak (naturazgaindiko objektuak). Metodoari dagokionez, Arrazoiak abstrakzioaz baliatzen da, eta Fedea, errebelazioaz. Hala ere, zenbait eduki arrazoiaren eta fedearen bidez ezagutu daitezke.

Fedearen eta arrazoiaren artean ez dago kontraesanik, eta kontraesana sortzen denean, kontraesan hori itxurazkoa da soilik, eta arrazoiak berrikusi behar da, fedearen bidez onartutako egia errebelatuak ez duelako inoiz huts egiten. Arrazoiak eta fedearen

arteko bereizketa egin ondoren, bien arteko harmonia bilatzen saiatzen da. Filosofiaren eta teologiaren objektuak bat datozenean, hau da, gai berdinez aritzen direnean, harmonia egon behar du filosofiak asmatzen duenaren eta teologiak baieztatzen duenaren artean. Jainko bera delako gizaki arrazoiduna sortu duena eta errebelazioaren iturria dena, eta horregatik ezin da kontraesanik egon Jainkoak errebelatzen duenaren eta gizakiak Jainkoak emandako arrazoiaren bidez ezagutzen duenaren artean. Tomas Akinokoak bereizketa egiten du Arrazoiaren eta Fedearen artean, eta harmoniak ahalbidetzen du bien (Arrazoa eta Fedea) arteko osagarritasuna. Agustinentzat arrazoiak bere kabuz bakarrik ezin du egia lortu, eta horregatik arrazoiak fedearen argitzapena behar du egia eskuratzeko. Tomasek, ordea, uste du arrazoiak bere kabuz egia lor dezakeela.

2010EKO EKAINAREN AZTERKETA

«Ama, filosofiaren gazteluaz beraz jabetu zara. Hitzak besterik ez zaizkizu falta izan *Hortensius* izeneko liburuan, filosofiaren alde eta gorespenerako liburu hartan, Tullius-ek bezala aditzera emateko: *Hara nola guztiek, ez filosofoek hain zuzen, baina bai eztabaidarako prest daudenek, nahi bezala bizi direnak zoriontsu direla diote. Oker handia! Komeni ez dena nahi izatea zoritxar ezin handiagoa baita. Nahi dena ez lortzea ez da komeni ez dena lortzea bezain txarra. Gaitz handiago dakartza borondatearen txarkeriak, zorteak ondasun baino».³*

AGUSTIN HIPONAKOA: *Bizitza Zoriontsuaz*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1 Laburtu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).
- 1.3 Testuaren tesia kontuan hartuta (desiraren eta zoriontasunaren arteko lotura estua dela, hain zuzen), gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1 Azal ezazu, laburki, Agustin Hiponakoarentzat gaitza zer den (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.2 Agustinen historiaren filosofia: Jainkoaren Hiria (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.3 Ezagutza: arrazoimena eta fedea Agustinen eta Tomasen obran (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).

³ «Madre, has conquistado el castillo mismo de la filosofía. Te han faltado las palabras para expresarte como Cicerón en el libro titulado *Hortensius*, compuesto para defensa y panegírico de la filosofía: *he aquí que todos, no filósofos precisamente, pero sí dispuestos para discutir, dicen que son felices los que viven como quieren. ¡Profundo error! Porque desear lo que no conviene es el colmo de la desventura. No lo es tanto no conseguir lo que deseas como conseguir lo que no te conviene. Porque mayores males acarrea la perversidad de la voluntad que los bienes de la fortuna*». [San Agustín, *De la vida feliz*]

ERANTZUNAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 LABURTU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ. (1 PUNTU).

Testu horren amaieran gure egileak izkribuaren mamia azaltzen digu: gaizkiaren oinarria borondearen erabilera oker batean ematen da. Beste era batera esanda, Agustinek deituriko *liber arbitrium*-ean, nahimena era txarrean erabiltzerakoan, datza gaitza bera. Gure borondateak desioaren aginduei jarraitzen dienean, eta, beraz, korapilatuta dagoenean, *gaitz handi*enean erortzeko arriskutan dago. Hiponakoak berak esaten duen bezala, *gaitz handiago dakartza borondatearen txarkeriak, zorteak ondasun baino*. Hobe da, ildo horretatik, nahi duguna baino lortu lehen gure nahietan porrota lortzea. Ez da esan beharra, azken egoera hau ematen denean, pentsatuko genukeela zorte txarra izan dugula. Hala ere, ahalbidea da gurutzen duguna lortzea, nahiz eta onuragarria dena ez lortu. Askotan, baina, deseatzten eta lortzen duguna ez da komenigarria guretzat. Beraz, nahiz eta geureganatu, lortutakoa komenigarria ez denez, desioaren asebate eza baino kaltegarria da nahi duguna erdiestea.

1.2 AZALDU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK. (1 PUNTU) (50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO).

FILOSOFIA: Agustinentzat, beste filosofo kristau batzuentzat bezala, filosofia arrazoitzeke eta ezagutza objektibo lortzeko prozedura besterik ez dela. Egiaren bilatzean datza filosofia bera. Ildo horretatik, topaketa bat emango da filosofia eta teologiaren artean, zeren eta jakinduria desberdin horietan egiaren bila baitago jarduera horien oinarrian. Kristautasunaren eta filosofiaren arteko topaketa bi eratan azter daiteke. Alde batetik, gizakiaren izateak eta munduarenak sortzen dituzten arazoan aurrean har daitezkeen bi jarreraren arteko norgehiagoka gisa: *alegia, fedearen oinarritzen den jarrera*, bateko, eta *arrazoimen lorpenaren finkatzen den jarrera*. Era hau kristautasunaren eta filosofiaren arteko topaketari gagozkiola-, fedearen eskakizunen eta arrazoien inposizioen artekoa, nahitaezkoa eta etengabekoa da gure kulturaren. Filosofiak galderak egingo dizkio kristautasunari beti, eta kristautasuna beti agertuko da behartuta bere burua definitzea, filosofiari erantzunez. Beste aldetik, *kristautasunaren eta filosofiaren arteko topaketa* Erromatar Inperioan jazo zen lehen mailako gertaera gisa planteatu daiteke. Garai hartan kristautasunak aurpegi eman zion greziar filosofiari.

ZORIONTSUA [Izatea] {ZORIONTSUNA}: San Agustinen kezka nagusia ez zen bakarrik egia bat topatzea, baizik eta, ororen gainera, **bihotza aseko zuen egia aurkitzea**. Zoriontasuna horrela baino ezin baita lortu. Esan daiteke, hortaz, Agustín **eudamonista** zela. Baina aipatutako eudemonismo hori ez da suntsi daitezkeen ondasunetan edo grinak asetzeari oinarritzen. Ezta epikureoen erako plazer moderatuak eskuratzean ere. Horiek guztiak gizakia zeharo ase ezin duten zoriontasun galkorrak baitira. **Benetako zoriontasuna egia osoaz jabetzean** datza, baina egia partikular guztiak transzenditzen dituen egia izan behar du, bestela ez litzateke propio egia bat izango. Agustinek bilatzen duen **Egia, egia posible guztien neurria (Absolutua) da**. Goi Neurri hori Jainkoa baino ezin daiteke izan. Jainko hori ezagutzeak eta edukitzeak zoriontasuna eskaintzen dio gizakiari. Jakintsuaz gainera, inor ez da zoriontsua, zeren inor ez baita zoriontsua egia ez badu irrikatzen. Egia aurkitu ez duena ezin da zoriontsu izan.

1.3 TESTUAREN TESIA KONTUAN HARTUTA (DESIRAREN ETA ZORIONTASUNAREN ARTEKO LOTURA ESTUA DELA, HAIN ZUZEN), GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA. (3 PUNTU) (200-300 HITZ).

Agustin Hiponakoa kristau sinestedunaenez, zoriontasuna ez du jartzen mundu fisikoko ondasun materialetan. Kristau izan aurretik, hainbat filosofia-korrontetatik ibili zen gaitzaren zergatia bilatzen eta zoriontasuna lortzen. Filosofia horietan ibili zen garaian izan zitezkeen plazer fisiko guztiak dastatu zituen, *Aitorkizunak* idazlanean aipatzen duen bezala, baina, hala eta guztiz ere, ez zuen bilatzen ari zen zoriontasun osoa lortzen. Kristau bihurtu zenean, zenbait idazlanetan argi eta garbi esaten digun bezala, zoriontasun osoa eskuratu zuen.

Zoriontasun hori ez da aurkitzen aldakorrek eta galkorrek diren ondasun materialetan, iraunkorra eta suntsiezina den Izaki Absolutuan baizik, hau da, Jainkoan. Beraz, gauza materialetan ez baita zoriontasuna aurkitzen, ezinbestean errealitate espiritual batean, desioen, grinaren, nahien urrunean, hau da naturaz gaindiko errealitatean aurki daiteke zoriontasuna bera.

Arazoa da nola lortu Jainkoa, edo nola izan Jainkoaren jabe, Jainkoaren jabe dena guztiz zorionsua baita. Eta hori lortzeko, Jainkoak profeten bidez adierazitakoa edo bakoitzari bere kontzientziak azaltzen diona bete behar da. Horrela, arima garbi dago, Jainkoaren grazian, eta gizakia guztiz zorionsua da. Egia da kristau-sinestedun batentzat Agustinek proposatutako bidea lagungarria izan daitekeela zorionsua izateko, baina sinesgabe batentzat ez da bide egokia. Badaude beste bide batzuk zoriontasuna lortzeko lagungarri izan daitezkeenak: adibidez, osasuna, adiskidetasuna, maitasuna, ohorea, agintea, ondasun materialak, barne-lasaitasuna eta bakea...

Niretzat, zorionsu izateko, nahikoak dira osasuna, familia eta lanaren bidez gutxienerako ondasun material batzuk izatea. Edo agian, gauza hauek, materialak diren heinean ez dira nahikoak gure azken helburua (zorionsua izatea) erdiesten laguntzeko. Edozein kasutan, Agustinen planteamendua, eta baita planteamendu kristau guztietan ere, ustezko ideia batetik abiatzen da (dira), hots, Jainkoaren existentziatik, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, demostra ezina den ideia hau ezbaian jartzen denean, zoriontasunaren oinarria ere kolokan jartzen da eta beste alde batean ezinbesteko aurkibidea planteatu behar dugu. Arrazoi espiritualak kenduz gero, oinarri materiala besterik ez zaigu geratzen zoriontasunaren sustraia baieztatzeko edo zoriontasuna bera uko egiteko. Dena dela, gizaki guztiei dagozkien desioak gizakiaren ezinbesteko ezaugarri moduan egiaztatzen dira.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

2.1 AZAL EZAZU, LABURKI, AGUSTIN HIPONAKOARENTZAT GAITZA ZER DEN (1,5 PUNTU). (GEHIENEZ: 150 HITZ).

Agustin bizitza osoan gaitzaren arazoaz kezkatu ibili zen. Gaitza munduan etengabe ikus daitekeen zerbait da. Horrela ditugu naturaren gaitz fisikoak (lurrikarak, ekaitzak, lehortek, gaixotasunak...), eta gaitz moralak (gaiztakeria, krimena, mendekua, gerrateak, adimen-ahultasunak, depresioak, bakardadea, larritasuna, beldurrak...)

San Agustinek gaitz fisikoa izaki sortuen ustelgarritasun-ikuspegitik ikusten du. Ustelgarritasuna ez da gaitz bat bere baitan; gauza ustelkorrek onak dira (Jainkoak sortu duen oro ona da). Gauzak ustelkorrek dira, zeren halakoak izango ez balira, Jainkoa

izango balirateke. Onak izango ez balira, ez lirateke existituko. Beraz, existitzen diren gauza guztiak onak dira, baina ez absolutuki (guztiz) onak.

Jainkoa izaki betea da, ongi absolutu eta aldaezina. Sorkariak, izaki sortuak, giza natura, ordea, izatea duen neurrian dira onak. Horrela, izatearen proportzioan doa ongia; beraz, gaitza ezin har dezakegu ongiaren kontrakotzat. Gaitza ongi zehatz baten ausentziari jartzen diogun izena besterik ez da.

Bestalde, gaitz morala gizakiak egiten duen aukeramenaren (*liberum arbitrium*) erabilera okerretik dator, eta gizaki da horren erantzulea, ez Jainkoa. Aukerarena, bada, ez da ongi absolutu bat, gaitzerako arriskua dakarrelako; hala ere, ongi bat da, zorientasunerako baldintza den ongia.

2.2 AGUSTINEN HISTORIAREN FILOSOFIA: JAINKOAREN HIRIA (1,5 PUNTU). (GEHIENEZ: 150 HITZ).

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 22. orrialdean 2.2. erantzuna]

2.3 EZAGUTZA: ARRAZOIMENA ETA FEDEA AGUSTINEN ETA TOMASEN OBRAN (2 PUNTU). (GEHIENEZ: 250 HITZ).

Agustin Hiponakoaren **ezagutzaren teoria ziurtasun-noziora bideratuta** dago, gizakiak zorientsu izatearen ziurtasun osoa nahi duelako. Eta **ziurtasun absolutua** izan behar denez, **ezin da zentzumenetan bakarrik oinarritu** (zentzu-ezagutzak ezin baitio gizakiari-ziurtasun absoluturik eskaini), **fedean ere** oinarritu behar duelako. **Arrazoiak eta fedea bat egin** behar dute.

Kristautasunaren hasieratik, beti azpimarratu izan da **kristauak saiatu egin behar duela sinesten duena ulertzen**. Beste era batera adierazita: fedea printzipioz ez du arrazoiak baztertu behar, eta arrazoiak halaber, printzipioz, ez du fedea kanporatu behar. Sinestedunak Jainkoaz era arrazoituan galdetu eta erantzun behar du. Filosofo kristauak ez ditu fedea eta arrazoiak banatzen. Fedea eta arrazoiaren arteko formula zuzena hauxe litzateke: **sinesten dut ulertzeko; ulertzen dut sinesteko** (*credo ut intelligam, intelligo ut credam*)

Agustin Hiponakoaren helburua ez da fedea eta arrazoiaren artean mugak jartzea, baizik eta, haren ustez, biek kristau-egia argitzea dute helburu. Haren iritziz, egia bakarra denez, gizakiari hori argitzea eta lortzea interesatzen zaio. Hori erdiesteko, **arrazoiak eta fedea elkarlanean** aritzen dira.

San Tomasek errealitatea benetan nolakoa den (egia) aurkitzeko bi bide bereizi zituen: fedea eta arrazoimenaren bidea. Lehenengoa teologiaren bidea da; bigarrena, filosofiarena. Bi bide horiek desberdinak izanik, bakoitzak bere aldetik joka dezake, eta abiapuntu propioa du:

- Filosofiak arrazoimena erabiltzen du soilik, eta ezin du onartu arrazoimenak eskain diezaiokeen argudioetatik kanpokoak (ezta erlijio-gaiez ari denean ere). Arrazoimenaren bidez aurkitutako egia *egia naturalak* edo *arrazoimenezko egia* dira.
- Teologiak, berriz, Jainkoaren errebelazioa du abiapuntu, bereziki Liburu Santuen (Bibliaren) bidez emana. Egia horiek, fedez edo sinesmenez ezagutzen ditugunak, *fedezko egia* dira. *Summa contra gentes* idazlanean «Jainkozko egia» deitu zien San Tomasek.

Autonomoak izateaz aparte, autosufizienteak dira biak, eta bakoitzak bere jardunean egia lor dezake: Teologiak egia lor dezake liburu sakratuei esker iritsi zaigun errebelazioaren azterketaren bidez, Jainkoak errebelatutakoa ez baitaiteke faltsua izan; Filosofiak ere egia lor dezake, arrazoimenak horretarako gaitasuna duelako, ondo

erabiliz gero. Tresna arrazoimena du, eta logikaren printzipioen bidez funtzionatzen du. Lehen printzipio horiek ezin dute errealtate faltsu bat ezagutarazi, Jainkoak emanak direlako, eta harengan ere badaudelako.

Beraz, bakoitzak bere aldetik egia lor badezake, ez daiteke konfliktorik izan bien artean, biek egia bera eta bakarra lor dezaketelako, ondo erabiliz gero. San Tomasen ustez, egia bakarra da, Averroesek defendatzen zuenaren aurka. Zientzia horiek metodologikoki desberdinak dira, eta egia-irizpide desberdina erabiltzen dute; baina helburu komuna dute: biek egia lortu nahi dute; egia, bere osotasunean. Desberdintasun horien ondorioz, diziplina bakoitzak esparru propioa du, eta gizakiari biak beharrezkoak zaizkio, egia ezagutzeko:

- Filosofiaren esparrua, lehen esan bezala, *egia naturalen* esparrua da, *arrazoimenaren bidezko* egien eremua. Egia horiek (*fede-atarikoak* izan ezik) ez zaizkigu errebelatzen; beraz, ez daitezke sinesmenez ezagutu. Arrazoimenaren bidea, dena den, ez da erraza izaten. Arrazoimena gizakiak jatorriz duen tresna baliotsua bada ere, ez da ahalguztiduna, eta erraz nahas daiteke edo huts egin dezake (goi-mailako gaiez ari denean, nagusiki).
- Teologiaren esparrua *naturaz gaindiko egien* esparrua da, hau da, *fedearen bidezko egiena*. Egia horiek (*fede-atarikoak* izan ezik) ezin dira arrazoimenaren bidez ezagutu; ulertezinak dira gizakiarentzat, haren arrazoimenaren ahalmena gainditu egiten baitute. Bide hori, ordea, Jainkoarengandik zuzenean etorria izanik, zehatza eta guztiz argia da; beraz, bere baitan ezin da okerrik gertatu.
- Alabaina, filosofia eta teologia, arrazoimenaren bidea eta fedearen bidea, autonomoak eta buruaskiak badira ere, bada bide batetik zein bestetik ezagut daitezkeen egien multzoa. Egia horiek, *fede-atariko* deituak, errebelatu egin zaizkio gizakiari; beraz, sinetsi egiten ditugu. Baina, aldi berean, giza arrazoimenak badu horiek ezagutzeko gaitasuna, Jainkoaren existentzia eta arimaren hilezkortasuna ezagutzekoa, besteak beste.

San Tomasen ustez, bideen aniztasun hori ez da alferrikakoa. San Tomasen aburuz, **jarduera filosofikoa ezinbestekoa da**; gainera, sinesmenari eta teologiari lagundu egiten die: Hainbat egia arrazoimenez baino ezin da ezagutu, Jainkoak ez baitu bide horren bidez ezagut dezakegun gehiena errebelatu; Filosofiak indartu egiten du sinesmena, egokiagoa baita ulermenez hornitua sinesmen soila baino; Zenbaitetan, arrazoimenak bere indar hutsez ulertu ezin duena gutxienez arrazoimenaren aurkakoa ez dela frogatzen dezake, eta horretan saiatu behar du; Gainera, teologiatik sortutako arazoak argitzen saiatu behar du.

Baina, horrez gain, San Tomasek uste zuen positiboa dela gizakiaren arrazoimenak uler ez ditzakeen gaietan saiatzea, ahalegin horretan lortuko dituen emaitzak eskasak izango direla jakin arren.

Sinesmena eta teologia ere ezinbestekotzat zituen Akinoko pentsalariak. Bi dira argumentu nagusiak:

- Hasteko, giza arrazoimenak ez duelako Jainkoak errebelazioz ezagutarazi dizkigun hainbat egia aurkitzeko ahalmenik. Jainkoaren hitza sinesten dugulako ezagutzen ditugu.
- Bestetik, teologia lagungarri gertatzen zaiolako filosofiari. Beraz, ez du onartzen giza adimenak ulertzerik ez duena sinestera ematea alferrikakoa denik. Hori da teologiak filosofiari laguntzeko era: aldeztetik filosofiaren beraren aztergaia aurkeztu egiten dio; helmuga sinesmenaren bidez ezaguna duenez, filosofiak badaki nora heldu behar duen; eta, horrela, arrazoimenaren abiapuntutik egia horretara iritsi arteko pausoak erraztu egiten ditu. Hori gertatzen zaio, adibidez, Jainkoaren existentzia sinesmenez ezagutzen duen filosofoari: Jainkoaren

existentzia aldez aurretik ezagututa, arrazoimenaren bidez horren demostrazioari ekin diezaioke gero. Hortaz:

- Sinesmena egia-irizpidea da arrazoimenarentzat. Inoiz kontrako emaitza edo ondorioetara iritsiz gero, arrazoimenak bere bide zailean eta nahasian okerren bat izan duelako izango da. Kasu horretan, akats bat dagoela erakusten dio sinesmenak, berriro ere bide zuzenera jotzeko aukera emanez.
- Sinesmenak sorrarazten dio gizakiari goi-mailako gaiekiko (Jainkozko gaiekiko) gogoia eta nahia. Sinesmenez ezagutzen ditugu mundu honetatik haraindi dauden ondasunak, senti daitezkeenak baino garrantzitsuagoak direnak gainera. Sinesmenak beste hiru onura dakartza:
 - Jainkoa guk ezagut dezakegun guztia baino handiagoa dela ohartzea.
 - Gizakia umilagoa bilakatzea, uler ez dezakeena ere badela ohartzen baita.
 - Gutxi ulertuta ere, ulertutako gutxi hori guztiz maitagarria bihurtzea gizakiarentzat.

Elkarri laguntzen dioten arren, jarduera filosofikoa teologikoaren mendekoa da. Batetik, teologia zuzena eta argia da; beraz, ez dezake okerrik egin edo hutsunerik izan. Bestetik, egia-irizpidea berarengandik kanpo duen arren, filosofia adimen-ingar hutsez egina dago; eta, beste filosofiak bezala, harriduratik abiatzen da, eta harridura sortzen dizkioten gaiak ezagutu nahi ditu, eta baita osoki jakin nahi ere azken kausak. Baina gauza guztien azken kausa Jainkoa denez, Jainkoaren azterketa —munduko gauza guztien azken kausaren azterketa— bilakatuko da filosofia.

San Tomasek bi bide horien beharra baieztatu zuen *fede-atariko* egiak ezagutzeko. Bide bakoitza bere aldetik nahikoa litzateke, baina horrek ez du esan nahi ez bata eta ez bestea alferrikakoak direnik. *Summa contra gentes* idazlanaren IV. atalean galdera honi erantzun zion: egia horiek arrazoimenaren bidez ezagutzera iristeko gai bada gizakia, zergatik errebelatu dizkio Jainkoak? Ez al da alferrikakoa egia horiek errebelatzea?

San Tomasek erantzun zuen ez dela alferrikakoa, ezinbestekoa baizik. Arrazoimenaren bidearen aukera bakarrik izanez gero, hiru eragozpen topatuko liriteke:

- Pertsona askok egia horiek ezagutzera iristeko aukerarik ez luke izango: batzuek, ezintasun intelektualaren ondorioz; beste batzuek, lanpeturik daudelako; eta beste batzuek, nagikeriaz.
- Gainera, arrazoimenaren bidea luzea eta zaila da; beraz, pertsona gehienak oso berandu iritsiko liriteke egia horiek ezagutzera.
- Azkenik, bidea nahasia denez, hainbat ikuspegi eta iritzi egongo liriteke jakintsuen artean, eta ez genuke egia modu garbian ikusiko.

Jainkoak egia horiek pertsona guztien eskura era argi eta garbian egotea nahi zuenez, errebelazioz ere ezagutzea nahi izan zuen, arrazoimenaren bidearen aukeraz gain.

2014KO EKAINAREN AZTERKETA

«Ama, filosofiaren gazteluaz beraz jabetu zara. Hitzak besterik ez zaizkizu falta izan *Hortensius* izeneko liburuan, filosofiaren alde eta gorespenerako liburu hartan, Tullius-ek bezala aditzera emateko: *Hara nola guztiek, ez filosofoek hain zuzen, baina bai eztabaidarako prest daudenek, nahi bezala bizi direnak zoriontsu direla diote. Oker handia! Komeni ez dena nahi izatea zoritxar ezin handiagoa baita. Nahi dena ez lortzea ez da komeni ez dena lortzea bezain txarra. Gaitz handiago dakartza borondatearen txarkeriak, zorteak ondasun baino*». ⁴

AGUSTIN HIPONAKOA: *Bizitza Zoriontsuaz*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1 Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).
- 1.3 Testuaren tesia kontuan hartuta (desiraren eta zoriontasunaren arteko lotura estua dela, hain zuzen), gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1 Fedea eta arrazoimena: ezagutzeko sinetsi (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.2 Historiaren filosofia: Lurreko hiria eta Jainkoaren Hiria (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.3 Jainkoaren existentzia: Tomas Akinokoaren bost ibilbideak (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).

⁴ «Madre, has conquistado el castillo mismo de la filosofía. Te han faltado las palabras para expresarte como Cicerón en el libro titulado *Hortensius*, compuesto para defensa y panegírico de la filosofía: *he aquí que todos, no filósofos precisamente, pero sí dispuestos para discutir, dicen que son felices los que viven como quieren. ¡Profundo error! Porque desear lo que no conviene es el colmo de la desventura. No lo es tanto no conseguir lo que deseas como conseguir lo que no te conviene. Porque mayores males acarrea la perversidad de la voluntad que los bienes de la fortuna*». [San Agustín, *De la vida feliz*]

ERANTZUNAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 LABURTU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ. (1 PUNTU).

[Ikus ezazu, 1.1. erantzuna, 25. orrialdean]

1.2 AZALDU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK. (1 PUNTU) (50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO).

[Ikus ezazu, 1.2. erantzuna, 25. orrialdean]

1.3 TESTUAREN TESIA KONTUAN HARTUTA (DESIRAREN ETA ZORIONTASUNAREN ARTEKO LOTURA ESTUA DELA, HAIN ZUZEN), GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA. (3 PUNTU) (200-300 HITZ).

Agustin Hiponakoa kristau sinesteduna denez, zoriontasuna ez du jartzen mundu fisikoko ondasun materialetan. Kristau izan aurretik, hainbat filosofia-korrontetatik ibili zen gaitzaren zergatia bilatzen eta zoriontasuna lortzen. Filosofia horietan ibili zen garaian izan zitezkeen plazer fisiko guztiak dastatu zituen, *Aitorkizunak* idazlanean aipatzen duen bezala, baina, hala eta guztiz ere, ez zuen bilatzen ari zen zoriontasun osoa lortzen. Kristau bihurtu zenean, zenbait idazlanetan argi eta garbi esaten digun bezala, zoriontasun osoa eskuratu zuen.

Zoriontasun hori ez da aurkitzen aldakorrak eta galkorrak diren ondasun materialetan, iraunkorra eta suntsiezina den Izaki Absolutuan baizik, hau da, Jainkoan. Beraz, gauza materialetan ez baita zoriontasuna aurkitzen, ezinbestean errealitate espiritual batean, desioen, grinen, nahien urrunean, hau da naturaz gaindiko errealitatean aurki daiteke zoriontasuna bera.

Arazoa da nola lortu Jainkoa, edo nola izan Jainkoaren jabe, Jainkoaren jabe dena guztiz zoriontsua baita. Eta hori lortzeko, Jainkoak profeten bidez adierazitakoa edo bakoitzari bere kontzientziak azaltzen diona bete behar da. Horrela, arima garbi dago, Jainkoaren grazian, eta gizakia guztiz zoriontsua da. Egia da kristau-sinestedun batentzat Agustinek proposatutako bidea lagungarria izan daitekeela zoriontsua izateko, baina sinesgabe batentzat ez da bide egokia. Badaude beste bide batzuk zoriontasuna lortzeko lagungarri izan daitezkeenak: adibidez, osasuna, adiskidetasuna, maitasuna, ohorea, agintea, ondasun materialak, barne-lasaitasuna eta bakea...

Niretzat, zoriontsu izateko, nahikoak dira osasuna, familia eta lanaren bidez gutxieneko ondasun material batzuk izatea. Edo agian, gauza hauek, materialak diren heinean ez dira nahikoak gure azken helburua (zoriontsua izatea) erdiesten laguntzeko. Edozein kasutan, Agustinen planteamendua, eta baita planteamendu kristau guztietan ere, ustezko ideia batetik abiatzen da (dira), hots, Jainkoaren existentziatik, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, demostra ezina den ideia hau ezbaian jartzen denean, zoriontasunaren oinarria ere kolokan jartzen da eta beste alde batean ezinbesteko aurkibidea planteatu behar dugu. Arrazoi espiritualak kenduz gero, oinarri materiala besterik ez zaigu geratzen zoriontasunaren sustraia baieztatzeko edo zoriontasuna bera uko egiteko. Dena dela, gizaki guztiei dagozkien desioak gizakiaren ezinbesteko ezaugarri moduan egiaztatzen dira.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

1.4 FEDEA ETA ARRAZOIMENA: EZAGUTZEKO SINETSI (1,5 PUNTU). (GEHIENEZ: 150 HITZ).

Agustin Hiponakoaren **ezagutzaren teoria ziurtasun-noziora bideratuta** dago, gizakiak zoriontsu izatearen ziurtasun osoa nahi duelako. Eta **ziurtasun absolutua** izan behar denez, **ezin da zentzumenetan bakarrik oinarritu** (zentzu-ezagutzak ezin baitio gizakiari-ziurtasun absoluturik eskaini), **fedean ere** oinarritu behar duelako. **Arrazoiak eta fedea bat egin** behar dute.

Kristautasunaren hasieratik, beti azpimarratu izan da **kristauak saiatu egin behar duela sinesten duena ulertzen**. Beste era batera adierazita: fedea printzipioz ez du arrazoiak baztertu behar, eta arrazoiak halaber, printzipioz, ez du fedea kanporatu behar. Sinestedunak Jainkoaz era arrazoituan galdetu eta erantzun behar du. Filosofo kristauak ez ditu fedea eta arrazoiak banatzen. Fedearen eta arrazoiaren arteko formula zuzena hauxe litzateke: **sinesten dut ulertzeko; ulertzen dut sinesteko** (*credo ut intelligam, intelligo ut credam*)

Agustin Hiponakoaren helburua ez da fedearen eta arrazoiaren artean mugak jartzea, baizik eta, haren ustez, biek kristau-egia argitzea dute helburu. Haren iritziz, egia bakarra denez, gizakiari hori argitzea eta lortzea interesatzen zaio. Hori erdiesteko, **arrazoiak eta fedea elkarlanean** aritzen dira.

1.5 HISTORIAREN FILOSOFIA: LURREKO HIRIA ETA JAINKOAREN HIRIA (1,5 PUNTU). (GEHIENEZ: 150 HITZ).

[Ikus ezazu, 2.2. erantzuna, 22. orrialdean]

1.6 JAINKOAREN EXISTENTZIA: TOMAS AKINOKOAREN BOST IBILBIDEAK (2 PUNTU). (GEHIENEZ: 250 HITZ).

Erdi Aroan kristau-pentsalariak Jainkoaren existentzia frogatzen saiatu ziren, eta horien artean, beharbada Tomas Akinokoaren gogoetak dira ezagunenak. Tomasek, Jainkoaren existentzia frogatzeko, laburrak eta argiak izanik klasikoak bihurtu diren bost ibilbide adierazten ditu:

- **Mugimenduarena:** Lehen froga honek Aristotelesen eragina du, eta munduan dagoen mugimenduaren esperientzia du abiapuntu; mugimenduan dagoen oro beste zerbaitek mugitua izan behar du, ezer ezin delako mugitu bere kabuz, eta, infinitura ezin daitekeenez jo mugimenduaren hasiera aurkitzeko. Lehen Motor bat onartu behar da, inork mugitu ezin duena eta mugimenduaren iturri dena. Horri Jainkoa deitzen diogu.
- **Kasu arazlea.** Bigarren frogak kausa arazlea aztertzen du; kausa oro bere aldetik kausatua da; eta hori beste batek kausatua, eta, horrela infinituraino jo ezin dugunez, azken Kausa bat existitu behar da. Azken Kausa horri Jainkoa deitzen diogu.
- **Kontingentziagatik.** Hirugarren froga kontingentziaren kontzeptuaz aritzen da. Izaki oro garai batean izaki eza izan zen; ezer ez da beharrezkoa (nahitaezkoa); dena (existitzen den oro), bada, izateko potentzian zegoen, baina une batean potentzialtasun hori gairatu zuen izaki izatera igaroz. Izaki kontingentea bakarrik balego, orain ez litzateke ezer existituko. Horrela, Izaki Beharrezko (nahitaezko) bat ezinbestekoa da izaki kontingenteak izateko, potentziatik izatera igarotzea ahalbidetzen duena, eta horri Jainkoa deitzen diogu.

- **Perfekzioen mailetatik.** Laugarren frogak izakien perfektutasun handiagoaren edo txikiagoaren atzean. Izaki Guztiz Perfektu bat onartzen du, eta horrek izakietan perfekzio handiagoa edo txikiagoa dagoela bereizteko ideia ereduak jartzen ditu gizabanako bakoitzaren baitan. Dena dela, «Izaki Perfektu» hori, aldi berean, baliotsua den guztiaren kausa edo zergatia da, balio guztiek berarengandik parte hatzen dutelako.
- **Kosmosaren ordenatik:** Bosgarren froga teleologikoa da. Estoikoek adierazia eta Zizeronek eta Senekak zehaztua. Unibertsoaren, kosmosean, ordena dago, eta kosmosa bere mugimenduarekin eta bilakaerarekin helmuga baterantz doa. Beraz, helmuga hori jartzen eta adierazten duen Goi Adimen bat existitu behar da, eta Goi Adimen hori Jainkoa da.

Tomas Akinokoak ez du uste Jainkoa berehala kontenpla daitekeenik, baina historikoki interesgarria da jakitea Jainkoaren existentzia ez duela inolaz ere zalantzan jartzen, eta gogoeta eginez aurkitzen saiatzen dela.

TOMAS AKINOKOA

2011KO EKAINAREN AZTERKETA

«Eta jainkozko probidentziak gizateriaren mugak bizitza honetan gozatu dezakeena baino gorago dagoen ongia agintzen dienez gizonei, beharrezkoa da arimari gorago dagoen ongia aurkeztea, arrazoiaren ahalmenak baino urrutiago doana. Horrela ikasiko du zenbaitetarako desioa izaten eta oraingo bizitzaren gainetik dagoenera arduratsu jotzen. Eta hori kristau-erlijioak bakarrik duen zerbait da, kristau-erlijioak bereziki ondasun espiritual eta betierekoak agintzen baititu.⁵»

Tomas Akinokoa, *Summa contra gentes*

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzerako)
- 1.3. Tomas Akinokoaren iritziz, kristau-erlijioak bakarrik agintzen ditu arrazoiaren ahalmenaren gainean dauden ondasun espiritual betierekoak. Eman ezazu Tomasen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat gutxienez. Ondoren, egin ezazu gogoeta bat, zure gogoeta, tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGUKETA

- 2.1. Jainkoaren izaera Tomas Akinokoaren pentsamenduan (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Tomas Akinokoaren etika eta politika: lege naturala (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Fedea eta arrazoimena Agustin Hiponakoaren filosofian: sinetzi, ezagutzeko (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

⁵ «Y porque los hombres están ordenados por la Providencia divina a un bien más alto que el que la limitación humana puede gozar en esta vida –como estudiaremos más adelante-, es necesario presentar al alma un bien superior, que trascienda las posibilidades actuales de la razón, para que aprenda a desear y diligentemente tender a lo que está totalmente sobre la presente vida. Y esto pertenece únicamente a la religión cristiana, que nos ofrece especialmente los bienes espirituales y eternos; por eso en ella se proponen verdades que superan la investigación racional».

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPECTATUZ

Testu honen bidez Tomas Akinokoak gorengo ongia erdiesteko erlijio kristauaren ahalmena aldarrikatzen du. Izan ere, Akinokoaren aburuz, «gorago dagoen ongia» zer den jakiteko, gizaki hilkorri dagokion adimenaren gaitasuna berez mugatuta dago, eta soil-soilik arrazoimenaz haraindikoak benetako ongia ezagutzen lagun diezaguke. Jainkozko Probidentiak, nolabait, gure ariman goian dagoen ongia ezagutzeko —eta berarekin batera benetako ongia gozatzeko— ahalbidea jartzen digu. Pentsalari horren arabera, era batez edo bestez (bai ezagutzaren bidez, bai sinesmenaren bitartez) erlijio kristaua bakar-bakarrik gauza da ongiaren —gorengo ongiaren— bidea erakusteko.

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK

ARIMA: San Tomasentzat, gizakia materiaz eta formaz osatutako batasun substantziala da, substantzia bat (errealitate bakarra). Substantzia bakun horren barruan, gorputza gizakiaren materia da, eta arima, berriz, forma. Arimak ematen dio gorputzari bizia, materiari gizaki-forma ematen dio. Arima, pentsamenduaren printzipioa, gizakiaren forma substantziala da. San Tomasentzat giza arima, animaliena ez bezala, *forma subsistentea* da —bizirik irauten duena—; hau da, materiarekin (gorputzarekin) batera ematen bada ere, eginkizun propioa du, pentsatzea; eta gorputzak ez du horretan parte hartzen. Arimarena besterik ez den eginkizun hori materiatik aparte burutuz joaten da. Horregatik, haren ustez, gure arima materiagabea da, ez dago materiaz eta formaz osaturik, espiritu soila da (*mens*). Materiagabea denez, ustelezina da, eta, ondorioz, hilezkorra. Horregatik, gorputzetik at bizi daiteke; existitzen jarraitzen du, gorputza hiltzen denean. Arima ezin daiteke, beraz, deskonposatu, eta Jainkoak bakarrik suntsi dezake.

ARRAZOIMENA: Orokorki harturik, argumentuak lantzeko eta kontzeptuak eta proposizioak elkarren lotzeko ahalmena da arrazoimena. Giza ahalmena da, gizakia beste izakietatik bereizten duena. Horregatik *animal rationale* izendatu izan da gizakia. Ia guztiek onartutzat daukate gizakiaren azpiko animaliek, goi-mailakoek ere, ez daukatela arrazoimenik, nolabaiteko adimena, edo abstrakzio-ahalmena, nabari badute ere. Tomas Akinokoarentzat arrazoimenak giza ezagutza eta animaliena ez ezik, izpiritu hutsena (Jainkoarena eta aingeruena) eta gizakiarena bereizten ditu. Izan ere, izpiritu hutsen ezagutza zuzeneko da, eta adimenaren (*intellectus*-aren) bidez gertatzen da; gizakiarena, berriz, sentsuen bitartez eta arrazoiketaren arrazoiketaz lortzen da: jarduera hau arrazoimenak (*ratiok*) egiten du.

1.3. TOMAS AKINOKOAREN IRITZIZ, KRISTAU-ERLIJIOAK BAKARRIK AGINTZEN DITU ARRAZOIAREN AHALMENAREN GAINEN DAUDEN ONDASUN ESPIRITUAL BETIEREKOAK. EMAN EZAZU TOMASEN TESI HORREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT GUTXIENEZ. ONDOREN, EGIN EZAZU GOGOETA BAT, ZURE GOGOETA, TESI HORRI BURUZ

Tesi horren arabera, arestian esan dugun legez, erlijio kristauak bakar-bakarrik dauka gaitasunak benetako ongia, zeina arrazoimenetik haratago baitago, erakusteko eta agintzeko. Izan ere, planteamendu horren arabera, giza arrazoimenak ezin ditu bere kabuz ondasun espiritual betierekoak ezagutu. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun legez,

beste proposamen filosofikoetan ere ondasun betierekoen eta benetako ongiaren aldarrikapena ikus dezakegu.

Akinokoak esaten diguna zentzuzkoa da, zeren eta kristautasunak aldarrikatzen duenarekin guztiz bat baitator. Izan ere, kristautasunean giza arrazoimenaren aldean sinesmenaren boteretsua adierazten da. Kristautasunaren historian zehar, nominalistek izan ezik –zeinek arrazoimenaren eta sinesmenaren jarduerak erabat bereizten baitzituzten-, pentsalari kristauek sinesmenari, eta ez giza arrazoimenari, lehentasuna eman zioten. Azken buruan, sinesmenaren aldeko aldarrikapen horrekin kristauek Jainkoaren eskuzabaltasuna, guztiahalduna eta abar jakinarazi nahi ziguten. Giza arrazoimenaren gaitasunaren mugak hegaldarazi ondoren, erlijioaren beharra ulergarria izango zatekeen sinesleentzat.

Tomas Akinokoaren planteamendu filosofikoan ere sinesmenaren lehentasuna ikus liteke, giza arrazoimenaren ahalmena baieztatu arren. Izan ere, San Tomasek errealitatea benetan nolakoa den (egia) aurkitzeko bi bide bereizi zituen: fedearen bidea eta arrazoimenaren bidea. Lehenengoa teologiaren bidea da; bigarrena, filosofiarena. Bi bide horiek desberdinak izanik, bakoitzak bere aldetik joka dezake, eta abiapuntu propioa du. Zientzia horiek metodologikoki desberdinak dira, eta egia-irizpide desberdina erabiltzen dute; baina helburu komuna dute: biek egia lortu nahi dute; egia, bere osotasunean. Desberdintasun horien ondorioz, diziplina bakoitzak esparru propioa du, eta gizakiari biak beharrezkoak zaizkio, egia ezagutzeko. Alabaina, filosofia eta teologia, arrazoimenaren bidea eta fedearen bidea, autonomoak eta buruaskiak badira ere, bada bide batetik zein bestetik ezagut daitekeen egien multzoa. Egia horiek, *fedeatariko* deituak, errebelatu egin zaizkio gizakiari; beraz, sinetsi egiten ditugu. Baina, aldi berean, giza arrazoimenak badu horiek ezagutzeko gaitasuna, Jainkoaren existentzia eta arimaren hilezkortasuna ezagutzekoa, besteak beste.

Elkarri laguntzen dioten arren, jarduera filosofikoa teologikoaren mendekoa da. Batetik, teologia zuzena eta argia da; beraz, ez dezake okerrik egin edo hutsunerik izan. Bestetik, egia-irizpidea berarengandik kanpo duen arren, filosofia adimen-indar hutsez egina dago.

Hau guztia hau ikusi ondoren, ez dago esan beharrik erlijio kristauren beharra Jainkoaren beharrean oinarritzen dela, bai pentsalari kristauren proposamenetan, bai Tomas Akinokoaren planteamenduan.

Hala eta guztiz ere, aurrean esan dugun legez, ondasun espiritual betierekoak erakusteko erlijio kristautasunaren ahalmenaren aldarrikapenaz gain, beste erlijio mota batzuetan aldarrikapen bera ikus dezakegu. Azken buruan, erlijio guztiek miraria dena, oraindik ezezaguna dena erakusteko gaitasuna adierazten dute. Ildo horretatik, Tomas Akinokoak esandakoa ez da berria, ezta originala ere. Beraz, Akinokoaren tesia premisa faltsu batetik abiatzen da: ezin daiteke inola ere esan ondasun espiritual betierekoak jakinarazteko gaitasuna duen erlijio bakarra erlijio kristaua zela, zeren eta beste erlijio multzo batek itxaropen berbera eskaintzen baitu.

Era berean, planteamendu horretan sinesmenaren lehentasuna adieraztean, bai erlijio kristauak, bai edozein motatako erlijioak uko egiten diote, nolabait, giza adimenaren ahalmenari. Ordura arte ikusita daukagunaren arabera, Tomas Akinokoaren proposamenean simenenak duen ezagutzaren bidez ezagut daiteke benetako egia; bien bitartean, sinesmenak ez badu egiaztatu, adimenak jakinarazi diguna kolokan jar daiteke. Ildo horretatik, nahiz eta Tomas Akinokoak ez esan, adimena ez da sinesmenaren parekoa eta, zentzu horretan, ezeztatuta dago. Hala ere, ezeztapen horrekin batera, uko egiten dio gizakiari berari, zeren eta, berari dagokion preziatuena dena (hots, ezjakintasunetik ihes egiteko ematen duena, adimena) kontuan ez bada

hartzen, gizakia jadanik ez baita gizakia bera. Jadanik ez da autonomoa (askea), heteronomoa baizik.

Amaitzeko, automomiari eta heteronomiari buruz hitz egiteari ekiten diogun neurrian, erlijioaren inguruan Kantek proposatukoarekin bat nator. Pentsalari alemaniarren arabera, erlijioaren eginkizuna ez da miraria dena azaltzea, baizik eta moralari dagokiona asmatzea eta jakinaraztea. Ildo horretatik, erlijioa arrazionala bihurtu behar da. Proposamen *deista* horren arabera, giza arrazoimenak erlijioari dagokion jarduera egitera abiatzen laguntzen digun, eta ez sinesmena hutsak. Kantek esango lukeen moduan, guk geuk *erlijioa arrazoimena hutsaren mugen barruan* kokatu behar dugula esan genezake.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUA

2.1. JAINKOAREN IZAERA TOMAS AKINOKOAREN PENTSAMENDUAN

Tomas Akinokoak, Jainkoaren existentzia frogatzeko, Aristotelesek bere metafisikan proposatutakoa kontuan hartu zuen. Ildo horretatik, errealitatetik abiatuta demostratzen du, era arrazionalan, Sortzailearen existentzia.

Hala ere, izaki guztiak ez dira berdinak. Batzuek ez dute beregan beren existentziaren justifikaziorik, haien existentzia ez da beharrezkoa. Izatedunak diren arren, gerta zitekeen ez izatea. Izatedunak dira, baina beste batengan dute beren existentziaren kausa. Horiek izate *kontingenteak* dira. *Izate beharrezkoak*, berriz, beregan du bere existentziaren justifikazioa. Existentzia ez dio ez beste inori, ezta ezeri zor, eta ezinezkoa zaio ez izatea. San Tomasek *izate beharrezkoaren* existentzia arrazionalki frogatu nahi izan zuen, eta baita existentzia hori nahitaezkoa dela ere, *izatearen* azterketa eginez. Izatearen kontzeptua bi zentzu nagusitan ematen da: **esentzian** eta **existentzian**. Biak dira *izate* kontzeptuaren moduak, desberdinak dira, eta izate kontingenteetan ez dira batera eman behar nahitaez. Izate kontingenteen esentziatik ez da ondorioztatzen nahitaez izate horren existentzia beharrezkoa denik. Jainkoarengan, berriz, esentzia eta existentzia batera doaz, Jainkoaren esentziaren ezinbesteko ezaugarria baita haren existentzia.

Aristotelesi jarraituz, Tomas Akinokoak, Jainkoaren existentzia frogatzeko, kausen teorian oinarritutako bost argudio erabili zituen, **bost bideak** deiturikoak, hain zuzen.

Orain arte erakutsitakoak ez digu ezer esaten Jainkoaren izateari buruz. Beste era batera esanda, Jainkoaren existentziaren bidez ezin dugu ezagutu zeintzuk diren Jainkoari dagozkion ezaugarriak eta zeintzuk diren Izate beharrezkoaren eta beste izaki guztien arteko bereizketak. Hau da, bost bideei esker, lehen kausa horren existentzia ezagutzen dugu, baina ez bere esentzia. Hau da, badakigu Jainkoa badela (existentzia), baina ez nolakoa den (esentzia). Dena den, eta apur batzuk baino ez badira ere, bost bideek Jainkoaren izaeraren ezaugarri batzuk ezagutzera ematen dizkigute; esaterako, Jainkoa gauza guztien sortzailea denez, mundua ezerezetik sortu zuela, aurretik *lehen gairik* izan balitz, ez baitzen denen sortzaile izango. Era berean, jakin dezakegu munduaren sorrera ekintza guztiz librea dela eta Jainkoarengan ez duela inongo eraginik ere, higitzaile ez-higikorra delako. Era laburrean, honako hau esan liteke: froga horien bidez, Jainkoa munduaren kausa dela jakin dezakegu zentzu bikoitzean: a) Kausa eragilea da; b) Kausa imitagarria (perfekzio-iturria baita).

Jainkoaren esentzia azaltzeko hiru bide proposatu zituen Tomas Akinokoak. Bide positiboa, bide negatiboa eta bide analogikoa. Lehenengoan Jainkoaren esentziari eransten dizkiogu, ezeztatu ondoren, beste izaki guztiei dagozkien ezaugarriak. Ildo

horretatik Jainkoa da, esaterako, hilezkorra, aldaezina, higiezina, amaitugabea, zatiezina, eta abar. Bigarrenaren arabera, hots, zentzu positiboan azaltzen denaren arabera, soil-soilik Berari dagozkion ezaugarriak aintzat hartzen dira; hala nola, perfektzioa, benetako adimena edo ezagutza, erabateko ontasuna, eta abar. Hirugarren bidea kontuan hartuta, beste izaki batzuen aldean zeintzuk diren Jainkoak dituen antzeko ezaugarriak kontuan hartzen da. Kasu honetan, nolabait, antzekotasuna kontuan hartzen dugu, Jainkoak dituen ezaugarriak beste izaki batzuei dagozkienak direla eta haren perfektzioa gorena dela jakinda. Esate baterako, Jainkoak, gizakiak bezala, adimentsua da, baina bere adimena, gizakiak duenaren aldean, erabatekoa eta perfektua da.

2.2. TOMAS AKINOKOAREN ETIKA ETA POLITIKA: LEGE NATURALA

Aristotelesek bezala, munduko gauza guztiek helburu bat dutela pentsatzen du San Tomasek, eta helburu hori betetzera jotzen dutela etengabe. San Tomasentzat, unibertsoan Jainkoak ezarritako lege unibertsala dago, eta lege horrek munduko fenomeno guztiak erregulatzen ditu, lege fisikoen bitartez. Lege unibertsal hori betierekoa eta aldaezina da, eta mekanikoki behartzen ditu mundu honetako objektu guztiak. Jainkoak ezarria denez, lege unibertsalak *ongira* jotzen du. Gizakia lege unibertsal eta natural horren partaide da, eta haren mende dago. Gainerako izakiak bezala, gizakiak ere parte hartzen du *ongia* den helburu unibertsal horretara jotzean. Mendekotasun hori erabatekoa da gorputzari dagokionean, baina arima ez dago era berean behartuta. Giza arimak erabaki dezake lege horri jaramon egin ala ez (ongi jokatu ala ez), librea baita. Gizakiak beregan du erabakimena.

Aske izateak, beraz, aukera ematen dio gizakiari *ongia* aukeratzeko, hau da, lege unibertsalaren arabera jokatzeko. Baina, horretarako, ezinbestekoa du Jainkoak ezarritako lege unibertsala ezagutzea, arimari dagokion alderdia (*lege moral naturala*). Ezagutza hori berezkoa du gizakiak, *kontzientzia moralaren* bitartez, jatorrizkoa baita. Eta gizakiaren berezko izaera arrazionala denez, arrazionalki deduzitu beharko ditu jokabidea bideratzeko arau moralak. Horrela, San Tomasek arau horiek lau mailatan zehaztu zituen: 1) Gizakiok biziraupenerako joera dugu; 2) Gizakiak, bizirik dagoen gorputzaren jabe den heinean, ugaltzeko joera du; 3) Gizakiak egia ezagutzeko berezko joera du, alderdi moralean eta baita gainerako arlo guztietan ere; eta 4) Gizakia animalia soziala da; hau da, gizartean bizitzeko joera du.

Dena den, lege naturalak ez du xehetasun handirik. Printzipio orokorrak besterik ez dira, eta lege positiboen bidez garatu behar dira. Kontuan hartu beharko da, jakina, lege positiboek ezin dutela lege naturalaren aurkako agindurik eman.

Lege unibertsala *Jainkoarenganako mugimendu arrazionala da*, Jainkoak gizakiari ezarritako helburua betetzera eramaten duelako; baina gizakiaren onarpen arrazionala eskatzen du. Eta lege unibertsalak gizakiaren garapen osoa dakar. Hori da gizakiaren helburu nagusia, zoriona, Jainkoa ezagutzea.

Lege positiboak dagoeneko aipatu ditugu. Beraz, Tomas Akinokoak politikaren inguruan esandakoa arakatu behar dugu. Gogora dezagun, ildo horretatik, Aristotelesek esan zuela gizakia animalia politikoa dela, hau da, hirian besteekin elkartu eta bizitzeko joera duen izakia. Gizakia naturalki gizartean integratzen da, baina gizarte horrek gizakiarentzat egokia izan behar du, gizakiaren zerbitzuan egina behar du, eta ez alderantziz. Beraz, **estatua** giza naturan oinarritutako erakundea da; estatua eginkizuna gizakiari bizitza zuzena eta egokia eskaintzea da, eta bakea eta ongizate kolektiboa ezartzea.

San Tomasek hainbat gobernu mota aztertu zituen, eta, guztien artean, egokiena monarkia iruditu zitzaion; herriaren parte-hartze zabala eskaintzen duen monarkia moderatua, betiere. Gobernu mota txarrena, ostera, tirania zela uste zuen. Dena den, tiraniaren aurkako indarkeria ez zuen onartzen, onurak baino kalte handiagoak ekarriko zituelakoan.

Haren ustez, gizabanakoak ez ditu bi helburu (bata, bizitzakoa; eta bestea, bizitzaren ondorengoa), bakarrik, eta bizitzaren ondoren bakarrik gauza daiteke: Jainkoaren kontenplazioa. Horrek politikan ere ondorio batzuk ditu: a) Batetik, estatuak elizaren mende egon behar du, haren aginduetara; b) Bestetik, aginte zibilak erlijio-erantzukizunak ditu. Gizakiaren helburua betearaztea da Elizaren eginkizun nagusia, baina estatuak ere behar diren baldintzak eta bitartekoak jartzen lagundu behar du, eta ezin du helburu hori betetzeko eragozpenik jarri edo onartu. Hortaz, lege positiboa ezin da lege naturalen aurkakoa izan.

2.3. FEDEA ETA ARRAZOIMENA AGUSTIN HIPONAKOAREN FILOSOFIAN: SINETSI, EZAGUTZEKO...

Kristautasunak gehienetan erabili izan duen metodoa ez da filosofikoa izan; erlijio bat izanik, sinetsi egiten ditu edukiak, ez arrazoitu, Jainkoak esandako hitzean oinarritzen baita. Hala ere, fedezko baieztapenak maiz alderatu eta eztabaidatu izan ziren filosofiatik eta beste iturrietatik zetozen ikuspegi eta iritziekin. Era honetan planteatu zen arrazoimenaren eta sinesmenaren arteko erlazioa, eta galdera ugari sortu zen horren inguruan.

Galdera horien guztien artean, hau da kristautasunaren historian zehar planteatzen den galdera nagusia: **gizakiaren arrazoimen mugatuak ezagut eta uler al dezake guztiz arrazoimena den Jainkoa?** Galdera horri emandako erantzuna askotarikoa eta aldakorra izan zen kristautasunaren eraginez sortutako filosofian.

Esaterako, II. mendean, kristautasunaren eraginez sortu zen lehen filosofian (**Patristika**), aurreko galderari emandako erantzuna baiezkoa izan zen, orokorrean: gehiengoaren ustez, gizakiak badu Jainkoa ezagutzeko eta ulertzeko ahalmena. Dena den, adostasuna ez zen guztizkoa izan, eta mende berean **Tertulianok**, esaterako, aurkakoa esan zuen, arrazoimena eta sinesmena kontrakoak zirela, alegia: «Credo quia absurdum» (absurdoa delako sinesten dut); hortaz, Tertulianoaren ustez, arrazoimena eta jakinduria alboratu egin behar ziren; Jainkoa ezagutza lortzeko errebelazioa oinarri dituen teologiara mugatu behar zen.

V. mendean, **San Agustinek** esan zuen filosofiak eta teologiak helburu bera zutelak; biek egia bilatzen zutelak. Baina, haren ustez, arrazoimena ezer ez da sinesmenik gabe, eta sinesmenak bakarrik ematen du benetako ezagutza. Dena den, sinesten dena ulertu behar dela zioen, ulertzen ahalegindu behar dela; hau da, sinesmena arrazionala bilakatu behar dela. Beraz, filosofiak eta teologiak elkarri laguntzen diote egia lortzen, pauso hauei jarraituz:

- Arrazoimenak sinesmena lortzen laguntzen dio gizakiari, egon daitezkeen trabak ezabatuz. Sinestea arrazoizkoa dela zioen.
- Sinesmenak arrazoimenari ere laguntzen dio, benetako jakinduria emanez. Benetako jakinduria ez dugu filosofiaren bidez lortzen, sinesmenaren azterketa arrazionalaren bitartez baizik.
- Arrazoimenak sinesmenari laguntzen dio, bere edukien azterketaren bidez.
- Arrazoimena eta sinesmena elkar lotuak daude. Biek elkarrekin aurkitzen dute Egia (Jainkoa); gizakia bat baita, kristaua eta arrazionala batera. «*Intellige ut credas. Crede ut intelligas*». Beste era batera esanda, «Ulertzea sinesteko, eta sinestea ulertzeko».

Era laburrean esan daiteke, *Credo ut intelligas*, hots, *Uler dezadan sinesten dut*, esan liteke formula hori fede-egintzatik filosofia abiatzen dela baieztatzen duen ezinbesteko printzipioa dela, zeina San Agustin, San Anselmo, Duns Scoto eta beste batzuek sostengatzen baitute.

2010KO EKAINAREN AZTERKETA

«Maisuak ikasleari irakasten diona doktorearen zientzia da, engainatzen ez badio, eta hori Jainkoaz esatea ez da zilegi. Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea. Lehen printzipio horiek, beraz, jainkoazko jakinduriaren barnean daude. Ondorioz, horien aurka dagoen guztia Jainkoazko jakinduriaren aurka dago. Hori ez da Jainkoaren bidea. Eta hortik, goiagerkude bidez ditugun egiek ezin dute ezagutza naturalaren aurkakoak izan.⁶»

TOMAS AKINOKOA, *Summa contra gentes*

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur pasarte, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
- 1.3. «Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea» tesia kontuan hartuta, gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Deskriba ezazu mugimenduan oinarrituriko Jainkoaren existentziaren froga tomista (Tomas Akinoarena) (1,5 puntu) (Gehinenez, 150 hitz)
- 2.2. Lege naturala Tomas Akinokoaren pentsamenduan (1,5 puntu) (Gehinenez, 150 hitz)
- 2.3. Jainkoaren existentzia Agustinen eta Tomasen pentsamenduan (2 puntu) (Gehinenez, 250 hitz)

⁶ «Lo que el maestro infunde en el alma del discípulo es la ciencia del doctor, a no ser que enseñe con engaño lo que no es lícito afirmar de Dios. El conocimiento natural de los primeros principios ha sido infundido por Dios en nosotros, ya que Él es autor de nuestra naturaleza. La Sabiduría divina contiene, por tanto, estos primeros principios. Luego todo lo que esté contra ellos está también contra la sabiduría divina. Esto no es posible de Dios. En consecuencia, las verdades que poseemos por revelación divina no pueden ser contrarias al conocimiento natural».

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ

Testu honetan, Jainkoa da lehenengo lerroan adierazten den maisua. Maisu hori gai da lege naturalei dagozkien lehenengo printzipioak erakusteko. Printzipio horiek benetakoak dira, Jainkoak ezin baitigu engainatu. Lege naturalak ezinbestekoak direla jakinda, lege natural horiek eta haien lehenengo printzipioak nahitaez bete behar ditugu. Azken buruan, ez bagenitu printzipio horiek bete egingo, Jainkoaren jakinduriaren kontra egongo ginatke. Hots, printzipio horiek ezeztatzeak Jainkoari uko egitea esan nahi du. Tomas Akinokoak esaten duen legez, era naturalean ezagutzen duguna ezin da jainkozko jakinduriaren kontra izan. Beste era batez esanda, adimenaren bidez ezagutzen dugunak ezin du errebelazioaren bidez ezagututakoa kontrakoa esan.

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK

LEHEN PRINTZIPIOA: Tomas Akinokoak lehen printzipioa aipatzen duenean lege naturalari dagokionari buruz hitz egiten du. Printzipio horren arabera gizakiak, beste izaki batzuek bezala, ongia egin eta gaizkia dena saihestu behar du. Azken buruan, Tomas Akinokoak lege naturalaren inguruan esaten duena hedatuta zegoen Erdi Aroko pentsamendu kristauan. *Lex naturalis* (*lege naturala*, non lehen printzipioa koka baliteke) delakoa, gizakiei eta gauzei dagokien lege naturala, Jainko-legearen adierazpena besterik ez da. Jakina, hala izanik, ez da ezinezkoa Jainkoak lege horiek haustea hala nahi izanez gero (mirariaren gertatzea). Hala ere, gizakiak, beste izaki guztiek bezala, ezin du lege natural hori ezeztatu, printzipio hori urratu, Jainkoaren nahiaren eta borondatearen aurka izango litzatekeelako.

EZAGUTZA NATURALA: «ezagutzaren problema» aipatzen denean, subjektuaren eta errealitatearen, subjektuaren eta objektuaren arteko harremanak ditugu gogoan, batzuek subjektua dutela lehenesten (idealistek) eta beste batzuek, aldiz, errealitatea (errealistek). Hala ere, Tomas Akinokoak *ezagutza naturala* aipatzen duenean, sinesmenari buruz esaten digu zerbait. Hau da, benetako ezagutza ez da, pentsalari horren arabera, adimenaren bidez lor litekeena, fedeari esker edo sinesmenaren bidez esdiesten dena baizik. Nor edo norengan eta haren esanetan jartzen dugun uste ona edo fidantza, hura edo hura baitan dugula “sineste” daukagula esan beharra dago. Hau da, zerbait ezagutzeko modu bezala, fedeak (sinesteak bezala eta hark baino gehiago) kontzientzia baieztatzailearen segurtasuna adierazten du, baina motibazio subjektiboetan funtsaturik eta ez ororentzat onargarri diren motibazio objektibo eta frogagarrietan. Horregatik, jakintzari nahiz uste hutsari kontrajartzen zaio.

1.3. «JAINKOAK EZARRI DITU GURE BAITAN LEHEN PRINTZIPIOEN EZAGUTZA, BERA IZAN BAITA GURE IZAERAREN EGILEA» TESIA KONTUAN HARTUTA, GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA.

Tomas Akinokoaren tesiaren arabera, lehenengo printzipio horiek, zeinek guk egin behar duguna zehazten baitute, gure baitan daude, Jainkoaren borondatearen ondorioz. Beraz, aurreko testuan irakur dezakegunez, ezin izango dugu printzipio horren kontra izan, halako zerbait egingo bagenu, naturaren kontra eta Jainkoaren nahimenaren kontrako geundeke. Hori dela eta, printzipio horiek nahitaezkoak dira.

Tesi horretan defendatzen diren ideia batzuen kontra ezin daiteke ezer esan. Orokorrean, baina, tesi horren bidez adierazten den lelo nagusia ezbaian jar liteke. Izan ere, naturan dauden lege naturalak eta lege natural horiei dagozkien oinarritzko printzipio naturalak ezin daitezke ezeztatu. Horrek ez du esan nahi Jainkoa lege eta printzipio horien sortzailea izango denik.

Aurrerago ikusiko dugunez, lege naturalek –Tomas Akinokoaren aburuz, Jainkoak egin dituen lege naturalek- fenomeno guztiak erregulatzen dituzte, lege fisikoen bitartez. Lege unibertsal horiek betierekoa eta aldaezina da, eta mekanikoki behartzen dituzte mundu honetako objektu guztiak, lege horien zergatia eta noranzkoa ezagutzen eta ulertzen ez badute ere. Jainkoak ezarria denez, lege unibertsalak *ongira* jotzen du. Azken buruan, ongi horretarako joerak zehazten du lehenengo printzipioa. Beste era batera esanda, gizakiak, beste izaki guztiek bezala, ongia egitera joera (natural) bat dauka. Egia esan, gizakiak ere parte hartzen du *ongia* den helburu unibertsal horretara jotzean, eta nahitaez joera horri dagozkion printzipio unibertsalak eta betierekoak bete behar ditu.

Akinokoaren arabera, printzipio natural hori beste lau printzipio naturaletan zehazten da, zeinak, azken buruan, gizakiarengan arau moralak besterik ez direla: biziraupenerako joera; ugaltzeko joera; egia ezagutzeko berezko joera; eta, gizartean bizitzeko joera. Orain arte esandakoa txarto dagoenik esatera ezin izango gara ausartuko. Pentsa dezagun horren inguruan zer esango luke Darwinek. Biologo horren ustetan, gizakiak, beste espezie guztiek egiten duten legez, badauka joera bat bizirauteko, eta horretan datza, orokorrean, hautespen naturalaren ideia. Azken ideia horren inguruan ulergarriak dira Tomas Akinokoak adierazten dituen printzipio moralak, naturalak diren heinean. Espezie guztiak eta baita espezie horren gizabanako guztiak ere ongiaren –onuragarria denaren- bila dabilta une guztietan. Gizakien kasuan, onuragarria dena lortzeagatik, horiek prest daude era naturalean ugaltzeko, gizartean bizitzeko eta bere berezko gaitasuna (hots, ezagutzeko gaitasuna) garatzeko. Ildo horretatik, Tomas Akinokoarekin batera lege eta printzipio horien nahikotasunaren baieztapena aldarrika genezake.

Hala ere, Akinokoak izugarritzko jauzi bat eman du, printzipio horien oinarria Jainkoa dela baieztatzen duenean. Lege naturalaren eta beraiei dagozkien printzipio naturalen existentziak ez digu baimena ematen Jainkoaren existentzia aldarrikatzeko. Pentsalari kristau horrek, baina, pausu bat ematen du, zeren eta hasieratik Jainkoaren existentziaren ideia barneratuta baitzeukan. Beste era batera esanda, aurrerago Darwinek egin zuen legez, naturan finkatuta dauden printzipio naturalak ezagutzeko ez da beharrezkoa naturaz gainetarantz abiatu behar (Jainkoenganantz, hain zuzen), naturarantz bertarantz baizik. Beraz, pentsamendu zientifikoan eta filosofian debekaturik dagoen pausu bat eman zuen Tomas Akinokoak. Ezin daitekeena inoiz demostratu ezin liteke baieztatu.

Ondorio gisa, Akinokoaren tesia oker dagoela esatera ausartuko naiz, zeren eta bera printzipio oker batetik abiatzen baita. Haren aburuz, gizakia Jainkoak sortua izan da eta bere baitan dauden printzipio naturalak (hain zuzen, printzipio moralak) Jainkoak berak ezarrita ditu. Gogora dezagun, Pentsalari kristauak esaten diguna: «Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea». Tesi hori defendatzeko Jainkoaren existentzian sinetsi behar dugu eta, era berean, existentzia horren probak egiaztagarriak direla onartu behar dugu. Hala ere, planteamendu hori, nolabait, zirkularra da. Naturan dauden lege eta printzipioak ezagutzeko eta baieztatzeke demostratu egin behar dugu Jainkoaren existentzia eta, une berean, Jainkoaren existentzia naturako printzipio eta lege natural beharrezko horietan

oinarritzen da. Akinokoari gertatzen zaio Descartesi Jainkoaren ustezko existentzia demostratzeko erabili zuen argudio ontologikoarekin gertatu zitzaiona.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

2.1. DESKRIBA EZAZU MUGIMENDUAN OINARRITURIKO JAINKOAREN EXISTENTZIAREN FROGA TOMISTA

Aristotelesen pentsamenduari jarraituz, San Tomasentzat *izatea* da kontzepturik unibertsalena. Izaeta gauza guztiez predika (esan) daiteke. Badiren errealitate guztietan dago, denetan aurkitzen da, eta horregatik, ez da ezerekin nahasten.

Baina izate guztiak ez dira berdinak. Batzuek ez dute beregan beren existentziaren justifikaziorik, haien existentzia ez da beharrezkoa. Izatedunak diren arren, gerta zitekeen ez izatea. Izatedunak dira, baina beste batengan dute beren existentziaren kausa. Horiek izate *kontingenteak* dira.

Izate beharrezkoak, berriz, beregan du bere existentziaren justifikazioa. Existentzia ez dio ez beste inori, ezta ezeri zor, eta ezinezkoa zaio ez izatea. San Tomasek *izate beharrezkoaren* existentzia arrazionalki frogatu nahi izan zuen, eta baita existentzia hori nahitaezkoa dela ere, *izatearen* azterketa eginez.

Eta izate beharrezkoaren, Jainkoaren existentzia frogatzeko, kausen teorian oinarritutako bost argudio erabili zituen: **bost bideak**. Bost argudio horietariko bakoitzean, hiru elementu ageri dira beti:

- Abiapuntua: zentzumenez jasotzen dugun errealitate sentigarri bat bada; hau da, froga bakoitza behaketa enpirikoz hasten da.
- Errealitate horren azalpena (kausa) ez dago bere baitan, berarengandik kanpoko beste zerbaitetan baizik. Horretatik abiatuta, serie kausal bat dago.
- Serie kausal horri jarraituta, Lehen Kausa (Jainkoa) aurkitzen da nahitaez, beharrezkotasunez. Ez daiteke Lehen Kausarik ez izatea.

Hiru elementu horiek kontuan hartuta, Tomas Akinokoak erakusten digu lehengo frogan, mugimenduaren frogan, hain zuzen, Jainkoaren existentzia era arrazionallean.

Tomas Akinokoaren arabera:

1. Munduan mugimendua dago.
2. Mugitzen den guztia beste batek mugitzen du; mugimenduaren eragilea berarengandik kanpo aurkitzen da. Baina ezerk ez du berarengan bere mugimenduaren arrazoia; ezinezkoa baita mugitua izatea eta, aldi berean, mugimenduaren sortzailea izatea. Beraz, beste batek mugitzen du; eta hori, hirugarren batek; eta hori, laugarren batek; eta horrela, behin eta berriz; azkenean, kausa higitzaile serie bat gertatzen da.
3. Kate hori ezin da infinitua izan (ezerk ez baitezake eman berak ez duenik); beraz, (den) lehen kausa higitzaile batek izan behar du abiapuntua, beharrezkotasunez. Ondorioz, bada **lehen kausa mugikorra**, erlijioek Jainko deitzen diotena, higitzailea baina ez higitua.

2.2. LEGE NATURALA TOMAS AKINOKOAREN PENTSAMENDUAN

Aristotelesek bezala, munduko gauza guztiek helburu bat dutela pentsatzen du San Tomasek, eta helburu hori betetzera jotzen dutela etengabe. San Tomasentzat, unibertsoan Jainkoak ezarritako lege unibertsala dago, eta lege horrek munduko fenomeno guztiak erregulatzen ditu, lege fisikoen bitartez. Lege unibertsal hori betierekoa eta aldaezina da, eta mekanikoki behartzen ditu mundu honetako objektu

guztiak. Jainkoak ezarria denez, lege unibertsalak *ongira* jotzen du. Gizakia lege unibertsal eta natural horren partaide da, eta haren mende dago. Gainerako izakiak bezala, gizakiak ere parte hartzen du *ongia* den helburu unibertsal horretara jotzean. Mendekotasun hori erabatekoa da gorputzari dagokionean, baina arima ez dago era berean behartuta. Giza arimak erabaki dezake lege horri jaramon egin ala ez (ongi jokatu ala ez), librea baita. Gizakiak beregan du erabakimena.

Aske izateak, beraz, aukera ematen dio gizakiari *ongia* aukeratzeko, hau da, lege unibertsalaren arabera jokatzeko. Baina, horretarako, ezinbestekoa du Jainkoak ezarritako lege unibertsala ezagutzea, arimari dagokion alderdia (*lege moral naturala*). Ezagutza hori berezkoa du gizakiak, *kontzientzia moralaren* bitartez, jatorrizkoa baita. Eta gizakiaren berezko izaera arrazionala denez, arrazionalki deduzitu beharko ditu jokabidea bideratzeko arau moralak. Horrela, San Tomasek arau horiek lau mailatan zehaztu zituen: 1) Gizakiok biziraupenerako joera dugu; 2) Gizakiak, bizirik dagoen gorputzaren jabe den heinean, ugaltzeko joera du; 3) Gizakiak egia ezagutzeko berezko joera du, alderdi moralean eta baita gainerako arlo guztietan ere; eta 4) Gizakia animalia soziala da; hau da, gizartean bizitzeko joera du.

Dena den, lege naturalak ez du xehetasun handirik. Printzipio orokorrak besterik ez dira, eta lege positiboek bidez garatu behar dira. Kontuan hartu beharko da, jakina, lege positiboek ezin dutela lege naturalaren aurkako agindurik eman.

Lege unibertsala *Jainkoarenganako mugimendu arrazionala da*, Jainkoak gizakiari ezarritako helburua betetzera eramaten duelako; baina gizakiaren onarpen arrazionala eskatzen du. Eta lege unibertsalak gizakiaren garapen osoa dakar. Hori da gizakiaren helburu nagusia, zoriona, Jainkoa ezagutzea.

Lege positiboak dagoeneko aipatu ditugu. Beraz, Tomas Akinokoak politikaren inguruan esandakoa arakatu behar dugu. Gogora dezagun, ildo horretatik, Aristotelesekin esan zuela gizakia animalia politikoa dela, hau da, hirian besteekin elkartu eta bizitzeko joera duen izakia. Gizakia naturalki gizartean integratzen da, baina gizarte horrek gizakiarentzat egokia izan behar du, gizakiaren zerbitzuan egina behar du, eta ez alderantziz. Beraz, **estatua** giza naturan oinarritutako erakundea da; estatuaren eginkizuna gizakiari bizitza zuzena eta egokia eskaintzea da, eta bakea eta ongizate kolektiboa ezartzea.

San Tomasek hainbat gobernu mota aztertu zituen, eta, guztien artean, egokiena monarkia iruditu zitzaion; herriaren parte-hartze zabala eskaintzen duen monarkia moderatua, betiere. Gobernu mota txarrena, ostera, tirania zela uste zuen. Dena den, tiraniaren aurkako indarkeria ez zuen onartzen, onurak baino kalte handiagoak ekarriko zituelakoan.

Haren ustez, gizabanakoak ez ditu bi helburu (bata, bizitzakoa; eta bestea, bizitzaren ondorengoa), bakarra baizik, eta bizitzaren ondoren bakarrik gauza daiteke: Jainkoaren kontenplazioa. Horrek politikan ere ondorio batzuk ditu: a) Batetik, estatuak elizaren mende egon behar du, haren aginduetara; b) Bestetik, aginte zibilak erlijio-erantzukizunak ditu. Gizakiaren helburua betearaztea da Elizaren eginkizun nagusia, baina estatuak ere behar diren baldintzak eta bitartekoak jartzen lagundu behar du, eta ezin du helburu hori betetzeko eragozpenik jarri edo onartu. Hortaz, lege positiboa ezin da lege naturalen aurkakoa izan.

2.3. JAINKOAREN EXISTENTZIA AGUSTINEN ETA TOMASEN PENTSAMENDUAN

Agustinek hiru printzipio onartzen zituen bere teologiaren abiapuntutzat: 1) Jainkoa unibertso osoa sortu duen izaki gorena da; 2) Jainkoa gauza ororen arrazoa da; 3) Jainkoa ontasun absolutua da. Beraz, Agustinen sistema filosofikoan Jainkoak

hausnarketa ontologiko, epistemologiko eta etikoaren gailurra hartu zuen. Agustinentzat Jainkoaren existentzia agerikoa den arren, bere obran zehar froga klasiko guztiak erabiltzen zituen. Frogarik ezagunena *betiereko ideiena* da, *Aukeramen askeari buruz* obran garatzen duena. Froga hori gizakiaren beraren barnetik abiatzen da, giza arimaren egia betiereko, unibertsal eta beharrezkoen presentziatik, hain zuzen. Agustinen argudioaren arabera, halako egiak, betiereko, aldaezin eta beharrezkoak izanik, ez dira giza arrazoimenaren menpekoak, giza arrazoimena mugatua, aldakorra eta kontingentea baita. Beraz, arrazoimenaren edukiak arrazoimena bera baino duinagoak badira, Agustinek ondorioztatzen zuen egia horiek betiereko, aldaezin eta beharrezkoa den izaki batetik datozela. Eta izaki hori Jainkoa da. Agustin Hiponakoaren arabera, Jainkoa izaki gorena eta ezin hobea da: betierekoa, aldaezina, sinplea eta bakarra, ontasun absolutua eta orojakilea.

Orain arte ikusi dugun legez, Agustin Ideien doktrinaz baliatzen zen, baina Ideia eredugarriak edo arketipoak, ustezko mundu ulergarri batean kokatu beharrean, Jainkoaren adimenean kokatzen zituen, ontologia platonikoari kutsu kristaua emanez. Horrela, Jainkoaren Ideia eredugarrien bidez, existitzen diren ororen ulergarritasuna lor daiteke, existitzen dena Jainkoaren Ideien menpe baitago. Beraz, Jainkoaren ezagutza baldintzatu gabea da, sortzaile den neurrian, Jainkoa ez baitzaio errealitateari egokitzen, errealitatea Jainkoari baizik. Agustinen teologian, Jainkoak kreetzen du materia, eta formarik gabeko materian gauza guztien haziak ere jartzen ditu, denboran zehar errealitate haiek sor daitezen. Bestela esanda, Jainkoak potentzialki sortzen ditu errealitateak.

Tomas Akinokoak, aurrean ikusi dugun legez, Jainkoaren existentzia frogatzeko, Aristotelesek bere metafisikan proposatutakoa kontuan hartu zuen. Ildo horretatik, errealitateatik abiatuta demostratzen du era arrazionalen Sortzailearen existentzia.

Dagoeneko esanda dago, izaki guztiak ez direla berdinak. Batzuek ez dute beregan beren existentziaren justifikaziorik, haien existentzia ez da beharrezkoa. Izatedunak diren arren, gerta zitekeen ez izatea. Izatedunak dira, baina beste batengan dute beren existentziaren kausa. Horiek izate *kontingenteak* dira. *Izate beharrezkoak*, berriz, beregan du bere existentziaren justifikazioa. Existentzia ez dio ez beste inori, ezta ezeri zor, eta ezinezkoa zaio ez izatea. San Tomasek *izate beharrezkoaren* existentzia arrazionalki frogatu nahi izan zuen, eta baita existentzia hori nahitaezkoa dela ere, *izatearen* azterketa eginez. Izatearen kontzeptua bi zentzu nagusitan ematen da: **esentzian** eta **existentzian**. Biak dira *izate* kontzeptuaren moduak, desberdinak dira, eta izate kontingenteetan ez dira batera eman behar nahitaez. Izate kontingenteen esentziatik ez da ondorioztatzen nahitaez izate horren existentzia beharrezkoa denik. Jainkoarengan, berriz, esentzia eta existentzia batera doaz, Jainkoaren esentziaren ezinbesteko ezaugarria baita haren existentzia.

Aristotelesi jarraituz, Tomas Akinokoak, Jainkoaren existentzia frogatzeko, kausen teoriaran oinarritutako bost argudio erabili zituen, **bost bideak** deiturikoak, hain zuzen. Bost argudio horietariko bakoitzean, hiru elementu ageri dira beti: 1) zentzumenez jasotzen dugun errealitate sentigarri bat bada; hau da, froga bakoitza behaketa enpirikoz hasten da; 2) errealitate horren azalpena (kausa) ez dago bere baitan, berarengandik kanpoko beste zer baitetan baizik. Horretatik abiatuta, serie kausal bat dago; eta 3) serie kausal horri jarraituta, Lehen Kausa (Jainkoa) aurkitzen da nahitaez, beharrezkotasunez. Ez daiteke Lehen Kausarik ez izatea.

Orain arte erakutsitakoak ez digu ezer esaten Jainkoaren izateari buruz. Beste era batera esanda, Jainkoaren existentziaren bidez ezin dugu ezagutu zeintzuk diren Jainkoari dagozkion ezaugarriak eta zeintzuk diren Izate beharrezkoaren eta beste izaki guztien arteko bereizketak. Hau da, Bost bideei esker, lehen kausa horren existentzia

ezagutzen dugu, baina ez bere esentzia. Hau da, badakigu Jainkoa badela (existentzia), baina ez nolakoa den (esentzia). Dena den, eta apur batzuk baino ez badira ere, bost bideek Jainkoaren izaeraren ezaugarri batzuk ezagutzera ematen dizkigute; esaterako, Jainkoa gauza guztien sortzailea denez, mundua ezerezetik sortu zuela, aurretik *lehen gairik* izan balitz, ez baitzen denen sortzaile izango. Era berean, jakin dezakegu munduaren sorrera ekintza guztiz librea dela eta Jainkoarengan ez duela inongo eraginik ere, higitzaile ez-higikorra delako. Era laburrean, honako hau esan liteke: froga horien bidez, Jainkoa munduaren kausa dela jakin dezakegu zentzu bikoitzean: a) Kausa eragilea da; b) Kausa imitagarria (perfekzio-iturria baita)

2014KO EKAINAREN AZTERKETA

«Maisuak ikasleari irakasten diona doktorearen zientzia da, engainatzen ez badio, eta hori Jainkoaz esatea ez da zilegi. Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea. Lehen printzipio horiek, beraz, jainkozko jakinduriaren barnean daude. Ondorioz, horien aurka dagoen guztia Jainkoizko jakinduriaren aurka dago. Hori ez da Jainkoaren bidea. Eta hortik, goiagerkunde bidez ditugun egiek ezin dute ezagutza naturalaren aurkakoak izan.⁷»

TOMAS AKINOKOA, *Summa contra gentes*

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
- 1.3. «Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea» tesia kontuan hartuta, gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Jainkoaren izaera (1,5 puntu) (Gehinenez, 150 hitz)
- 2.2. Etika eta politika: Lege naturala (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Fedea eta arrazoimena: ezagutzeko sinetsi (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

⁷ «Lo que el maestro infunde en el alma del discípulo es la ciencia del doctor, a no ser que enseñe con engaño lo que no es lícito afirmar de Dios. El conocimiento natural de los primeros principios ha sido infundido por Dios en nosotros, ya que Él es autor de nuestra naturaleza. La Sabiduría divina contiene, por tanto, estos primeros principios. Luego todo lo que esté contra ellos está también contra la sabiduría divina. Esto no es posible de Dios. En consecuencia, las verdades que poseemos por revelación divina no pueden ser contrarias al conocimiento natural».

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPECTATUZ (1 PUNTU)

[Ikus ezazu 1.1. erantzuna, aurreko azterketan, 43. orrialdean]

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ BAKOITZEKO)

[Ikus ezazu 1.2. erantzuna, aurreko azterketan, 43. orrialdean]

1.3. «JAINKOAK EZARRI DITU GURE BAITAN LEHEN PRINTZIPIOEN EZAGUTZA, BERA IZAN BAITA GURE IZAERAREN EGILEA» TESIA KONTUAN HARTUTA, GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA (3 PUNTU) (200-300 HITZ).

[Ikus ezazu 1.3. erantzuna, aurreko azterketan, 43. orrialdean]

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

2.1. JAINKOAREN IZAERA (1,5 PUNTU) (GEHINENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu 2.1. erantzuna, aurreko azterketan, 38. orrialdean]

2.2. ETIKA ETA POLITIKA: LEGE NATURALA (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu 2.2. erantzuna, aurreko azterketan, 39. orrialdean]

2.3. FEDEA ETA ARRAZOIMENA: EZAGUTZEKO SINETSI (2 PUNTU) (GEHIENEZ, 250 HITZ)

[Ikus ezazu 2.3. erantzuna, aurreko azterketan, 40. orrialdean]

DESCARTES

2010EKO EKAINAREN AZTERKETA

«Horren ostean, ni zer nintzen aztertu arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako gorputzik eta ez zegoela ni nengoen inolako mundutik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela horregatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez, ni zerbait nintzela, eta, ostera bakarrik, pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik ni banintzela uste izateko».

R. DESCARTES
Metodoari buruzko diskurtsoa
Klasikoak

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1. Laburtu testuaren ideiak, ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
2. Azaldu azpimarratutako hitzak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
3. Descartes pentsamenduan, zalantza metodikoa garatu ondoren, arrazoimenak «nia» ezartzen du, eta hortik hasten da ezagutzaren bidea. Egin idazlan labur bat tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste bat azalduz gutxienez. Ondoren, egin zure tesiari buruzko gogoeta (3 puntu) (200-300 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

1. Azal itzazu labur Descartes zalantza metodikoaren urratsak (1,5 puntu) (50 hitz gehienez)
2. Azal ezazu labur Descartes *Metodoaren diskurtsoan* egiten den Jainkoaren frogapena (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
3. Errenazimenduaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (250 hitz gehienez)

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU TESTUAREN IDEIAK, IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)

Arimaren esentzia pentsatzean datza, eta gorputzetik guztiz bereizten den substantziak ez du behar ez lekurik ez mundurik existitzeko, eta pentsatzeari utziz gero existitzeari ere uzten dio.

1.2. AZALDU AZPIMARRATUTAKO HITZAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ BAKOITZEKO)

Ni: Descartesena filosofia-sistemaren lehen egia, nia edo gauza pentsatzailea, zalantzarik, *cogitotik*, pentsamendutik sortzen dena: «cogito ergo sum».

Descartesentzat, *res cogitans* edo substantzia pentsatzailea pentsatzean datza, pentsatze-ekintzak egiten, hala nola: zalantza egitea, nahi izatea, baieztatzea, ezeztatzea, iruditzea, sentitzea... Pentsatzeari uzten dionean, existentziari ere uzten dio. Nia, gauza pentsatzailea, arimarekin berdintzen da, eta espiritu bat denez gero, ez du materiari (gorputzik) behar existitzeko, ezta mundurik ere. Horregatik, guztiz askea da gorputzetik.

ZIURTASUNA: Descartesena ziurtasunaz mintzo garenean, lehen egiaz mintzo gara; hau da, «Cogito ergo sum» printzipioz. *Gogittoa* («Pentsatzen dut, beraz, banaiz») ez da silogismo baten ondorio, intuizio bat baizik (argitasunez eta bereizitasunez hornitua); ekintza psikiko bat da, eta zuzenean eta arartegabe hauteman daiteke; pentsatzen ari naizenean pentsatzaile gisa existitzen naiz. Zalantza gnoseologikoa ugalkorra da, eta hartatik sortu behar du ziurtasunak. Lehen ziurtasuna Descartesena sistema filosofikoa osoaren egituraren oinarria da. Hona hemen kezka: zalantzaren zergatietatik aterako nauen lehen ziurtasun subjektiboa bilatzea. Eta geroago lortuko ditudan ziurtasunen *ratio seminalis*aren antzeko zerbait izan dadila.

1.3. DESCARTESENA PENSAMENDUAN, ZALANTZA METODIKOA GARATU ONDOREN, ARRAZOIMENAK «NIA» EZARTZEN DU, ETA HORTIK HASTEN DA EZAGUTZAREN BIDEA. EGIN IDAZLAN LABUR BAT TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE BAT AZALDUZ GUTXIENEZ. ONDOREN, EGIN ZURE TESIARI BURUZKO GOGOETA (3 PUNTU) (200-300 HITZ GEHIENEZ)

Nolanahi ere, zer da «nia», *res cogitans*? «Zalantza egin, aditu, baieztatu, ukatu, nahi izan, iruditu, sentitu...», pentsatze-ekintzak egiten ari naizenean pentsatzaile gisa existitzen naiz, eta pentsatzeari utziko banio, existitzeari utziko nioke absolutuki. Beraz, hauxe da egia: pentsatzen duen gauza bat besterik ez naiz; hain zuzen, gogamen bat, espiritu bat. Descartesengan subjektibitate ezagutzaileak alde materiala galtzen du. Touraineko filosofoarentzat, gogamen hutsa, espiritu hutsa ezagutzaren subjektu bakarra da.

Descartesena arabera, hiru eratako pentsamenduak edo ideiak daude: jatorrizkoak, eratorriak eta irudimenezkoak.

- Jatorrizko ideiak: Descartesena arabera, gizakia jatorrizko ideiekin jaiotzen da. Zentzumeneren bidez zerbait ikusi, entzun, dastatu... aurretik, gure adimeneren hainbat ideia dugu: besteak beste, arimaren ideia (substantzia pentsatzailea). Jainkoaren ideia (substantzia infinitua) eta materiaren ideia (substantzia hedatua)
- Ideia eratorriak: gizakiak zentzumeneren bidez objektu fisikoei buruzko datu sentigarriak eskuratzen dituzenean, kontzeptuak eratzen ditu: adibidez, «mendia», «zaldia», «zuhaitza», etab. Ideia orokorra dira.
- Irudimenezko ideiak: gizakiak sortutako ideiak dira. Adibidez, zentauroa (erdi zaldi erdi gizaki) eta itsaslamina edo sirena (erdi arrain erdi emakume). Hau da,

adimenak ideia berri bat asmatzen du sentipenen bidez aurretik jasotako bi ideia edo gehiago nahasiz, edo ideia berri bat eratzen du oroimenean gordeko hainbat ideiaren bidez.

Horrela, Descartesek ez du ezagutzaren iturri garrantzitsuena fedean ipintzen (Erdi Aroan egin bezala), arrazoian baizik. Haren arrazionalismoa Aro Modernoaren abiapuntu da, eta izugarritzko aurkikuntzat har daiteke hori. Orain, pentsamenduaren ardatza ez da Jainkoa, gizakia baizik. Arrazoa da egia bilatzeko irizpide nagusia. Egia bilatzean, arrazoirik kanpo ez du onartzen ez tradizioz, ez autoritatez, ezta beste inolako irizpiderik ere.

Hori guztia oso ondo dago. Arazoa da ea arrazoiak dena konpondu ahal duen XVIII. mendean (Descartes XVII. mendean bizi izan zen). Arrazoa jainkotu egiten da, eta gizakiaren arazo guztiak konpontzeko gai dela pentsatzen da. Gizakia, arrazoiak gainera, sentimendua ere bada, eta arrazoiak bakarrik ezin ditu arazo guztiak konpondu.

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. AZAL ITZAZU LABUR DESCARTESEN ZALANTZA METODIKOAREN URRATSAK (1,5 PUNTU) (50 HITZ GEHIENEZ)

Lau dira zalantza metodikoaren urratsak: zentzumenena, arrazoimena, ametsena eta «Jainko maltzurra»-ren hipotesia.

- **Zentzumenen iruzurra:** Sarritan zentzumenek engainatu egiten gaituztela esperimendatzen dugu, eta behin zimardikatzen gaituenaz ezin gaitetzkeenez fida, ezin naiz zentzumenez fida.
- **Arrazoi-datuak:** Arrazoiketak egitean, hala nola batuketa, kenketa, etab., esperientzia dut sarritan egiten naizela. Beraz, arrazoiak ere naiteke fida nire filosofia berriaren lehen egia ziurra aurkitzean. Horrenbestez, zalantzan jartzen ditut ere arrazoiaren bidez lortu ditudan ezagutza guztiak.
- **Esna- eta lo-egoerak bereizteko ezintasuna:** Ametsetan, lo gaudenean, esna gaudenean besteko sentipen sendoak eta gogorrak izaten ditugu. Descartesek honela dio: «Hortik ondorioztatzen dut loaldetik itzarraldira argi bereiz dezakegun ezaugarriarik ez dagoela». Horregatik, *zalantzan* jarri behar ditugu ametsetako eduki guztiak ere.
- **«Jainko maltzurra»-ren hipotesia:** Honela azaltzen du Descartesek hipotesi horren esanahia: Bere boterea beti ni engainatzen erabili duen Jainkoa gaizkilea eta maltzurra dela suposatuko dut. Jainko gaiztoak berea egin ez dezan, aukera hau bakarrik geratzen zait hipotesi honen aurrean: ziurtzat ezertxo ere ez onartzea.

2.2. AZAL EZAZU LABUR DESCARTESEN *METODOAREN DISKURTSOAN* EGITEN DEN JAINKOAREN FROGAPENA (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Hiru dira Descartes ustez Jainkoaren existentziari buruzko frogak:

- **Lehen froga: sustantzia infinitua.** Nire ideien artean, Jainkoaren ideia dago, era honela ulertzen du Descartesek: «Substantzia infinitua, betierekoa, mugagaitza, orojakilea, ahalguztiduna, eta hari esker ni eta diren beste gauza guztiak (benetan existitzen badira) sortuak eta ekoitziak izan dira. Nolaketasun hauek hain handiak eta bikainak dira, ezen zenbat eta gehiago aztertu, orduan eta

gutxiago limurtzen bainau ideia honek nigan izan dezakeela sorrera. Esan dudan guztia kontuan hartuz, zera ondorioztatu behar da: Jainkoa existitzen da, substantziaren ideia nigan izanik ere, substantzia bat naizelako. Substantzia infinituaren ideia ez nuke izango, mugatua izanik, benetan substantzia infinituak nire espirituan jarri ez balu».

- **Bigarren froga: izaki perfektua.** Froga hau perfektutasuna ideian oinarritzen da. Ez da froga berri bat, aurreko froga aurkezteko beste era bat baizik.
- **Hirugarren froga: Argumentu ontologikoa.** Honela dio argumentuak: izaki oso perfektuaren ideia dut. Haren existentzia haren esentziatik banaezina da, haranaren ideia mendiaren ideiatik bereiz ezin daitekeen modu berean. Arrazoi horregatik, mendia haranik gabe ulertzea kontraesana izango litzatekeen bezala, kontraesana litzateke ere izaki oso perfektua existentziarik gabe ulertzea.

2.3. ERRENAZIMENDUAREN EZAUGARRI OROKORRAK (2 PUNTU) (250 HITZ GEHIENEZ)

Testuinguru historikoa honako hau da: Errenazimentua antzinako greziar-erromatar balioetara itzultzea proposatzen zuen mugimendu kulturala izan zen. Italian sortu zen, XIV, mendean, eta Europa osora hedatu zen XVI.-XVII. mendeetan. Mugimendu hau sorrarazi zuten zergatiak honako hauek dira: alde batetik, Italiako egoera politiko eta soziala merkataritzaren garapena eragin zuen, eta ondorioz, burgesia kultura eta dinamikoa bihurtu zen gizarte-klase nagusi. Bestetik, Konstantinopla, Ekialdeko Erromatar Inperioaren hiriburua, otomandarren eskuetan erori zenean, greziar-erromatar kulturaren maisu ziren jakintsu askok Italiara ihes egin zuten. Latina menderatzen zuten jakintsu humanista hauei antzinatasuna eta teknikaren eta zientziaren aurrerakuntza interesatzen zitzaizkien, eta jakintzaren hedakuntza bultzatu zuten unibertsitatean eta akademien bidez.

Errenazimenduaren ezaugarri orokorrak:

- Greziar-erromatar arte klasikoa imitatu nahi zuten.
- Gizakiaren neurria itzultzen ahalegindu ziren. Errenazimenduko gizakiak klasikoak, aurrerakuntza zientifikoak eta asmakuntza handiak ezagutzen zituen, eta unibertsoaren erdigune sentitu zen (antropozentrismoa)
- Unibertsoaren, pentsamenduaren eta artearen ikuspegi unitarioa zuten.
- Mezenas edo babesleek Errenazimenduko artea eta kultura bultzatu zituzten (Florentziako Medici familiak, Erromako Julio II.a aita santuak...)
- Artista anonimo desagertu eta izen-abizeneko jenioa sortu zen.
- Izaera sekularra izan arren, Errenazimenduak ez zuen albo batera utzi zuen kristau-erlijioa, eta barnerratu egin zuen bere munduaren ikuspegian.
- Inprentak kultura demokratizatu zuen.
- Herri-hizkuntzak indartu eta liburuak hizkuntza horietan idazten hasi ziren.

2012KO EKAINAREN AZTERKETA
ETA
2013KO UZTAILAREN AZTERKETA

«Horren ostean, ni zer nintzen aztertu arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako gorputzik eta ez zegoela ni nengoen inolako mundutik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela horregatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez, ni zerbait nintzela, eta, ostera bakarrik, pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik ni banintzela uste izateko».

R. DESCARTES
Metodoari buruzko diskurtsoa
Klasikoak

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu testuaren ideiak, ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azaldu azpimarratutako hitzak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
- 1.3. Descartesen pentsamenduan, zalantza metodikoa garatu ondoren, arrazoimenak «nia» ezartzen du, eta hortik hasten da ezagutzaren bidea. Egin idazlan labur bat tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste bat azalduz gutxienez. Ondoren, egin zure tesiari buruzko gogoeta (3 puntu) (200-300 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Zalantza metodikoa eta lehen ziurtasuna: *Cogitoa* (1,5 puntu) (50 hitz gehienez)
- 2.2. Pasioak eta askatasuna (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
- 2.3. Enpirismoaren ezaugarri nagusiak (2 puntu) (250 hitz gehienez)

ERANTZUNAK

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU TESTUAREN IDEIAK, IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPECTATUZ (1 PUNTU)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 1.1. erantzuna, 53. orrialdean]

1.2. AZALDU AZPIMARRATUTAKO HITZAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ BAKOITZEKO)

GORPUTZA: Descartesek, lehen bi substantziak aurkitu ondoren, hots, gauza pentsatzailea eta gauza infinitua, gauza gorpuzdunen existentzia frogatu nahi du. Horretarako, bere baitan aurkitzen dituen ideietara jotzen du. Zenbait ideiarenean, gauza sentikorrei buruzko ideiak aurkitzen ditu, eta honetako galdera hauek egiten dizkio bere buruari: zer-nolako kausak sortu ditu ideia horiek? Nondik datoz? Beraz, Descartesentzat, Jainkoak bermatzen du nire ideia eratorriek korrespondentzia bat dutela kanpoko munduarekin (adimenaz kanpoko errealitatearekin). Kanpoko errealitateari buruz argi eta bereizitasunez hautematen duguna geometria espekulatiboaren objektu berbera da; hots, hedadura, mugimendua eta irudia. Hedadura *res extensa*-ren atributu edo ezaugarri propioa da

ZALANTZA: Zalantza oso garrantzitsua da Descartesenean filosofian, funtzio asko betetzen dituelako: garbiketa gnoseologikoa, ziurtasun-iturri izatea... Lehen funtzioa hondakinak ezabatzea da: hots, burmuinaren garbiketa gnoseologikoa. Zalantzaren bigarren funtzioa honako hau da: ziurtasun-iturri izatea, eta ez nahitaezko pasagune bat soilik. Ezer ez da beharrezko zalantza honetatik kanpo. Horrelako zalantzak zalantza eszeptikoa gairatzen du. Ezin da benetako zalantza izan, eta ez da. **Zalantza metodikoa da, hots, ziurtasunak lortzeko erabiltzen den lanabesa.**

Zalantza gnoseologikoa ugalkorra da, eta hartatik sortu behar du ziurtasunak. **Lehen ziurtasuna Descartesenean sistema filosofiko osoaren egituraren oinarria izango da.** Hona hemen kezka: zalantzaren zergatietatik aterako nauen lehen ziurtasun subjektiboa bilatzea. Eta geroago lortuko ditudan ziurtasunaren *ratio seminalis*aren antzeko zerbait izan dadila.

Zalantza metodikoaren azken **mailarekin. Descartesek bereizi egiten ditu pentsamendua eta pentsamenduaren objektua.** Esfera batean pentsatzen badut, eta pentsamenduan esfera argi eta garbi hautematen badut, zalantzan ipin dezaket pentsamenduan dudaren existentzia? Zerbaiten pentsamendu argia eta bereizitasuna dugunean, badirudi zerbait horrek errealitatea izan behar duela.

1.3. DESCARTESEN PENTSAMENDUAN, ZALANTZA METODIKOA GARATU ONDOREN, ARRAZOIMENAK «NIA» EZARTZEN DU, ETA HORTIK HASTEN DA EZAGUTZAREN BIDEA. EGIN IDAZLAN LABUR BAT TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE BAT AZALDUZ GUTXIENEZ. ONDOREN, EGIN ZURE TESIARI BURUZKO GOGOETA (3 PUNTU) (200-300 HITZ GEHIENEZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 1.3. erantzuna, 53. orrialdean]

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. ZALANTZA METODIKOA ETA LEHEN ZIURTASUNA: *COGITO*A (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Descartesek paradigma modura erabiltzen du matematika lehenik egia ziurrak bilatzeko, eta filosofia eta zientzia eraikitzeko, ondoren. Descartesek oso arretatsu jokatzen du lehen printzipio horien bilaketan. Lehen printzipioek hutsuneren bat izan dezakete, eta Touraineko filosofoak ez du eraikuntza osoa behera erortzeko arriskuan jarri nahi. Printzipio horiek nabariak eta zalantza gabekoak izan behar dute, eta horregatik erabiltzen du zalantza metodikoa.

Zergatik du horrenbesteko garrantzia zalantzak Descartesentzat? Funtzio asko dituelako: **a) Garbiketa gnoseologikoa:** Lehen funtzioa hondakinak ezabatzea da: hots, burmuinaren garbiketa gnoseologikoa; **b) Ziurtasun-iturria:** Zalantzaren bigarren funtzioa honako hau da: ziurtasun-iturri izatea, eta ez nahitaezko pasagune bat soilik. Ezer ez da beharrezko zalantza honetatik kanpo. Horrelako zalantzak zalantza eszeptikoa gaitzen du. Ezin da benetako zalantza izan, eta ez da. **Zalantza metodikoa da, hots, ziurtasunak lortzeko erabiltzen den lanabesa.**

Zalantzaren bilakabideak hainbat maila ditu: zentzumenarena, ametsena eta Jainko gaiztoaren hipotesia: **a) Zentzumenen iruzurra:** Honela dio Descartesek: «Orain arte ziurtzat eta egiazat izan dudan guztia zentzumenetatik etorri da nigana. Sarritan zentzumenek engainatu egin nautela espermentatu dut, eta behin zimardikatzen gaituen ezin gaitezkeenez fida, ezin naiz zentzumenez fida»; **b) Arrazoiketen hutsak:** Arrazoiketak egitean, hala nola batuketa, kenketa..., esperientzia dut sarritan erratu egiten naizela. Beraz, arrazoiak ere ezin naiteke fio nire filosofia berriaren lehen egia ziurra aurkitzean. Horrenbestez, zalantzan jartzen ditut arrazoiaren bidez lortu ditudan ezagutza guztiak; **c) Esna- eta lo-egoerak bereizteko ezintasuna:** Ametsetan, lo gaudenean, esna gaudenean besteko sentipen sendoak eta gogorrak izaten ditugu. **d) «Jainko maltzurra»-ren hipotesia:** Honela azaltzen du Descartesek hipotesi honen esanahia: «Bere boterea ni engainatzeko erabili duen Jainkoa gaizkilea eta maltzurra dela suposatuko dut». Jainko gaiztoak berea egin ez dezan, aukera hau bakarrik geratzen zait hipotesi honen aurrean: ziurtzat ezertxo ere ez onartzea.

Zalantza gnoseologikoa ugalkorra da, eta hartatik sortu behar du ziurtasunak. **Lehen ziurtasuna Descartesek sistema filosofiko osoaren egituraren oinarria izango da. Descartesek bereizi egiten ditu pentsamendua eta pentsamenduaren objektua.** Esfera batean pentsatzen badut, eta pentsamenduan esfera argi eta garbi hautematen badut, zalantzan ipin dezaket pentsamenduan dudan esferaren existentzia? Zerbaiten pentsamendu argia eta bereizia dugunean, badirudi zerbait horrek errealitatea izan behar duela. Dena dela, gakoa honetan datza: **ez dira nahasi behar pentsamendua, ekintza psikikoa den aldetik, eta gogamena.** Pentsamenduaren objektua bitarteko bat da niretzat, beste zerbaiten bidez ematen zaidana. Pentsamendua arartegabekoa da. Pentsatzen ari naizenean, hain zuzen, duda egin dezaket pentsatzen den horren izateaz, pentsamenduaren bitartez ematen zaigulako, baina **ekintza psikikoa bera ez dago bitartekotua, eta arartegabe hauteman daiteke.** Badakit behinik behin pentsamendua hor dagoela, ziur egon naiteke. Hain ziur ezen, zalantzan jarriko banu ere, zalantza-egite hori ekintza psikiko edo pentsamendu mota bat besterik ez bailitzateke izango, eta pentsatzen ariko nintzateke. Eta zer da ekintza psikiko hori? Pentsatzen ari naizen ni nerau, ni pentsatzailea jardunean. Azkenean, bada, zalantza-prozesu osoaren amaieran, honako honekin, egia nabari eta zalantzagabeko honekin, egiten du topo Descartesek: **«Pentsatzen dut; beraz, banaiz».**

«*Cogito ergo sum*». Zer zentzu edo izaera du adierazpen horrek? Silogismoaren zati bat eratzen du? Ez. Argi eta garbi dio pentsalariak: «Gauza pentsatzaileak garella ohartzen garenean, ez da silogismo batetik ondorioztatzen den lehen nozio bati buruz tratatzen ari garelako. Norbaitek “*pentsatzen ari naiz; beraz, banaiz*” esaten duenean, silogismo bat dela medio, existentzia ez du pentsamendutik ere ondorioztatzen». **Nabaria den zerbait ulertzen du zuzenean; hots, gogamenaren intuizio soil gisa.**

*Cogitatio*aren eremua kontzientziarena bezalakoa da: egite kontziente oro bere buruaz kontzientzia duen artean gogoeta bihurtzen da. Horregatik, ***cogitoak ez ditu ezagutzaren egiteak bakarrik inguratzen, baita nahimenaren egiteak ere.*** Eta normala denez, pentsamenduaren barnean, sentipena eta irudimena hartzen ditu. Bigarren gogoetan *res cogitans* zer den galdetzen duenean, edozein bizipen psikikorekin erantzuten du: «**Zalantza egin, aditu, baieztatu, ezeztatu, nahi izan, iruditu, sentitu**». «*Cogito ergo sum*» printzipioak zerikusia du subjektu pentsatzailearen errealitate existentzialarekin. Zalantzaren gaiari lotuta, esan daiteke zalantzak, behin-behinean bada ere, ezagutzaren objektuaren ukapenera eramaten gaituela pixkanaka. Aldiz, objektuaren ukapenean subjektuaren baieztapena dago.

«*Cogito ergo sum*» adierazpenean, ***nia res cogitans da. Zer da res cogitans? «Zalantza egin, aditu, baieztatu, ukatu, nahi izan, iruditu, sentitu...».*** Niaren naturatik aldaezinak diren pentsamenduaren ezaugarriak dira: «Hemen aurkitu dut: pentsamendua da; kendu izan zaidan bakarra. Ni naiz, existitzen naiz? Zehazki, pentsatzen ari naizenean. Pentsatzeari utziko baino, une horretantxe utziko nioke existentziari absolutuki. Orain zera onartzen dut, nahitaez egiazkoa dena eta ez besterik; bada, pentsatzen duen gauza bat bakarrik naiz, hain zuzen ere, gogamen bat, espiritu bat, hitzak niretzat lehen ezezagunak».

2.2. PASIOAK ETA ASKATASUNA (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Arimaren grinak tratatuan, Descartesek arimaren ekintzak eta grinak bereizten ditu.

Ekintzak, nahimenaren mende daude; grinak, aldiz, ustekabekoak dira (nahigabekoak), eta pertzepzioek, bizitza-espirituak ariman sortutako sentimendu edo zirrarek osatzen dute. Hau da, gorputzean eragiten duten indar mekanikoak dira. Jakina, **arimaren indarra gorputzaren mugimenduak gelditu eta grinak menderatzen datza; haren ahultasuna, ordea, grinaren mende (morroi) izatea, haiek eskutakoa betetzea.**

Grinak elkarren aurkakoak dira: alde batetik, arima erakartzen dute; bestetik, arima bere buruaren aurka bihurtu eta egoera tamalgarrian uzten dute. Horrek ez du esan nahi grinak kaltegarriak direnik; den-denak gorputzarekin lotuta daude, eta ariman gertatzen dira. Haien zeregina arima zirikatzea da (erakartzea), amore eman dezan, gorputza kontserbatzeko eta hobetzeko. Alde horretatik, **tristura eta alaitasuna bi grina funtsezkoenak** dira.

Tristurarekin, arima gorputzarentzat kaltegarri diren gauzez ohartzen da, eta gorrotoa sentitzen du tristura sortzen dion horrekiko, eta ihes egiten du harengandik (tristura sortzen dion horrengandik).

Alaitasunez, aldiz, gorputzarentzat onuragarri diren gauzez ohartarazten du arima, eta maite ditu ondorioz; gauza horiek eskuratzeko eta kontserbatzeko joera du.

Grinak morrontza-egoerarekin lotuta daude; hau da, esklabo bihurtzen dute gizakia eta askatasuna kentzen diote. Gizakia morrontza horretatik askatzen ahalegindu behar du. Grinak «ongia» (ona dena) eta «gaizkia» (txarra dena) beren

izatean diren baino handiagoak agerrarazten ditu; hala, grinek «gaizkietatik» urruntzen gaituzte, eta «ongiak» komeni dena baino egarri handiagoz bilatzera bultzatzen gaituzte.

Gizakiak ez du bere burua grinaren mende utzi behar, eta esperientzia eta arrazoaia izan behar ditu gidari bere ekintzetan. Horrela bakarrik bereiziko ditu ongia eta gaizkia neurri egokian. Zuhurtzia grinak menderatzean datza; grinak izan arren, pentsamendu argi eta garbiaren (bereizia) agintea hedatuz eta aginte hori, ahal den neurrian, odol-mugimenduen eta bizitza-espirtuen mende dauden grinetatik aldenduz.

2.3. ENPIRISMOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK (2 PUNTU) (250 HITZ GEHIENEZ)

Enpirismoa Ingalaterran XVII. mendean sortutako pentsamendu-korrontea da. Garrantzi handikoa da bi arlotan egindako ekarpenengatik: batetik, zentzu askotan arrazionalismoari kontrajartzen zaion epistemologia garatu zuten, zentzumendu-esperientziaren baliozkotasunean oinarrituta; bestetik, planteamendu politiko berrien ekarpen erabakigarria egin zuten (modernitatearen proiektu ilustratuan oinarritutakoak izan ziren).

Locke (1632-1704) hartzen da enpirismo modernoaren sortzaitzat. Dena den, Aristoteles, estoikoak, Tomas Akinokoa edo Ockham planteamendu epistemologiko horren aitzindari gisa aipa litezke, besteak beste. Hala ere, Hume (1711-1766) izan zen pentsamendu enpirista indar handienez bere azken ondorioetaraino eramane zuten pentsalaria. Humeren lanak irakurtzeak *esnarazi zuen* Kant amets dogmatikotik, Kantek berak aitortzen duenez.

Hauek dira enpirismoak ezagutzaren arazoaren inguruan mantentzen dituen tesi nagusiak:

1. *Ezagutza guztiak esperientzian hasten dira*: Zuzeneko behaketan ezagututakoari deitu zioten esperientzia, nahiz kanpoko objektu sentikorretakoa (kanpoko esperientzia edo sentipena) izan, nahiz psikearen barruko operazioak izan (barne-esperientzia edo hausnarketa). Esperientzia, beraz, **pertzepzioa** da.

2. *Gizakiaren ezagutza ez da mugagabea, esperientziak ere mugak baititu*: Bigarren tesia ere arrazionalismoaren kontrakoa da: arrazionalisten ustez, metodo egoki bat aurkituz gero, arrazoimena dena ezagutzera irits liteke; ez du alde aurreko inolako mugarik. Enpiristek, aldiz, aukera hori ukatu egiten zuten: «ez daiteke joan esperientzietatik haraindi». Ondorioz, filosofiaren eremua asko murriztu zuten. Eta ezagutzaren ziurtasuna ere oso murriztua gelditu zen.

3. *Ezagutza ideien ezagutza da*: Enpiristak ados daude arrazionalistekin puntu honetan: adimenak ez ditu gauzak berak ezagutzen, haietaz ditugun ideiak baizik. Horregatik, hain zuzen ere, eman zieten enpiristek hainbesteko garrantzia ideien arteko erlazioei, gizakiaren mekanismo psikologiko guztiak haien bidez esplikatu nahian.

4. *Arrazoimenaren kontzepzio berria, esperientzian hasi, oinarritu eta bukatzen den arrazoimena*: Hala ere, gizakiaren bizitzarako gida bakarra da, eta helburu praktikoa izan behar du. Ondorioz, arazo moral, politiko, erlijioso, pedagogiko eta abarretara dedikatu ziren enpiristak. Eta metafisika, zientzia gisa, ezinezkoa zela esan zuten. Lehenengo aldiz, arrazoimena arrazoimen kritikoa da.

Enpirismoaren kezka nagusia politika da, eta berebizikoa izan zen haren eragina ondorengo filosofian eta baita XVIII. mendeko praktika politikoan ere.

Enpiristen artean, John Locke (1632-1704) dugu politika-teorialari garrantzitsuenen (*Tolerantziari buruzko eskutitza, Aginte zibilar buruzko tratatuak*). Liberalismo politikoaren teorialaria izan zen. Lockek zioen estatuaren jatorria ez zela Jainkoa, baina, orduan, zein da botere politikoaren justifikazioa? Horretarako, *natura-egoera* zein ote zen planteatu zuten. Lockeren esanetan, beharrezkoa da natura-egoera

hipotetiko bat irudikatzea: nolako baldintzatan biziko lirateke gizakiak, estaturik ez balego eta natura-egoeran biziko balira? Horrela irudikatutako egoera beste inongo gizartetan baino hobea balitz, Estatua sortzeko inolako justifikaziorik ez legoke. Baina alderantziz balitz, eta egoera naturaleko bizi-baldintzak okerragoak balira, eta ezerosotasun horiek desagerrarazi edota kontrolatzeko modurik balego, orduan, estatua edo gizarte zibila sortzea justifikatuta legoke.

2015EKO UZTAILAREN AZTERKETA

«Baina zenbait gizaki konbentzituta dago Jainkoa ezagutzea, eta baita euren arima zer den ezagutzea ere, zaila dela, eta honen arrazoia da gizakiok ez dutela sekula euren adimena gai sentigarrietatik altxatzen, eta ez dutela ezer bururatzen irudikatuz ez bada (hau gai materialez pentsatzeko modu bat delarik), eta irudikagarria ez den guztiari ulertezina deritzote. Hau nahikoa nabarmena egiten da filosofoek eskoletan arautzat duten honako baieztapenean: hots, ezer ez dagoela ulermenean aurretik sentimenetan egon ez dena; eta, hala ere, hemen [sentimene]tan] egia da ez direla sekula egon ez Jainkoaren, ez arimaren, ideiak.»⁸

Descartes, R., *Metodoaren diskurtsoa*, IV

GALDERAK

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu testuaren ideiak, ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azaldu azpimarratutako hitzak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
- 1.3. Descartes iritziz, Jainkoaren ideia ez dator sentimeneetatik, baina, hala ere, Jainkoaren existentzia frogatu daiteke. Eman ezazu Descartes tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat, gutxienez. Gero, egin ezazu zure gogoeta gaiari buruz (3 puntu) (200-300 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Intuizioa eta dedukzioa. Analisia eta sintesia (1,5 puntu) (50 hitz gehienez)
- 2.2. Pasioak eta askatasuna (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
- 2.3. Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak (2 puntu) (250 hitz gehienez)

⁸ «Pero si hay algunos que están persuadidos de que es difícil conocer lo que sea Dios, y aún lo que sea el alma, es porque no levantan nunca su espíritu por encima de las cosas sensibles, y están tan acostumbrados a considerarlo todo con la imaginación –que es un modo de pensar particular para las cosas materiales- que lo que no es imaginable les parece no ser inteligible. Lo cual está bastante manifiesto en la máxima que los filósofos admiten como verdadera en las escuelas, y que dice que no hay nada en el entendimiento que no haya estado antes en el sentido, en donde, sin embargo, es cierto que nunca han estado las ideas de Dios y del alma» [Descartes, *Discurso del método*, IV)

GALDERAK

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU TESTUAREN IDEIAK, IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)

Descartesez, haren desengainuaren ondorioz, enpirismoaren ikuspegitik errealitatearen inguruko ezagutzan planteatzen dena kritikatu zuen. Eskolastikako pentsalariak, Aristotelesen filosofiari jarraituz, esaten duten legez, *nihil est in intellectu quod prius non fuerit in sensu*. Arrazionalismoaren ikuspegitik, aldiz, sentikortasunetik sortutako ezagutzak ez dira fidagarriak, zalantzak baizik. Hori da hori esaten diguna pentsalari frantziarrak testu honetan. Zentzumenen bidezko pentsamendua ez da soil soilik fidagarria; gainera, auzi batzuei buruz ikerketa sakon bat egiteko ere, ez da komenigarria, irudimenaren bitartez ezagutzen diren objektuak sentikorrek besterik ez dira, eta Jainkoaz edo arimaz hausnartzea ezin daiteke egin irudimenaren laguntza bakarrarekin.

1.2. AZALDU AZPIMARRATUTAKO HITZAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ BAKOITZEKO)

JAINKOA: Descartes iritsi aurretik, pentsalariak munduaren existentzia frogatzen zuten lehenik, eta existentzia horretan oinarritzen zituzten ondoren Jainkoaren existentziari buruzko frogak. Touraineko filosofoak alderantzikatu egungo du ordena: Jainkoari buruzko ezagutza-munduaren ezagutzan oinarritu ordez, nahitaezkoa zaio lehenik Jainkoaren existentzia frogatzea. Ikusi dugunez, nahikoa da nabaritasuna ziurtasun absolutua lortzeko; hau da, sumaketa argia eta berezia. Testu batzuetan, ordea, Descartesez dio Jainkoaren existentzia baldintza dela beste gauza batzuei buruz ziur egoteko. **Hortaz, nori dagokio azken batean ezagutzaren baliozkotasun objektiboa, nabaritasunari ala Jainkoari?** Testuetan aipatzen den bezala, zerekin balioztatzen du Jainkoari buruzko nire ezagutza? Alfer-gurpil bat sortzen da Jainkoaren ezagutza nabaritasunean oinarritzen duenean, eta horrela izanik era berean Jainkoa nabaritasun berberaren oinarria?

SENTIMENA: Honela dio Descartesez: «Orain arte ziurtat eta egiazat izan dudan guztia zentzumenetatik etorri da nigana. Sarritan zentzumenek engainatu egin nautela espermentatu dut, eta behin zimardikatzen gaituenez ezin gaitezkeenez fida, ezin naiz zentzumenez fida». Enpirismoaren arabera, esperientzia da ezagutzaren iturria. Enpirismoak ez ditu jatorrizko ideiak onartzen, eta gizakiaren adimena *tabula rasa* bat da datu sentikorrek jaso aurretik. Dena dela, Descartesez, arrazionalista denez, ezagutza sentikorrek gutxiesten ditu arrazoi-ezagutzaren aurrean, ezin duelako ezagutza ziur-ziurrik eskaini (ezinezkoa delako erabateko indukzioa).

Hortik **ezin ondoriozta daiteke Descartesez esperientzia arbuiatzen duenik** edo esperientziaren beharra ikusten ez duenik. *Metodoaren diskurtsoaren* seigarren atalean honela mintzo da Descartes: «Halaber, esperientziei dagokienez, zenbat eta gehiago sakondu ezagutzan, orduan eta beharrezkoagoak direla jabetzen naiz». Baieztapen horretan, Descartes naturari buruzko ikerkuntza zientifikoez ari da. Ikerkuntza horretan aurrera egitea esperientziaren mende dago. Ezinezkoa da naturari buruzko edozein esparrutan posible diren esperientzia guztiak egitea.

Nahiz eta ezagutza sentikorrek ez izan arrazoi ezagutzaren unibertsaltasunik eta beharrezkotasunik, eta esperientziak beti urriak izan, Descartesez esperientzia balioesten du. Beharrezkoa du esperientziak natura-ezagutzan arrazoiari eskaintzen dion

aukera, eta esperientzia horiek «gehiago edo gutxiago aurreratuko dut naturaren ezagutzan». Horrenbestez, Descartesentzat, esperientziak garrantzi ukaezina dute.

1.3. DESCARTESEN IRITZIZ, JAINKOAREN IDEIA EZ DATOR SENTIMENETATIK, BAINA, HALA ERE, JAINKOAREN EXISTENTZIA FROGATU DAITEKE. EMAN EZAZU DESCARTESEN TESI HORREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT, GUTXIENEZ. GERO, EGIN EZAZU ZURE GOGOETA GAIARI BURUZ (3 PUNTU) (200-300 HITZ GEHIENEZ)

Aurrean esan dugun legez, Descartesek hurrengo ordena proposatuko du errealitatearen existentzia frogatzeko: nahitaezkoa zaio lehenik Jainkoaren existentzia frogatzea. Ikusi dugunez, nahikoa da nabaritasuna ziurtasun absolutua lortzeko; hau da, sumaketa argia eta berezia. Testu batzuetan, ordea, Descartesek dio Jainkoaren existentzia baldintza dela beste gauza batzuei buruz ziur egoteko.

Hiru dira Descartes ustez Jainkoaren existentziari buruzko frogak: a) **Lehen froga: sustantzia infinitua**. Nire ideien artean, Jainkoaren ideia dago. Hala ere ni ez naiz gauza nire kabuz halako ideia izateko; beste era batera esanda, Jainko batek jarri du nire baitan Jainkoaren ideia. b) **Bigarren froga: izaki perfektua**. Froga hau perfektutasuna ideian oinarritzen da. Ez da froga berri bat, aurreko froga aurkezteko beste era bat baizik. c) **Hirugarren froga: Argumentu ontologikoa**. Honela dio argumentuak: izaki oso perfektuaren ideia dut. Haren existentzia haren esentziatik banaezina da, haranaren ideia mendiaren ideiatik bereiz ezin daitekeen modu berean. Arrazoi horregatik, mendia haranik gabe ulertzea kontraesana izango litzatekeen bezala, kontraesana litzateke ere izaki oso perfektua existentziarik gabe ulertzea.

Era laburrean esanda, Descartes arabera, ezin daiteke Jainkoaren existentzia (edo beste antzeko ideiak) ezagutu, sentimenen bidez. Hala ere, Jainkoaren existentzia ezinbestean demostratu egin behar da, baieztatutako gainerako gauzen egiazko existentziak egiaztatzeko. Hau da, gauzen existentziaren demostrazioa Jainkoaren existentziaren demostrazioan oinarritzen da. Hori dela eta, lehen esan dugun moduan, **nori dagokio azken batean ezagutzaren baliozkotasun objektiboa, nabaritasunari ala Jainkoari?** Zerekin balioztatzen du Jainkoari buruzko nire ezagutza? Alfer-gurpil bat sortzen da Jainkoaren ezagutza nabaritasunean oinarritzen duenean, eta horrela izanik era berean Jainkoa nabaritasun berberaren oinarria?

Descartes garaian ere konturatu ziren arazo horretaz. Azken finean nondik abiatu behar da gure hausnarketa, zalantzatik irteteko eta era ziurrean filosofia garatzeko: *cogito* horren horretatik edo Jainkoarengandik. Descartesek ez zigun eman irtenbiderik. Beste pentsalari kristauak egiten duten bezala, Descartesek ere, Jainkoaren existentziaren beharra demostratu gabe eta dagoeneko jarrita dago hasieratik, helburu horretara ailegatzeko bideratzen ditu berak ematen dituen urratsak.

Era finkoan filosofia eta ezagutza ziurra lortzen Descartes saiakera txalogarria da, Erdi Aroko pentsamenduaren aldean, izugarrizko abantaila baitu. Pentsamenduan halako aldaketa egiten saiatzea ez zen izan erraza eta ulergarria da, ildo horretan, Erdi Aroko pentsalariak akats guztien artean baten batean erortzea. Zalantza izpirik gabe, arrazoimenari nola jarri zuen bere begirada interesgarria da beste era batez filosofia eta ezagutza garatzeko. Descartes garaian enpiristek garatu zuten filosofiaren erak izugarrizko laguntza eman zion pentsamenduari aldarrikatutako arrazoimenaren gehiegikeria saihesten saiatzeko eta sentikortasunaren garrantzia berriro ere hegaldarazteko.

Ondorio gisa beldurrik gabe esan dezakegu Descartes proposamen arrazionalista eta bere mesfidantza sentimenaren aurrean behar-beharrezkoa zela Erdi Aroko putzutik filosofia ateratzeko. Berak, beste pentsalari eta zientzialari batzuekin

batera ireki zuen, era batez edo bestez, Modernitatearen atea era askean filosofia garatzeko eta pentsamenduak beste bide batzuk har zitzen.

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. INTUIZIOA ETA DEDUKZIOA. ANALISIA ETA SINTESIA (1,5 PUNTU) (50 HITZ GEHIENEZ)

Descartesek lau arauak osatutako metodoa erabiltzen du, bai gogoeta filosofikoetan bai ikerketa matematikoetan.

a) Lehen araua: nabaritasuna: Metodoaren lehen araua honako hau da: «Ezer ez daiteke egiazat har, nabaritasun osoz horrela dela dakigunean izan ezik». **Nabaritasunak bi ezaugarri ditu: argitasuna eta bereizkortasuna.** Ideia betak, argia izateko, beste ideietatik bananduta eta nahastezina izan behar du, eta berezia izango da haren zatiak elkarren artean bananduta badaude.

b) Bigarren araua: analisis (intuizioa): Hauxe da metodoaren bigarren araua: «Aztertzen dugun zailtasun bakoitza ahalik eta gehien zatitzea, soluzio onenak eska lezakeen moduan». Descartesek ustez, ezagutzak egiazko ziurtasuna eskuratu nahi badu, soiletik hasi behar du. Zatiketak **intuizioz hautematen diren «natura soilak»** lortzea du helburu. Intuizioa, Descartesek arabera, espirituaren hautemate soilak eta berehalakoa da, eta ez du zalantzarako tarterik uzten, hain da bereizkorra eta erraza. Beraz, proposizio korapilatsuen aurrean, alderantzizko bidea egin behar dugu; hots, iluna soil bihurtuz hasi behar dugu: «Proposizio ilunak eta nahasgarriak huts bihurtuz». Natura soilaren ezaugarria bere ezagutza argia eta bereizkorra izatea da, eta horregatik, soilen ez dago huts egiterik.

c) Hirugarren araua: sintesia (dedukzioa): Metodoaren hirugarren araua **dedukzioaren eta sintesiaren araua** da. *Metodoaren diskurtsoak* dioenez: «Nire gogoetak ordena batekin zuzentzea, **objektu soiletatik eta ezagutzeko errazenetatik hasiz, apurka-apurka konplexueneraino iristeko**, eta beraz, horrela jokatzeko aukera ematen ez digutenen artean ere ordena bat proposatzeko». Ziurtasun osoz ezagutzen ditugun gauza batzuen ondorioz beste gauza batzuk ulertzean datza dedukzioa. Dedukzioak ez du oraingo nabaritasunaren beharrik, eta oroimenak prestatzen dio hori. Dedukzioak ez du intuizioak beste ziurtasunik; hala ere, huts egin gabe dezake, printzipio nabarietatik abiatuz, pentsamendua etengabeko mugimenduan badarama. Horrela, badakigu azken kate-mailak begiratu batez ez ikusi –nahiz eta tarteko kate-mailak begiratu batez ez ikusi-, baldin batetik bestera banan-banan bagoaz eta bakoitza bere aurrekoari loturik dagoela gogoratzen badugu. Dedukzioak intuizioen segida suposatzen du, eta, haren bitartez, egia baten ebidentziatik egia berri batera heltzen gara. Dena dela, osotasunari buruzko ziurtasuna izateko, kate-maila bakoitzari edo maila guztiei buruzko ziurtasuna lortu behar dugu; maila baten hutsuneak arriskuan jar dezake kate osoan baliozkotasuna.

d) Laugarren araua: berrikusketa edo zerrendaketa: Hortaz, metodoaren azken arau modura, honako hau azaltzen digu: «Horretan guztian oso zerrendaketa konplexuak eta oso berrikusketa orokorrak egin behar ditugu, **ezer ez dugula ahaztu ziur egin arte**». Arau horren helburua oroimenaren ahultasunetik datozen hutsunez ohartaraztea da. Hutsuneak saihesteko, egia batetik bestera igarotzean, pentsamenduaren mugimendu iraunkorra eta etengabea egin behar dugu. Zerrendaketa osoa ez bada eta hutsuneren bat badago, arriskuan jartzen ditugu arrazoibideen uztardura eta ondorioaren ziurtasuna.

2.2. PASIOAK ETA ASKATASUNA (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketan, 2.2. erantzuna, 59. orrialdean]

2.3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK (2 PUNTU) (250 HITZ GEHIENEZ)

Ilustrazioak erabateko konfiantza du gizakiarengan, Erdi Aroko iluntasunetik eta haren mendekotasunetatik askatu ondoren. Ilustratuak ziur zeuden gizakiak lanean jarri ahal izango zuela, inolako trabarik gabe, izatezkoa, berezkoa duen tresna: **arrazoimena**. Ziur zeuden arrazoimena behar bezala erabiliz gero, naturaren kontrola eta erabilera teknikoa, eta gizakiaren eta gizartearen hobekuntza morala eta politikoa eskuratuko zuela.

1. Arrazoimenaren kontzepzio berria: Lehenik, **arrazoimen enpirikoa:** enpirismoaren kritikaren ondoren eta zientziaren garapenari esker, esperientua eta gertakariak nagusitzen dira, eta esperientziatik abiatzen da ezagutza zientifikoa. Bigarrenik, **arrazoimen kritikoa:** arrazoimenaren kanpoko aginpideen aurka (tradizio, autoritate, aurreiritzi eta superstizioen aurka), eta *arrazoimenaren beraren autokritika* (esperientziak ezarriko ditu arrazoimenaren mugak). Hirugarrenik, **arrazoimen autonomoa:** arrazoimena da gizakiaren gidari bakarra (tradizio eta autoritate ororen gidaritzaz baztertzeko da), ezagutza-arloan ez ezik, baita beste arlo guztietan ere: publikoa nahiz pribatua. Eta amaitzeko, ilustratuen arrazoimena ez zen, arrazionalistena bezala, teorikoa edo espekulatiboa, **arrazoimen praktikoa** baizik. Eginkizun bakarra ez da esplikatzea: gizakiaren bizitza moldatu, natura menderatu, eta arazoak —pertsonalak, politikoak edo gizartearenak— gainditzeko gai ere izan behar du.

2. Aurrerapena edo progresoaren ideia: Aurrerapen zientifiko-teknologikoen munduari buruzko ikuskera baikorra ematen diete ilustratuei. Antzinako ikuskerak alde batera utziz, historia da gizakien etengabeko perfektiorantz —aurrerapenerantz— daraman bidea. Izan ere, arrazoimenaren bidez, natura menderatu eta gizadiaren ongizate materiala eta zoriontasuna lor daitezkeela uste dute.

3. Askatasuna eta Tolerantzia: Pentsamendu askea eta adierazpen-askatasuna ezinbesteko baldintzak dira arrazoimenaren erabilera publikorako. Askatasunaren bidez, gizakiek burujabetasuna lortzen dute, baita adin nagusitasuna ere, eta mesedegarri da hori gizadiaren aurrerapenerako. Kant erlijio-askatasunaz mintzo da, eta erlijio-inposizioa «tutoretzatik kaltegarriena eta duingabeena» da harentzat.

Ilustratuek gizartean erreforma eta tolerantziaren alde jokatzeko dute. Kontratu sozialari buruzko teoriak hedatzen badituzte ere, soilik bakar batzuek aldeztu dituzte ideia demokratikoak eta berdinzaleak (Rousseau).

4. Naturaren kontzepzio berria: Ilustrazio osoak bezala, Kantek naturala bilatzen du bere filosofian, mundu fisikoa eta giza mundua bereizita bada ere, naturala dena ona delako.

Mundu fisikoan, Newtonen eredu onartzen du, eta eredu honen arabera, lege naturalak zuzentzen dituzte fenomeno guztiak, determinismo hertsian.

Aldiz, mundu gizatiarren, ageriko araurik ezean, gizakiek askatasunez jokatzeko da naturala. Dena dela, zein da gizakiaren natura? Kantek beste ilustratu askok bezala erantzuten dio galdera honi: gizartekoitasun tratagaitza. Hau da, gizakiak taldea behar du, eta kidetasuna agertzen du, baina berekoikeria, botere-nahi eta jabetza-grina aseeginaz ere jarduten du.

5. Erlijio arrazoiduna: Ilustratuek erlijioaren interpretazio arrazionala egiten dute: gizakiak ezin du Jainkoa, sortzailea eta ordenatzailea, ezagutu, eta Jainkoa berbera

da erlijio guztietan. Ez dute Errebelazioa onartzen, ezta mirariak ere, antinaturalak eta irrazionalak direlako. Erlijio arrazoidun natural horri *Deismo* deitzen diote.

6. Hezkuntza: Ilustrazioa hezkuntzaren mendea dela ere esan liteke, gai horrek hartu zuen garrantzia kontuan izanik. Herriaren heziketa lortu nahi zuten ilustratuek; ez klase intelektualari itxita, heziketa herritar guzti guztiei iristea baizik. Kulturaren bidez, mentalitate kritikoagoa, arrazionalagoa eta askeagoa zabaldu nahi zuten. Ildo horretan, pauso asko eman ziren; garrantzitsuena, **Entziklopedia**, zalantzarik gabe. Gizadiak historia osoan zehar lortutako ezagutza guztiak obra bakar batean bildu nahi izan zituzten, ikuspegi zabalez eta kritikoz. Era berean, XVIII. mendean, egunkariak eta aldizkariak ugaritzen hasi ziren, eta horiek gertakizunak eta informazioa gero eta jende gehiagorengana iristeko aukera ematen zuten. Inguruan gertatzen ari zenari buruzko interesa areagotu egin zen irakurleen artean.

7. Politika: Ilustrazioko pentsalariak jorratu zuten gai nagusietako bat da agintearen jatorria. Gehienek ustez, gizartea osatzen duten gizabanakoek beren eskubide naturalen (gizaki izateagatik berezko zaizkienak) borondatezko zesioa egin dute agintariarengan, egitura soziala mantentzeko xedez. Ikuspegi hau lehengoaren kontrakoa da erabat: agintaria mandataria bat da; gizarteko kideen zerbitzura dagoen mandataria. Hori azaltzeko Rousseau *kontratu sozialaz* mintzatu zen: une hipotetiko batean, gizabanakoek akordio edo kontratu bat sinatuko zuten, eta beren buruari arauak eta legeak ezarri. Ildo horretan agertzen zaigu Kant bera ere. *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna* artikuluan printzearen eginkizuna hiritarren askatasun naturala errespetatzea eta errespetaraztea dela esaten du; baina, aldi berean, askatasuna erabatekoa ez daitekeela esan dio, legedia betearazi behar dela, gizartearen antolamenduak iraun dezan.

2016KO EKAINAREN AZTERKETA

«Horren ostean, ni zer nintzen aztertu arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako gorputzik eta ez zegoela ni nengoen inolako mundutik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela horregatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez, ni zerbait nintzela, eta, ostera bakarrik, pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik ni banintzela uste izateko».

R. DESCARTES
Metodoari buruzko diskurtsoa
Klasikoak

GALDERAK:

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu testuaren ideiak, ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azaldu azpimarratutako hitzak (1 puntu) (50-75 hitz bakoitzeko)
- 1.3. Descartes pentsamenduan, zalantza metodikoa garatu ondoren, arrazoimenak «nia» ezartzen du, eta hortik hasten da ezagutzaren bidea. Egin idazlan labur bat tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste bat azalduz gutxienez. Ondoren, egin zure tesiari buruzko gogoeta (3 puntu) (200-300 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Intuizioa eta dedukzioa. Analisia eta sintesia (1,5 puntu) (50 hitz gehienez)
- 2.2. Jainkoaren eta munduaren existentzia (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
- 2.3. Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak (2 puntu) (250 hitz gehienez)

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU TESTUAREN IDEIAK, IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)

[Ikus ezazu aurreko azterketan, 1.1. erantzuna, 53. orrialdean]

1.2. AZALDU AZPIMARRATUTAKO HITZAK (1 PUNTU) (50-75 HITZ BAKOITZEKO)

GORPUTZA: Descartesek, lehen bi substantziak aurkitu ondoren, hots, gauza pentsatzailea eta gauza infinitua, gauza gorpuzdunen existentzia frogatu nahi du. Horretarako, bere baitan aurkitzen dituen ideietara jotzen du. Zenbait ideiarenean, gauza sentikorrei buruzko ideiak aurkitzen ditu, eta honetako galdera hauek egiten dizkio bere buruari: zer-nolako kausak sortu ditu ideia horiek? Nondik datoz? Beraz, Descartesentzat, Jainkoak bermatzen du nire ideia eratorriek korrespondentzia bat dutela kanpoko munduarekin (adimenaz kanpoko errealitatearekin). Kanpoko errealitateari buruz argi eta bereizitasunez hautematen duguna geometria espekulatiboaren objektu berbera da; hots, hedadura, mugimendua eta irudia. Hedadura *res extensa*-ren atributu edo ezaugarri propioa da.

Ni: Descartes-en filosofia-sistemaren lehen egia, nia edo gauza pentsatzailea, zalantzarik, *cogitotik*, pentsamendutik sortzen dena: «cogito ergo sum».

Descartesentzat, *res cogitans* edo substantzia pentsatzailea pentsatzean datza, pentsatze-ekintzak egiten, hala nola: zalantza egitea, nahi izatea, baieztatzea, ezeztatzea, iruditzea, sentitzea... Pentsatzeari uzten dionean, existentziari ere uzten dio. Nia, gauza pentsatzailea, arimarekin berdintzen da, eta espiritu bat denez gero, ez du materiarik (gorputzik) behar existitzeko, ezta mundurik ere. Horregatik, guztiz askea da gorputzetik.

1.3. DESCARTES-EN PENSAMENDUAN, ZALANTZA METODIKOA GARATU ONDOREN, ARRAZOIMENAK «NIA» EZARTZEN DU, ETA HORTIK HASTEN DA EZAGUTZAREN BIDEA. EGIN IDAZLAN LABUR BAT TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE BAT AZALDUZ GUTXIENEZ. ONDOREN, EGIN ZURE TESIARI BURUZKO GOGOETA (3 PUNTU) (200-300 HITZ GEHIENEZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketan, 1.3. erantzuna, 53. orrialdean]

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. INTUIZIOA ETA DEDUKZIOA. ANALISIA ETA SINTESIA (1,5 PUNTU) (50 HITZ GEHIENEZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketan, 2.1. erantzuna, 63. orrialdean]

2.2. JAINKOAREN ETA MUNDUAREN EXISTENTZIA (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Descartes-en iritsi aurretik, pentsalariek munduaren existentzia frogatzen zuten lehenik, eta existentzia horretan oinarritzen zituzten ondoren Jainkoaren existentziari buruzko frogak. Touraineko filosofoak alderantzikatu egungo du ordena: Jainkoari buruzko ezagutza-munduaren ezagutzan oinarritu ordez, nahitaezkoa zaio lehenik Jainkoaren existentzia frogatzea.

Ikusi dugunez, nahikoa da nabaritasuna ziurtasun absolutua lortzeko; hau da, sumaketa argia eta berezia. Testu batzuetan, ordea, Descartsek dio Jainkoaren existentzia baldintza dela beste gauza batzuei buruz ziur egoteko. Honela dio filosofoak: «Jainkoa existitzen dela aztertu behar dut, eta, existitzen bada, engainagarria den ikusi, ez baitut ikusten hau ez dakidan artean, beste ezertaz absolutuki ziur egon naitekeenik». Eta III. gogoetan dioenez: «Izaki guztiz mugagabearen eta perfektuaren ideia hau bereziki egia da, zeren, nahiz eta beharbada halako izaki bat existitzen ez dela pentsatzea posible izan, ezin dut bere ideiak zerbait erreal dela adierazten didala itxura egin, lehen aipatu dugun hotzaren ideiarekin kasuan bezala. Argia eta berezia da ere bereizte eta argitasunarekin sumatzen dudana, erreal eta egia delako, eta perfekzioaren bat adierazten duena; hori dena ideia sumatuan dago».

Hortaz, nori dagokio azken batean ezagutzaren baliozkotasun objektiboa, nabaritasunari ala Jainkoari? Testuetan aipatzen den bezala, zerekin balioztatzen du Jainkoari buruzko nire ezagutza? Alfer-gurpil bat sortzen da Jainkoaren ezagutza nabaritasunean oinarritzen duenean, eta horrela izanik era berean Jainkoa nabaritasun berberaren oinarria?

2.3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK (2 PUNTU) (250 HITZ GEHIENEZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketan, 2.3. erantzuna, 63. orrialdean]

I. KANT

2013KO UZTAILAREN AZTERKETA

«*Ilustrazioa da gizakiak berak eragindako heldugabetasunetik irtetea. Heldugabetasuna da beste laguntzarik gabe bakoitza bere ulermena erabiltzeko gai ez izatea. Heldugabetasun hori norberak eragiten du, horren kausa ez denean ulermengabezia, baizik eta beste norbaiten laguntzarik gabe erabiltzeko kemen eta kuraia falta. «*Sapere aude!* Izan ezazu kuraia zure ulermena erabiltzeko», hori da, hortaz, Ilustrazioaren lema.»⁹*

KANT, “*Zer da Ilustrazioa?*” itaunari erantzuna.

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azaldu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzerako)
- 1.3. Kanten iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenak baliatu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Azal ezazu gutxienez Kanten aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Azal ezazu Kanten obran zer diren arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Azal ezazu *Caesar non est supra gramaticos* esaldia Kanten obran (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Arrazionalismoaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

⁹ «*Ilustración significa el abandono por parte del hombre de una minoría de edad cuyo responsable es él mismo. Esta minoría de edad significa la incapacidad para servirse de su entendimiento sin verse guiado por algún otro. Uno mismo es el culpable de dicha minoría de edad cuando su causa no reside en la falta de entendimiento, sino en la falta de resolución y valor para servirse del suyo propio sin la guía del de algún otro. Sapere aude! ¡Ten valor para servirte de tu propio entendimiento! Tal es el lema de la Ilustración.*»

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABURTU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ

Ilustrazioaren definizio berezi bat ematen digu Kantek. Ildo horretatik, Ilustrazioa gizadia erruzko adingabetasunetik irtetea da; tutoretza eta inposizio arrotzetatik askaturiko arrazoimen autonomia erabiltzean datza. Horregatik, «Ausart zaitez zeure kabuz pentsatzera» edo *Sapere aude* da Ilustrazioaren leloa. Azken buruan, Kanten arabera eta beste ilustratu batzuen aburuz, arrazoimena gizakiari dagozkion ahalmenen artean paregabea da, zeren eta gizakia dena arrazoimenaren bidez argitzen baita. Ilustrazioaren garaia argien garaia izan zen, arrazoimena –ilustratuen ustetan-, ideien bitartez, gauza izan zelako gizakia ezjakintasunetik irtenarazteko, gizakiari adin-nagusiraino heltzen laguntzeko eta bere adimena argitzeko.

1.2. AZALDU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK

HELDUGABETASUNA EDO ADINGABETASUNA: Gizadiak Ilustrazioaren aurretik zuen egoera, gidaritzza edo tutoreen mendekoa. Adingabetasunak besteren gidaritzarik gabe nork bere arrazoiak baliatzeko ezintasuna adierazten du. Kanten arabera, gizakia bera da egoera horren errudun, koldarkerian eta alferkerian aritzeagatik. Arrazoiak soilik gida dezake gizakia betetasunera eta nagusitasunera, eta horregatik dirau adingabe gizakiak arrazoiaren erabilera kritikoaren eta autonomoaren bidea hartzen ez duen bitartean.

SAPERE AUDE! EDO PENTSAMENDU ASKEA: Esamolde hau Ingalaterra ilustratuan hasi zen erabiltzen. Pentsalariak beren buruari «pentsalari aske» esaten diote. Kantek haiengandik jaso zuen seguruenik, baina haren filosofian, zehazki, pentsamendu askea Ilustrazioa definitzen duen *Sapere aude* lemaen sinonimotzat har daiteke. Gainera, Kanten arabera, pentsamendu askearen hedapena jarduteko askatasun bihurtzen da gizakientzat. Beraz, pentsamendu askeak, arrazoimenak bezala, zentzu teorikoa eta praktikoa du Kantentzat.

1.3. KANTEN IRITZIZ, GIZAKIAK, BERE KONTZIENTZIA MORALA ERAIKITZEAN, BERE ARRAZOIMENAK BALIATU BEHAR DU. IKASI DITUZUN FILOSOFO GUZTIEK EZ DUTE TESI HORI ONARTZEN. AZAL EZAZU GUTXIENEZ KANTEN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT. ONDOREN, EMAN EZAZU ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA

[*Kanten tesiaren azalpena*] Kanten ustez, subjektuak berak bideratu behar du bere ekintza, arrazoimena kanpoko ezereen mende jarri gabe. Lege morala ezin daiteke gizabanakoaren gaintik dauden elementuetatik eratorri, arrazoimenaren autonomiatik bertatik baizik. Horregatik, ezerk ezin dio –ez autoritateak, ez tradizioek, ez erregeak, ez ogasun-funtzionarioak, ez apaizak, ez sendagileak, ez maisuak, ez armadako ofizialak-gizabanakoari aginpide moralik ezarri, agindu moralak ezartzeko. Hori gertatzen denean, gizakia adingabea izango balitz bezala jokutzen ari da. Beraz, subjektu bakoitza da bere buruari agindu morala ezarri behar diona, ezereen eta inoren inposiziorik gabe. Beraz, Kanten arabera, agindu morala ez da hetenonomia (*heteros* = beste batek, *nomos* = araua, agindua), autonomia baizik.

[*Tesi horren aldeko argudioak*] Kanten aburuz, eta seguruenik honako hau izango da haren tesiaren aldeko argudio aipagarriena, etikaren oinarria nahimenaren (borondatearen) autonomian edo askatasunean dago; hots, arrazoimenak bere buruari

legeak ezartzeko duen gaitasunean. Naturak edo Jainkoak ez digu lege etikorik ezartzen, eta subjektua bera da bere buruari ezartzen diona. Bestetik, ekintzak betebeharraren arabera egin daitezke (legetasuna), edo betebeharragatik (moraltasuna). Hori dela eta, filosofia kantiarrak moraltasuna eta legetasuna bereizten ditu, eta ezin daitezke legalitate juridikoa betetzen duten ekintzak besterik gabe moraltzat hartu. Izan ere, lege juridikoak edo ohiturazkoak (hots, leku jakin batean egoera zehatz batean ezarrita eta gizarte ezagun batean ezarrita daudenak) –zigorkodeak soilik kontuan hartuta- betetzen ditugunean, ez diogu gure nahimenaren (borondatearen) baitatik sortzen den aginduari jarraitzen, kanpotik ezartzen zaigunari baizik. Ildo horretatik, Kanten bereizketa honekin batera gorai patzen dira, lehenengo aldiz historian, gizaki bakoitzari dagozkion pentsatzeko autonomia eta askatasuna.

Kantek berak, askatasunaren eta pentsamenduaren autonomika aldarrikatzeko, honako hau esaten digu: Ilustrazio-garaiko egoera hau –zeina ez baita garai ilustratua-alferkeriagatik eta koldarkeriagatik da. Hots, gizadiaren zati handi bat adingabetzat har daiteke, naturak aspaldi gidaritza arrotzetik askatu bazuen ere, eta arrazoi horiengatik zaie hain erraza beste batzuen haien tutore bilakatzea. Izan ere, horren erraza da adingabe izatea. Neure orde z adimena duen liburua baldin badut, kontzientzia duen arima-zuzendaria badut, neure orde z dieta agintzen didan sendagilea badut... ez dut nik, hortaz, neure buruz jardun beharrik. Ordaindu ahal dudanez gero, ez dut pentsatu beharrik. Ardura gogaikarri hori beste batek bereganatuko du. Gizadiaren zati handienak adin-nagusitasunerako urratsari, neketsu ez ezik, oso arriskutsu ere iritz diezaion dihardute, bestetik, haiekiko gainbegiraketa nagusiaz jabetu diren hain tutore onguratsuek.

Beraz, Kantek dei egiten dio gizaki bakoitzari bere kabuz, bere arrazoimena erabiliz, erabakiak hartu eta bizitza bideratzea, eta ondo iruditzen zait hori. Kanten garaia Despotismo Ilustratuaren garaia da, eta atzean gelditu da neurri batean absolutismoa, burgesiaren presioari esker. Horregatik dio Kantek: *Sapere aude!* Ausart zaitez zeure adimena baliatzera!

Antzina bestelakoak ziren gauzak. Adibidez, Erdi Aroan, moralaren esparruan, Jainkoaren aginduak bete behar ziren zuzen jokatzeko; aginduak heteronomoak ziren, kanpotik ezarritakoak. Gaur egun sinestean askok ere antzera jokatzen dute. Alde horretatik, askatasunaren kontuan, Kantek ipini zituen gauzak bakoitzari dagokion lekuan, eta kolokan jarri zuen sinesmenaren (hots, pentsatzeko askatasunari uko egiten dion prozeduraren) lehentasuna eta garrantzia.

[*Tesi horren kontrako argudioa*] Hala ere, ezin dugu ahaztu Kantek aldarrikatutako askatasuna askatasun indibiduala besterik ez dela. Izan ere, Kanten filosofia Ilustrazioaren pentsamenduaren ereduarekiko erlazioa hain da estua, ezen ez baitu hautematen zeintzuk diren gizabanakoengan gertaera historiko eta sozialen eraginak. Hau da, Kantek, askatasun indibiduala arakatzerakoan, ez zuen kontuan hartu historiaren garrantzia. Pentsalari ilustratuaren jarraitzaileek eta ondorengo garaiko filosofoek jakinarazi ziguten zein den historiaren eta gizartearen bilakaeraren eragina gizabanakoari dagokion askatasunean. Hegelek, idealista alemaniarrek, hain zuzen ere, moraltasunari dagokion filosofia aztertzerakoan, aintzat hartu zituen aurreko filosofoek erakutsi zituzten filosofia moralak eta ohituraren bidez historian zehar garatu ziren pentsamoldeak. K. Marxen ikerketan argi eta garbi geratzen da historiaren garrantzia ezagutzea, ea nolakoa den gizakia eta gizarte jakin baten barnean nolakoa izan behar den jakiteko, eta, batez ere, gizabanakoaren askatasuna propioa sustatzeko. Hau da, gizarte alienatuta batean bizitzeak ahalbidetzen du gizaki askea? Marxen erantzuna ezetz izango da. Gizartean zabaldua dauden baldintzek zehazten dute gizadiari dagokion berezko askatasuna. Kanten filosofia moralean askatasun indibidual hori

aldarrikatzen da, gizartearen baldintzak arakatu gabe. Ildo horretatik, haren proposamena ideala den heinean, errealitatekanpo kokatuta dago. Esan liteke, huts egiteko beldurrik gabe, Kanten proposamen etikoak izpiritu burges bati dagokiola, non premia materialak bete ditzaketenak soil-soilik gauza baitira askatasuna izateko eta gozatzeko.

[*Hausnarketa pertsonala*] Tesi horren aldeko eta kontrako argudioak esanda ondoren, nire ustez, gizaki bakoitzak bere buruari esan behar dio zer komeni zaion bere existentzia garatzeko eta bizitzeko. Arestian esan dudan legez, egia da tradizioa, autoritatea, gizartean jazotzen dena... kontuan hartzekoak direla, eta sarri balio horietan gizakiak historian zehar metatutako esperientzia aurki daitekeela. Nolanahi ere, pertsona bakoitzak gogoeta egin behar du, elementu horiek guztiak aintzat hartuta, zer komeni zaion ikusteko eta jakiteko. Askotan, tradizioak, ohiturak... onak izan daitezke, baina indargabetu ere egin daitezke testuinguru historiko jakin batean, gizartearen zati esanguratsu bati hala iruditzen bazaio. Beraz, eta Kanten esandakoaren alde, askatasuna da, arrazoimenarekin batera, gizakia definitzen duten beste ezaugarri batzuen artean esanguratsuenetako bat. Kanten esandakoaren kontra, Hegel filosofiari eta, batez ere, Marxek erakutsi digun planteamendu filosofikotik abiatuta, esan liteke gizakia ez dela soil-soilik arrazionala eta askea, baizik eta izaki historikoa, zeina historian zehar garatzen baita eta historia bera moldatzen baitu. Amaitzeko, komenigarria da gogoratzea zer-nolakoa den gizakia Mendebaldean existenzialismoa garatu zenez geroztik. Ildo horretatik, gizakia izaki soziala, askea, historikoa, egilea, etorkizunerako proiektatzen duen zerbait (hots, proiektu bat duen izakia), eta abar. Ondorio gisa, Kanten erakutsi digun subjektu transzendentala, zeinak ezagutzen dezakeena, egin beharrekoa egiten duena eta zer-nahi itxoin dezakeena, ez da errealitatean guk ezagutzen dugun subjektua.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. AZAL EZAZU KANTEN OBRAN ZER DIREN ARRAZOIMENAREN ERABILERA PUBLIKOA ETA ERABILERA PRIBATUA

Kant arrazoimenaren erabilera publikoaz eta pribatuaz mintzo da bere idazlan batzuetan, eta «*Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna*» eta *Filosofiaren Historia* dira horren adibideak. Filosofia kantiarraren arabera, arrazoimenaren erabilera publikoak askea izan behar du beti; erabilera pribatua, aldiz, mugatu egin behar da sarritan.

Arrazoimenaren erabilera publikoa, Kanten iritzian, aditu den norbaitek irakurleriaren aurrean egiten duena da; erabilera pribatua, aldiz, hari dagokion funtzionario postu edo kargu jakin batean zilegi zaiona.

Hau guztia argitzeko, hiru adibide aipatzen ditu: armadako ofiziala, herrikidea eta apaiza. Labur azalduko ditugu.

Armadako ofizialak bete egin behar du beti gaineratik datorkion agindua (erabilera pribatua). Hala ere, aditu den aldetik, ozen argudia dezake agindu horren helburu edo onuraz, iruzkinak egin ditzake soldaduskaren akatsei buruz, bere publikoaren aurrean, azken horrek epai dezan (arrazoimenaren erabilera publikoa).

Herrikideak ezin diezaioke uko egin zergak ordaintzeari (erabilera pribatua). Nolanahi ere, herrikide horrek berak ez dio bere betebeharrari huts egingo, aditu bezala, zerga horien bidegabekeria edo desagokitasunari buruzko bere gogoetak argitaratzen baditu (arrazoimenaren erabilera publikoa)

Apaizak bete egin behar du zerbitzatzen duen elizak agindutakoa, eta irakasteari ekin behar dio sinesbidearen arabera, ikasle nahiz elizkideen artean, baldintza horren pean onartu dutelako (erabilera pribatua). Dena dela, aditu bezala, askatasun osoa du,

baita eginkizuna ere, arduraz ikertutako eta asmo oneko bere ideiak sinesbide haren akatsez publikoari ezagutarazteko, edo erlijio eta eliza hobetzeko bere proposamenak aurkezteko (erabilera publikoa).

Arauk edo legeak bete ezean, armada, gizartea edo apaizgoa uztea da duten aukera bakarra. Arrazoimenaren erabilera pribatuan ez dago askatasunik, Kanten ustez.

Hala eta guztiz ere, Kanten iritzian, arrazoiaren erabilera pribatuaren askatasunik ezak ez du Ilustrazioa galarazten, informazioa emateko, pentsatzeko eta publikoaren aurrean ideiak adierazteko askatasuna baldin badago betiere.

Arrazoimenaren erabilera publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa kantiarrak kritika asko izan ditu. Egia da auzi korapilatsua dela, eta beharrezkoa litzatekeela beharbada arrazoimenaren erabilera pribatua murriztea erakundeak babesteko.

2.2. AZAL EZAZU CAESAR NON EST SUPRA GRAMATICOS ESALDIA KANTEN OBRAN

Subjektuak berak bideratu behar du bere ekintza. Arrazoimena kanpoko ezere mendeko jarri gabe. Lege moralak ezin daiteke gizabanakoaren gainetik dauden elementuetatik eratorri, arrazoimenaren autonomiatik bertatik baizik. Horregatik, ezerk ezin dio gizabanakoari aginpide moralik inposatu, agindu moralak ezartzeko. Hori gertatzen bada, ez da benetako agindu moralak, Kanten ustez. Beraz, erregeak ere ez du eskubiderik moralari edo erlijioari lotutako kontuetan bere mendekoei ezer agintzeko. Horrela, «irain egingo lioke bere maiestateari, dela bere iritzia larresteagatik –eta orduan: *Caesar non est supra grammaticos* aurpegiatuko litzaioke arrazoiez- dela bere aginte gorena laidoturik, tirano batzuen beste mendeko guztien aurkako despotismo espiritualari lagundu nahi izateagatik. *Caesar non est supra grammaticos*», hau da, Erromako enperadoreak erabaki politikoak edo ekonomikoak inposa ditzake, bere eginkizuna delako; aldiz, Zesarrek ez du inolako ezagutza eta aginpiderik mendekoei latindar hizkuntza era batean edo bestean erabili behar dela esateko. Zeregin hau ez dagokio enperadoreari, gramatikariari baizik, eta haiek dira latinaren erabilera zuzena zein den erabaki behar duenak. Moralarekin antzeko zerbait gertatzen da. Subjektu bakoitza da bere buruari **agindu moralak** ezarri behar diona, ezere eta inoren **inposiziorik gabe**. Beraz, agindu moralak ez da heteronomoa (*heteros* = beste batek, *nomos* = araua, agindua), autonomoa baizik.

Kanten arabera, etikaren oinarria nahimenaren edo borondatearen autonomian edo askatasunean dago; hots, arrazoimenak bere buruari legeak ezartzeko duen gaitasunean. Naturak edo Jainkoak ez digu lege etikorik ezartzen, eta subjektua bera da bere buruari ezartzen diona. Ekintzak betebeharraren arabera egin daitezke (legetasuna), edo betebeharragatik (moralitasuna). Hori dela eta, filosofia kantiarrak **moralitasuna** eta **legetasuna** bereizten ditu, eta ezin daitezke legalitate juridikoa betetzen duten ekintzak moralizat besterik gabe hartu. Izan ere, lege juridikoak edo ohiturazkoak –zigor-kodea soilik kontuan hartuta- betetzen ditugunean, ez diogu gure nahimenaren (borondatearen) baitatik sortzen den aginduari jarraitzen, kanpotik ezartzen zaigunari baizik.

2.3. ARRAZIONALISMOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Arrazionalismo modernoa XVII. mendearen lehen erdian sortutako korrante filosofikoa da, Descartes (1596-1650) eskutik. Descartesek iritzi-aniztasun handiegia eta zehaztasun falta sumatu zituen bere hezkuntzan, eta egoera horri amaiera emateko erabakia hartu zuen. Horrela, inola ere zalantzan jar ez zitekeen zerbait ba ote zen galdetu zion bere buruari. Horrelakorik aurkituz gero, horixe litzateke jakinduria

osoaren abiapuntu ziurra. Lan horri ekinda, substantzia pentsatzailean (*res cogitans*) aurkitu zuen egia ebidentea: «pentsatzen dut; beraz, banaiz» («cogito ergo sum») bere esaldi ospetsuak hori esan nahi du: *pentsatzen ari naizenez, derrigorrean izan behar dut zerbait*. Eta horrek ematen dit ni zer naizen ezagutzeko abiapuntua: *pentsatzean datzan zerbait naiz (res cogitans)*. Abiapuntu hori ziurtasun osoz finkatu ondoren, Descartesek Jainkoaren (*res infinita*) eta mundu fisikoaren (*res extensa*) existentziak deduzitu zituen. Substantzia horiek erabat autonomoak direla zioen; hau da, lege desberdinek zuzentzen dituztela bata, bestea eta bestea. Horrek esan nahi du errealitate fisikoan ez dagoela beste substantzien interbentziorik; beraz, modu mekanikoan funtzionatzen duela (mekanizismoa).

Hurrengo pausoa hiru substantzia mota horiek ezagutzeko metodo egokia aurkitzea zen: abiapuntu ziurretatik abiatuta ezagutza berriak erabateko ziurtasunez lortzeko balioko zuen metodoa. Baldintza horiek betetzen zituen eredu matematikaren metodo deduktiboan aurkitu zuen. Matematika axioma ziur eta ebidentetatik abiatzen da, eta arazoak elementu sinpleenetan banatuz analizatzen ditu; eman behar den pauso bakoitza ebidentea da, ezer faltsurik ez izateko.

Descartes en hausnarketa horietan arrazionalismoaren funtsa dago. Hona ezaugarri nagusiak:

1. **Giza arrazoimenean erabateko konfiantza.** Arrazoimena gizakiak egia aurkitzeko duen fakultate bakarra da. Hori da ezagutza berri fidagarriak lortzeko eta lortutakoa baieztatzeko erabili behar den bidea. Erdi Aroan hainbesteko garrantzia izan zuen fedearen eta arrazoimenearen arteko oposizioari arrazoimenearen balioa nagusitu zitzaion, eta sentipenek sortzen dituzten ilusioei eta iruzurrei kontrajarri zitzaion.
2. **Jatorrizko ideien existentzia.** Platonek irekitako tradizioari jarraituz¹⁰, arrazionalistek zioten egiaren oinarri diren edukiak edo ideiak dituela giza adimenak. Ezagutza, beraz, *a prioriz*koa da: adimenean jatorrizko izaera duten ideia horietatik abiatuta, eta metodo deduktiboa erabiliz, zalantzarik gabeko egietara iritsiko da arrazoimena. Ezagutza horiek guztiak biltzean garatuko da jakinduriaren eraikuntza osoa. Beraz, adimena ez da biltegi hutsa edo *tabula rasa*, enpiristek esaten zuten bezala. Jatorrizko ideien ezaugarri nagusia sinpletasuna da; argiak eta bereziak dira: ebidenteak.
3. **Izaera matematikoa duen metodoa.** Matematikak erabiltzen duen metodo axiomatiko-deduktiboa bereganatzeak bi helburu ditu arrazionalistentzat: batetik, akatsak saihestea; bestetik, zientzia guztiak eredu eta hizkuntza sinboliko bakarrera eramatea (*Mathesis Universalis*).
4. **Gizakiaren ikuspegi dualista.** Descartesek bereizitako hiru substantzien izaera guztiz desberdina izanik, gizakia bi alderdi autonomoz osatuta dago: gorputza (*res extensa*) eta arima (*res cogitans*). Arima nigandik bereizezina da guztiz. Bera da **nire** pentsatze kontzientea; gizakiaren benetako **nia**. Gorputza, aldiz, gizakiaren parte da bizirik dirauen bitartean; alabaina, gorputzaren papera bigarren mailakoa da, bere kasa funtzionatzen du, automata gisa, mundu fisikoaren legeek zuzenduta. Bi substantzia horien artean dagoen harremana oso txikia da (Descartesek zioen epifisiaren bidez gauzatzen dela, baina erlazio hori ontzi baten eta pilotuaren artean dagoena baino askoz handiagoa ez dela).

¹⁰ Platonen ustez, ariman bada nolabait ideien alde zuretik presentzia; ideia horiek oroitzean lortuko litzateke ezagutza.

5. **Mekanizismoa.** Arrazionalista gehienek paradigma zientifikoa izan zen, guztiak ontzat eman ez bazuten ere. Descartesen arabera, errealitate fisiko guztia inolako helbururik ez duen tresna mekaniko baten moduan ulertzen da. Fenomenoak espazioko objektu materialen arteko talkez gertatzen dira, eta ez dago ez indar ezkuturik ezta distantziara eragiten duenik ere. Unibertsoa, beraz, kuantitatiboki azter eta deskriba daitekeen mekanismo erraldoi baten antzekoa da.

2012KO EKAINAREN AZTERKETA¹¹

«*Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna. Norberaren erruzkoa, adingabetasunaren zergatia ez datzanean adimenak ezean, nor bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitze gaitasun eta kuriarik ezean baizik. Sapere aude! Ausart zaitez zure adimenaz baliatzen! Hona hemen Ilustrazioaren esana.»*

KANT, “*Zer da Ilustrazioa?*” galderari erantzuna

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu termino azpimarratuak (1 puntu) (Gehienez, 50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. Kanten iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz balio behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Kanten tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, egin ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Azal ezazu zer diren, Kanten obran, arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Azal ezazu *Caesar non est supra gramaticos* esaldiaren esanahia Kanten obran (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Arrazionalismoaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

¹¹ Azterketa hau 2013ko uztailaren azterketa da eta, beraz, dagoeneko eginda dago.

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 1.1. erantzuna, 73. orrialdean]

1.2. AZAL ITZAZU TERMINO AZPIMARRATUAK (1 PUNTU) (GEHIENEZ, 50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 1.2. erantzuna, 73. orrialdean]

1.3. KANTEN IRITZIZ, GIZAKIAK, BERE KONTZIENTZIA MORALA ERAIKITZEAN, BERE ARRAZOIMENAZ BALIOTU BEHAR DU. IKASI DITUZUN FILOSOFO GUZTIEK EZ DUTE TESI HORI ONARTZEN. GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ KANTEN TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EGIN EZAZU ZURE HAUSNARKETA TESI HORRI BURUZ (3 PUNTU) (200-300 HITZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 1.3. erantzuna, 73. orrialdean]

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. AZAL EZAZU ZER DIREN, KANTEN OBRAN, ARRAZOIMENAREN ERABILERA PUBLIKOA ETA ERABILERA PRIBATUA (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 2.1. erantzuna, 75. orrialdean]

2.2. AZAL EZAZU *CAESAR NON EST SUPRA GRAMATICOS* ESALDIAREN ESANAHIA KANTEN OBRAN (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 2.2. erantzuna, 76. orrialdean]

2.3. ARRAZIONALISMOAREN EZAUGARRI OROKORRAK (2 PUNTU) (GEHIENEZ, 250 HITZ)

[Ikus ezazu, aurreko azterketa, 2.3. erantzuna, 76. orrialdean]

2010KO EKAINAREN AZTERKETA¹²

«*Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna. Norberaren erruzkoa, adingabetasunaren zergatia ez datzanean adimenak ezean, nor bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitzeke gaitasun eta kuriarik ezean baizik. Sapere aude!* Ausart zaitez zure adimenaz baliatzen! Hona hemen Ilustrazioaren esana.»

KANT, “*Zer da Ilustrazioa?*” galderari erantzuna

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu termino azpimarratuak (1 puntu) (Gehienez, 50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. Kanten iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz baliotu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Kanten tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, egin ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Azal ezazu Kanten testuan zer diren arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Deskriba ezazu laburki arrazionalismoaren eta enpirismoaren eragina Kanten filosofia kritikoan (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

¹² Azterketa hau aurreko bi azterketen bezalakoa denez, bakar-bakarrik 1.2. eta 2.2. galderak garatuko dira, galdera horietan aldaketa txiki batzuk baitaude.

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)
- 1.2. AZAL ITZAZU TERMINO AZPIMARRATUAK (1 PUNTU) (GEHIENEZ, 50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO)

HELDUGABETASUNA EDO ADINGABETASUNA: Gizadiak Ilustrazioaren aurretik zuen egoera, gidaritza edo tutoreen mendekoa. Adingabetasunak besteren gidaritzarik gabe nork bere arrazoiak baliatzeko ezintasuna adierazten du. Kanten arabera, gizakia bera da egoera horren errudun, koldarkerian eta alferkerian aritzeagatik. Arrazoiak soilik gida dezake gizakia betetasunera eta nagusitasunera, eta horregatik dirau adingabe gizakiak arrazoiaren erabilera kritikoaren eta autonomoaren bidea hartzen ez duen bitartean.

GIDARITZA: Arrazoiaren garapen autonomoa eragozten duena; tutoretza ere esaten dio Kantek. Tutoreak hainbat arlotan aritu dira –erlijiosoan, teorikoan, praktikoan- gizakiak abere otzan eta pasiboak bihurtzen, eta arrazoimenaren erabilera askea galarazten. Hori dela eta, Ilustrazioaren zeregina gizakia gidaritza arrotz horietatik askatzea da, nor bere kabuz pentsatzen hasteko.

- 1.3. KANTEN IRITZIZ, GIZAKIAK, BERE KONTZIENTZIA MORALA ERAIKITZEAN, BERE ARRAZOIMENAZ BALIOTU BEHAR DU. IKASI DITUZUN FILOSOFO GUZTIEK EZ DUTE TESI HORI ONARTZEN. GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ KANTEN TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EGIN EZAZU ZURE HAUSNARKETA TESI HORRI BURUZ (3 PUNTU) (200-300 HITZ)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. AZAL EZAZU KANTEN TESTUAN ZER DIREN ARRAZOIMENAREN ERABILERA PUBLIKOA ETA ERABILERA PRIBATUA (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)
- 2.2. DESKRIBA EZAZU LABURKI ARRAZIONALISMOAREN ETA ENPIRISMOAREN ERAGINA KANTEN FILOSOFIA KRITIKOAN (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

Arrazionalismoaren ustez, ezagutza guztiak adimenetik eratortzen dira. Hau da, jatorrizkoak dira eta ez dira esperientziatik sortzen.

Enpirismoaren ustez, ordea, ezagutza oro esperientziatik eratortzen da, datu sentigarria eskuratzen da, eta adimena, datu sentigarriak eskuratu aurretik, *tabula rasa*, edo hutsik dagoen arbel baten modukoa da. Ezagutza guztiak *a posteriori* lortzen dira, hortaz.

Pentsamolde kantiarrak arrazionalismoa eta enpirismoa gainditzen du. Gure ezagutza guztiak esperientzian dute abiapuntua. Denboran, beraz, gure ezagutzak ez dira esperientziaren aurrekoak, eta esperientziarekin hasten dira. Nolanahi ere enpiristen jarrera kritikatu, honako hauxe dio Kantek: egia bada ere gure ezagutza guztiak esperientzian dutela hasiera, denak ez dira esperientziatik eratortzen. Hau da, «Gure ezagutza hasten da esperientziarekin, baina bera ez da soil-soilik esperientzia.»

Horrela, filosofia kantiarrak, kritizismoaren bidez, jarrera arrazionalistaren eta enpiristaren arteko antagonismoa gainditzen du, jarrera bakoitzetik alde positiboa hartuz.

Pentsalari alemaniarraren garaian, Metafisika (arrazionalismoaren garaitik Jainkoaren, arimaren eta izatearen ideiak eratu dituen zientzia) gainbeheran dago, matematikaren, fisikaren eta beste zientzien garapenagatik.

Kant zientzia horiek nola garatu diren aztertzen ahalegintzen da, zientzia horien eginikoa metafisikan aplikatu daitekeen ikusteko.

Hori dela eta, filosofia kantiarrak Aristotelesen tradizioari jarraitzen dio, zientziak ezagutza unibertsal eta beharrezkoa izan behar duela dioenean, eta ondorio honetara iristen da: tradizio arrazionalistak eta enpiristak ez dute metafisika zientziatzat hartzea ahalbidetzen.

Horiek horrela, arrazionalismoari arrazoizko emanez, adimenean izaera unibertsala duten zenbait eduki daudela dio Kantek (sentsibilitatean, hots, sentimenean *a priorizkoak* diren intuizio hutsak; adimenean, hots, ulermenean hamabi kontzeptu huts edo kategoria; arrazoimenean hiru ideia erregutzailak), eta eduki horiek esperientziaren aurrekoak direla. Aldiz, enpirismoaren alde, *a priorizko* eduki horiek esperientzian aplikatu behar direla baieztatzen du pentsalari alemaniarrek.

Bi aro bereiz daitezke Kanten pentsamenduan:

- **Aro prekritikoa.** Irakasle-garaitik (1746) *Dissertatio*a aldeztu duen unera arte luzatzen den garaia. Newtonen Fisikaren eraginpean dago, zalantzan arrazionalismoaren eta enpirismoaren artean.
- **Aro kritikoa.** 1770etik heriotzara arte luzatzen den aroa. Hume irakurtzeak arrazionalismo dogmatikotik iratzartzen du, eta kritizismoari edo idealismo transzendentalari buruzko bere teoria eratzean ekiten dio; hots, arrazionalismoaren eta enpirismoaren arteko sintesia. 1781. Urtean, Kantek *Arrazoimen hutsaren kritika (Kritik der reinen Vernunft (KrV))* argitaratzen du, ezagutzaren mugak aztertzeaz gainera, Metafisika ezin dela zientzia izan aldarrikatzen duen lana.

2.3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK (2 PUNTU) (GEHIENEZ, 250 HITZ)

1. Arrazoimenaren kontzeptio berria: Lehenik, **arrazoimen enpirikoa:** enpirismoaren kritikaren ondoren eta zientziaren garapenari esker, esperientzia eta gertakariak nagusitzen dira, eta esperientziatik abiatzen da ezagutza zientifikoa. Bigarrenik, **arrazoimen kritikoa:** arrazoimenaren kanpoko aginpideen aurka (tradizio, autoritate, aurreiritzi eta superstizioen aurka), eta *arrazoimenaren beraren autokritika* (esperientziak ezarriko ditu arrazoimenaren mugak). Hirugarrenik, **arrazoimen autonomoa:** arrazoimena da gizakiaren gidari bakarra (tradizio eta autoritate ororen gidaritzat baztertzen da), ezagutza-arloan ez ezik, baita beste arlo guztietan ere: publikoa nahiz pribatua. Eta amaitzeko, ilustratuen arrazoimena ez zen, arrazionalistena bezala, teorikoa edo espekulatiboa, **arrazoimen praktikoa** baizik. Eginkizun bakarra ez da esplikatzea: gizakiaren bizitza moldatu, natura menderatu, eta arazoak —pertsonalak, politikoak edo gizartearenak— gainditzeko gai ere izan behar du.

2. Aurrerapena edo progresoen ideia: Aurrerapen zientifiko-teknologikoek munduari buruzko ikuskera baikorra ematen diete ilustratuei. Antzinako ikuskerak alde batera utziz, historia da gizakien etengabeko perfektiorantz —aurrerapenerantz— daraman bidea. Izan ere, arrazoimenaren bidez, natura menderatu eta gizadiaren ongizate materiala eta zorientasuna lor daitezkeela uste dute.

3. Askatasuna eta Tolerantzia: Pentsamendu askea eta adierazpen-askatasuna ezinbesteko baldintzak dira arrazoimenaren erabilera publikorako. Askatasunaren bidez, gizakiek burujabetasuna lortzen dute, baita adin nagusitasuna ere, eta mesedegarri da hori gizadiaren aurrerapenerako. Kant erlijio-askatasunaz mintzo da, eta erlijio-inposizioa «tutoretzatik kaltegarriena eta duingabeena» da harentzat.

Ilustratuek gizartean erreforma eta tolerantziaren alde jokatzen dute. Kontratu sozialari buruzko teoriak hedatzen badituzte ere, soilik bakar batzuek aldeztzen dituzte ideia demokratikoak eta berdinzaleak (Rousseau).

4. Naturaren kontzeptio berria: Ilustrazio osoak bezala, Kantek naturala bilatzen du bere filosofian, mundu fisikoa eta giza mundua bereizita bada ere, naturala dena ona delako.

Mundu fisikoan, Newtonen eredu onartzen du, eta eredu honen arabera, lege naturalak zuzentzen dituzte fenomeno guztiak, determinismo hertsian.

Aldiz, mundu gizatiarren, ageriko araurik ezean, gizakiek askatasunez jokatzea da naturala. Dena dela, zein da gizakiaren natura? Kantek beste ilustratu askok bezala erantzuten dio galdera honi: gizartekoitasun tratagaitza. Hau da, gizakiak taldea behar du, eta kidetasuna agertzen du, baina berekoikeria, botere-nahi eta jabetza-grina aseeginaz ere jarduten du.

5. Erljio arrazoiduna: Ilustratuek erlijioaren interpretazio arrazionala egiten dute: gizakiak ezin du Jainkoa, sortzailea eta ordenatzailea, ezagutu, eta Jainkoa berbera da erlijio guztietan. Ez dute Errebelazioa onartzen, ezta mirariak ere, antinaturalak eta irrazionalak direlako. Erljio arrazoidun natural horri *Deismo* deitzen diote.

6. Hezkuntza: Ilustrazioa hezkuntzaren mendea dela ere esan liteke, gai horrek hartu zuen garrantzia kontuan izanik. Herriaren heziketa lortu nahi zuten ilustratuek; ez klase intelektualari itxita, heziketa herritar guzti guztiei iristea baizik. Kulturaren bidez, mentalitate kritikoagoa, arrazionalagoa eta askeagoa zabaldu nahi zuten. Ildo horretan, pauso asko eman ziren; garrantzitsuena, **Entziklopedia**, zalantzarik gabe. Gizadiak historia osoan zehar lortutako ezagutza guztiak obra bakar batean bildu nahi izan zituzten, ikuspegi zabalez eta kritikoz. Era berean, XVIII. mendean, egunkariak eta aldizkariak ugaritzen hasi ziren, eta horiek gertakizunak eta informazioa gero eta jende gehiagorengana iristeko aukera ematen zuten. Inguruan gertatzen ari zenari buruzko interesa areagotu egin zen irakurleen artean.

7. Politika: Ilustrazioko pentsalariak jorratu zuten gai nagusietako bat da agintearen jatorria. Gehienek ustez, gizartea osatzen duten gizabanakoek beren eskubide naturalen (gizaki izateagatik berezko zaizkienak) borondatezko zesioa egin dute agintariarengan, egitura soziala mantentzeko xedez. Ikuspegi hau lehengoaren kontrakoa da erabat: agintaria mandatari bat da; gizarteko kideen zerbitzura dagoen mandataria. Hori azaltzeko Rousseau *kontratu sozialaz* mintzatu zen: une hipotetiko batean, gizabanakoek akordio edo kontratu bat sinatuko zuten, eta beren buruari arauak eta legeak ezarri. Ildo horretan agertzen zaigu Kant bera ere. *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna* artikuluan printzearen eginkizuna hiritarren askatasun naturala errespetatzea eta errespetaraztea dela esaten du; baina, aldi berean, askatasuna erabatekoa ez daitekeela esan dio, legedia betearazi behar dela, gizartearen antolamenduak iraun dezan.

2015EKO UZTAILAREN AZTERKETA

«Ilustrazioaren —hau da, gizakien irteera bere erruzko adingabetasunetik— ardatz nagusia *erlijio-arazoetan* kokatu dut gehienbat: gure gobernariak ez dutelako, arte eta zientziez bezainbatean, menpekoen gaineko tutoregoa inposatzeko interesik; honetaz gainera, hura delako tutoregorik kaltegarriena, guztien artean duingabeena. Baina ilustrazioaren alde dagoen estatu-buruaren pentsaketa harantzago doa oraindik eta zera aitortzen du: *legegintzari* dagokionez ere arriskurik ez dagoela, menpekoei *arrazoiaz publikoki baliatzeko aukera* ematen bazaie, haren hobekuntzari buruzko bere ideiak, bai eta dagoenaren kritika egia, munduari publikoki aurkeztuz»¹³.

Kant, I. “*Zer da Ilustrazioa?*” galderari erantzuna, § 9

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarte, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu termino azpimarratuak (1 puntu) (Gehienez, 50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. Kanten iritzi, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz baliatu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Kanten tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, egin ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Kant eta Ilustrazioa: autonomia morala. *Caesar non est supra grammaticos* (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Arrazionalismo eta enpirismoa Kant-engan (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Arrazionalismoaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

¹³ He tratado el asunto principal de la ilustración, el de la salida del hombre de su minoría de edad causada por él mismo, primordialmente en asuntos de la religión, por cuanto con respecto a las artes y las ciencias, nuestros gobernantes no tienen ningún interés en jugar a tutores sobre sus súbditos; ante todo también tal minoría de edad, que es quizá la más perniciosa y también la más humillante de todas. Pero la manera de pensar de un jefe de Estado, que protege la primera, avanza un poco más e intuye que incluso en consideración a su constitución resulta inocuo permitir a sus súbditos, hacer un uso público de su razón y presentar en público al mundo sus pensamientos sobre una mejor concepción de la constitución misma, incluso con una crítica sincera de la ya existente.

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1 PUNTU)

Dagoeneko bagenekien adingabetasunetik irtetea, geure kabuz pentsatzera ausartzean datza. Ildo horretatik, Ilustrazioaren garaian ez gara soilik bizi, garai ilustratu batean egongo gara baizik. Adingabetasunetik irteten dena tutorearengandiko askatasuna izango du, berak pentsatzen duena publikoki jakinarazteko gaitasuna izango du, bai erlijioaren auzietan, bai arteko eta politikako kontuetan. Hala ere, agintariek uste dute nahiko arriskutsua dela kontrolik gabeko arrazoimen erabilera publikoa, batez ere, lehenengo galderetan, eta ez hainbeste politika eta artearen asuntuetan.

1.2. AZAL ITZAZU TERMINO AZPIMARRATUAK (1 PUNTU) (GEHIENEZ, 50-75 HITZ TERMINO BAKOITZEKO)

ERLIJIOA: *Zer espero dezaket?* galdera **erlijioarekin** lotu daitekeen galdera da. Kanten iritziz, gizakien hobekuntza morala da erlijioaren helburua. Baina gizakiak ez du zorientasunaren zain bizi behar, horrek ez du bere jokabide moralaren helburu izan behar, zorientasunak ez du baldintzatu behar. Dena den, zuzen jokatzuz gero, zorientasuna lortuko da. Izan ere, bertutetsuak zorientasuna merezi du. Bertutea eta zorientasuna *ongiaren* ideiarekin lotzen dira. Beraz, etikarekin bat datorren erlijioa da. Erlijio ilustratua da, giza arrazoimenean oinarritzen baita. *Erljioa arrazoimen soilaren mugen baitan* (1793) liburuan, kristautasunaren interpretazio arrazionala egin zuen, eta Jesu Kristo gizaki moralaren eredu litzateke.

ARRAZOIMENAREN ERABILERA PUBLIKOA: (Ez nahasi erabilera teorikoarekin eta praktikoarekin). Arrazoimenaren erabilera libre esan nahi du, adingabetasunaren uztartirik aske. Beste hitz batzuekin esateko: nor bere kabuz pentsatzea, tutore edo gidaritzaren arrotzetik libre. Zentzu hertsian, arrazoimenaren erabilera publikoa iritzi- edo adierazpen-askatasunena gauzatzen da. Eskubide eta erantzukizun hori ilustrazioaren baldintza da, eta horren bidez, kritika, argudio eta proposamen publikoen bidez, aldatu eta hobetu ahal izango dira edozein arlotako sineskerak eta legeak. Kantentzat, hau da gizarteak aurrerapenerako duen bide baketsu bakarra.

1.3. KANTEN IRITZIZ, GIZAKIAK, BERE KONTZIENTZIA MORALA ERAIKITZEAN, BERE ARRAZOIMENAZ BALIATU BEHAR DU. IKASI DITUZUN FILOSOFO GUZTIEK EZ DUTE TESI HORI ONARTZEN. GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ KANTEN TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EGIN EZAZU ZURE HAUSNARKETA TESI HORRI BURUZ (3 PUNTU) (200-300 HITZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 1.3. erantzuna, 73. orrialdean]

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. KANT ETA ILUSTRAZIOA: AUTONOMIA MORALA. *CAESAR NON EST SUPRA GRAMMATICOS* (1,5 PUNTU) (GEHIENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 2.2. erantzuna, 73. orrialdean]

2.2. ARRAZIONALISMO ETA ENPIRISMOA KANT-ENGAN (1,5 PUNTU) (GENIENEZ, 150 HITZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 2.2. erantzuna, 82. orrialdean]

2.3. ARRAZIONALISMOAREN EZAUGARRI OROKORRAK (2 PUNTU) (GEHIENEZ, 250 HITZ)

[Ikus ezazu aurreko azterketa, 2.3. erantzuna, 76. orrialdean]

2016KO EKAINAREN AZTERKETA

«*Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna. Norberaren erruzkoa, adingabetasunaren zergatia ez datzanean adimenak ezean, nor bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitzeke gaitasun eta kuriarik ezean baizik. Sapere aude! Ausart zaitez zure adimenaz baliatzen! Hona hemen Ilustrazioaren esana.»*

KANT, “*Zer da Ilustrazioa?*” galderari erantzuna

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu termino azpimarratuak (1 puntu) (Gehienez, 50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. Kanten iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzean, bere arrazoimenaz balioitu behar du. Ikasi dituzun filosofo guztiek ez dute tesi hori onartzen. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Kanten tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, egin ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Kant eta Ilustrazioa: Arrazoimen erabilera publikoa eta erabilera pribatua (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Arrazionalismoa eta enpirismoa Kan-engan (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Arrazionalismoaren ezaugarri orokorrak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. AZAL ITZAZU TERMINO AZPIMARRATUAK

ERRUZKO ADINGABETASUNA: Gizadiak Ilustrazioaren aurretik zuen egoera, gidaritza edo tutoreen mendekoa. Adingabetasunak besteren gidaritzarik gabe nork bere arrazoiak baliatzeko ezintasuna adierazten du. Kanten arabera, gizakia bera da egoera horren errudun, koldarkerian eta alferkerian aritzeagatik. Arrazoiak soilik gida dezake gizakia betetasunera eta nagusitasunera, eta horregatik dirau adingabe gizakiak arrazoiaren erabilera kritikoaren eta autonomoaren bidea hartzen ez duen bitartean.

GIDARITZA: Arrazoiaren garapen autonomoa eragozten duena; tutoretza ere esaten dio Kantek. Tutoreak hainbat arlotan aritu dira –erlijiosoan, teorikoan, praktikoan- gizakiak abere otzan eta pasiboak bihurtzen, eta arrazoimenaren erabilera askea galarazten. Hori dela eta, Ilustrazioaren zeregina gizakia gidaritza arrotz horietatik askatzea da, nor bere kabuz pentsatzen hasteko.

2.2. DESKRIBA EZAZU LABURKI ARRAZIONALISMOAREN ETA ENPIRISMOAREN ERAGINA KANTEN FILOSOFIA KRITIKOAN

Arrazionalismoaren ustez, ezagutza guztiak adimenetik eratortzen dira. Hau da, jatorrizkoak dira eta ez dira esperientziatik sortzen.

Enpirismoaren ustez, ordea, ezagutza oro esperientziatik eratortzen da, datu sentigarria eskuratzen da, eta adimena, datu sentigarriak eskuratu aurretik, *tabula rasa*, edo hutsik dagoen arbel baten modukoa da. Ezagutza guztiak *a posteriori* lortzen dira, hortaz.

Pentsamolde kantiarrak arrazionalismoa eta enpirismoa gainditzen du. Gure ezagutza guztiek esperientzian dute abiapuntua. Denboran, beraz, gure ezagutzak ez dira esperientziaren aurrekoak, eta esperientziarekin hasten dira. Nolanahi ere enpiristen jarrera kritikatu, honako hauxe dio Kantek: egia bada ere gure ezagutza guztiek esperientzian dutela hasiera, denak ez dira esperientziatik eratortzen. Hau da, «Gure ezagutza hasten da esperientziarekin, baina bera ez da soil-soilik esperientzia.»

Horrela, filosofia kantiarrak, kritiziskoaren bidez, jarrera arrazionalistaren eta enpiristaren arteko antagonismoa gainditzen du, jarrera bakoitzetik alde positiboa hartuz.

Pentsalari alemaniarraren garaian, Metafisika (arrazionalismoaren garaitik Jainkoaren, arimaren eta izatearen ideiak eratu dituen zientzia) gainbeheran dago, matematikaren, fisikaren eta beste zientzien garapenagatik.

Kant zientzia horiek nola garatu diren aztertzen ahalegintzen da, zientzia horien eginikoa metafisikan aplikatu daitekeen ikusteko.

Hori dela eta, filosofia kantiarrak Aristotelesen tradizioari jarraitzen dio, zientziak ezagutza unibertsal eta beharrezkoa izan behar duela dioenean, eta ondorio honetara iristen da: tradizio arrazionalistak eta enpiristak ez dute metafisika zientziatzat hartzea ahalbidetzen.

Horiek horrela, arrazionalismoari arrazoi emanaz, adimenean izaera unibertsala duten zenbait eduki daudela dio Kantek (sentsibilitatean, hots, sentimenean *a prioriz*koak diren intuizio hutsak; adimenean, hots, ulermenean hamabi kontzeptu huts edo kategoria; arrazoimenean hiru ideia erregutzaile), eta eduki horiek esperientziaren

aurrekoak direla. Aldiz, enpirismoaren alde, *a priorizko* eduki horiek esperientzian aplikatu behar direla baieztatzen du pentsalari alemaniarrek.

Bi aro bereiz daitezke Kanten pentsamenduan:

- **Aro prekritikoa.** Irakasle-garaitik (1746) *Dissertatio*a aldeztu duen unera arte luzatzen den garaia. Newtonen Fisikaren eraginpean dago, zalantzan arrazionalismoaren eta enpirismoaren artean.
- **Aro kritikoa.** 1770etik heriotzara arte luzatzen den aroa. Hume irakurtzeak arrazionalismo dogmatikotik iratzartzen du, eta kritizismoari edo idealismo transzendentalari buruzko bere teoria eratzean ekiten dio; hots, arrazionalismoren eta enpirismoaren arteko sintesia. 1781. Urtean, Kantek *Arrazoimen hutsaren kritika* (*Kritik der reinen Vernunft* (KrV)) argitaratzen du, ezagutzaren mugak aztertzeaz gainera, Metafisika ezin dela zientzia izan aldarrikatzen duen lana.

2.3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRA

1. Arrazoimenaren kontzepzio berria: Lehenik, **arrazoimen enpirikoa:** enpirismoaren kritikaren ondoren eta zientziaren garapenari esker, esperientzia eta gertakariak nagusitzen dira, eta esperientziatik abiatzen da ezagutza zientifikoa. Bigarrenik, **arrazoimen kritikoa:** arrazoimenaren kanpoko aginpideen aurka (tradizio, autoritate, aurreiritzi eta superstizioen aurka), eta *arrazoimenaren beraren autokritika* (esperientziak ezarriko ditu arrazoimenaren mugak). Hirugarrenik, **arrazoimen autonomoa:** arrazoimena da gizakiaren gidari bakarra (tradizio eta autoritate ororen gidaritza bartzatzen da), ezagutza-arloan ez ezik, baita beste arlo guztietan ere: publikoa nahiz pribatua. Eta amaitzeko, ilustratuen arrazoimena ez zen, arrazionalistena bezala, teorikoa edo espekulatiboa, **arrazoimen praktikoa** baizik. Eginkizun bakarra ez da esplikatzeko: gizakiaren bizitza moldatu, natura menderatu, eta arazoak —pertsonalak, politikoak edo gizartearenak— gainditzeko gai ere izan behar du.

2. Aurrerapena edo progresoareneko ideia: Aurrerapen zientifiko-teknologikoen munduari buruzko ikuskera baikorra ematen diete ilustratuei. Antzinako ikuskerak alde batera utziz, historia da gizakien etengabeko perfektiorantz —aurrerapenerantz— daraman bidea. Izan ere, arrazoimenaren bidez, natura menderatu eta gizadiaren ongizate materiala eta zorientasuna lor daitezkeela uste dute.

3. Askatasuna eta Tolerantzia: Pentsamendu askea eta adierazpen-askatasuna ezinbesteko baldintzak dira arrazoimenaren erabilera publikorako. Askatasunaren bidez, gizakiek burujabetasuna lortzen dute, baita adin nagusitasuna ere, eta mesedegarri da hori gizadiaren aurrerapenerako. Kant erlijio-askatasunaz mintzo da, eta erlijio-inposizioa «tutoretzatik kaltegarriena eta duingabeena» da harentzat.

Ilustratuek gizartean erreforma eta tolerantziaren alde jotzen dute. Kontratu sozialari buruzko teoriak hedatzen badituzte ere, soilik bakar batzuek aldeztu dituzte ideia demokratikoak eta berdinzaleak (Rousseau).

4. Naturaren kontzepzio berria: Ilustrazio osoak bezala, Kantek naturala bilatzen du bere filosofian, mundu fisikoa eta giza mundua bereizita bada ere, naturala dena ona delako.

Mundu fisikoan, Newtonen eredu onartzen du, eta eredu honen arabera, lege naturalak zuzentzen dituzte fenomeno guztiak, determinismo hertsian.

Aldiz, mundu gizatiarren, ageriko araurik ezean, gizakiek askatasunez jokatzeko da naturala. Dena dela, zein da gizakiaren natura? Kantek beste ilustratu askok bezala erantzuten dio galdera honi: gizartekoitasun tratagaitza. Hau da, gizakiak taldea behar

du, eta kidetasuna agertzen du, baina berekoikeria, botere-nahi eta jabetza-grina aseeginaz ere jarduten du.

5. Erlijio arrazoiduna: Ilustratuek erlijioaren interpretazio arrazionala egiten dute: gizakiak ezin du Jainkoa, sortzailea eta ordenatzailea, ezagutu, eta Jainkoa berbera da erlijio guztietan. Ez dute Errebelazioa onartzen, ezta mirariak ere, antinaturalak eta irrazionalak direlako. Erlijio arrazoidun natural horri *Deismo* deitzen diote.

6. Hezkuntza: Ilustrazioa hezkuntzaren mendea dela ere esan liteke, gai horrek hartu zuen garrantzia kontuan izanik. Herriaren heziketa lortu nahi zuten ilustratuek; ez klase intelektualari itxita, heziketa herritar guzti-guztiei iristea baizik. Kulturaren bidez, mentalitate kritikoa, arrazionalagoa eta askeagoa zabaldu nahi zuten. Ildo horretan, pauso asko eman ziren; garrantzitsuena, **Entziklopedia**, zalantzarik gabe. Gizadiak historia osoan zehar lortutako ezagutza guztiak obra bakar batean bildu nahi izan zituzten, ikuspegi zabalez eta kritikoz. Era berean, XVIII. mendean, egunkariak eta aldizkariak ugaritzen hasi ziren, eta horiek gertakizunak eta informazioa gero eta jende gehiagorengana iristeko aukera ematen zuten. Inguruan gertatzen ari zenari buruzko interesa areagotu egin zen irakurleen artean.

7. Politika: Ilustrazioko pentsalariak jorratu zuten gai nagusietako bat da agintearen jatorria. Gehienek ustez, gizartea osatzen duten gizabanakoek beren eskubide naturalen (gizaki izateagatik berezko zaizkienak) borondatezko zeresia egin dute agintariarengan, egitura soziala mantentzeko xedez. Ikuspegi hau lehengoaren kontrakoa da erabat: agintaria mandatari bat da; gizarteko kideen zerbitzura dagoen mandataria. Hori azaltzeko Rousseau *kontratu sozialaz* mintzatu zen: une hipotetiko batean, gizabanakoek akordio edo kontratu bat sinatuko zuten, eta beren buruari arauak eta legeak ezarri. Ildo horretan agertzen zaigu Kant bera ere. *Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna* artikuluan printzearen eginkizuna hiritarren askatasun naturala errespetatzea eta errespetaraztea dela esaten du; baina, aldi berean, askatasuna erabatekoa ez daitekeela esan dio, legedia betearazi behar dela, gizartearen antolamenduak iraun dezan.

KARL MARX

2013KO EKAINAREN AZTERKETA

«Orain arteko gizarte osoaren historia klaseen arteko borrokaren historia besterik ez da izan. Gizon librea eta esklaboa, patrizioa eta plebeioa, baroia eta jopua, kofradia- maisua eta ofiziala, hitz gutxitan, zapaltzaileak eta zapalduak, beti aritu dira elkarren aurka etengabeko gerran; batzuetan agerian eta beste batzuetan ezkutuan, eta gerra hori beti gizarte osoaren aldakuntza iraultzailearekin amaitzen zen edo, bestela, borrokan ziharduten bi klaseen birrintzean».

K. MARX eta F. ENGELS

Alderdi Komunistaren Manifestua, 1. Atala

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1. Laburtu pasarteko ideiak, ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
2. Azaldu azpimarraturiko hitzen esanahia (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzerako)
3. Egin disertazio labur bat, tesi honen aldeko eta aurkako argudio bana azalduz. Ondoren, eman zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu). (200 hitz gehienez)

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURU KOKATZEA

1. Azal ezazu labur zein toki hartzen duen jarduera iraultzaileak gizartearen aldaketan (1,5 puntu). (150 hitz gehienez)
2. Zein da Marxentzat historiaren motorra? (1,5 puntu) (150 hitz gehienez)
3. Azaldu Nietzschek erlijioari eta ezarritako balioei egindako kritika (2 puntu) (200 hitz gehienez)

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA: TESTUA ULERTZEA

1.1. LABURTU PASARTEKO IDEIAK, IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ (1PUNTU)

Klaseen arteko borroka izan da eta beti gizarte-aldaketa iraultzailea ekarri duena.

1.2. AZALDU AZPIMARRATURIKO HITZEN ESANAHIA (1 PUNTU) (50-75 HITZ TERMINO BAKOITZERAKO)

KLASEEN ARTEKO BORROKA: historiaren eragilea da, gizartearen gaur arteko historia osoa –Marxen hitzetan- klaseen arteko borrokaren historia baita. Bi taldeen arteko borroka da: produkzio-indarren (proletarioen) eta produkzio-jabetzaren (burgesiaren) arteko kontrajarpena da. Klase-borroka horren amaiera azpiegitura ekonomiaren aldakuntzaren ondorioz izango da. Marxek dio bai historia bai borroka estu-estu loturik doazela: borrokarik gabe ez dago aurrera egiterik, borroka beharrezko bitartekotza da aurrerapen historikoa egon dadin.

Klase-borroka horren bidez, historiaren akabera edo azken garaia den klase gabeko gizarterako bidea egiten da. Eta giza historia horretara doa.

GIZARTEA: Martxentzat gizartea azpiegituragatik determinaturik dagoena da, bizitza materialaren produkzio moduak bizitza sozialaren prozesua baldintzatzen du: «Ez da gizasemearen kontzientzia bere izaera soziala da bere kontzientzia determinatzen duena».

Beraz, gizartean bi talde sozial aurkitu ahal ditugu; burgesak eta proletarioak, hain zuzen produkzio-katean daudenak: jabeak eta langileak.

Aldakuntza iraultzailea: Produkzio-harreman konkretuen suntsidura eta eraldakuntza esan nahi du. Horren ondorioz, azpiegitura ekonomikoa eta gainegitura guztiz aldatzen dira. Iraultzaren motorra proletarioak dira, eta azpiegiturarik hasten da. Gizakiaren produkzio-indarrak aldatzen direnean, produkzio-harremanak lortzen dira horrela.

Iraultza egon ahal izateko, bi baldintza behar ditugu: alde batetik, baldintza materialak, hau da, sistema kapitalistaren krisi ekonomikoa; eta bestetik, langileen kontzientzia, hots, langileek haien egoeraz jabetu behar dute.

1.3. EGIN DISERTAZIO LABUR BAT, TESI HONEN ALDEKO ETA AURKAKO ARGUDIO BANA AZALDUZ. ONDOREN, EMAN ZURE TESIAREN INGURUKO HAUSNARKETA. (3 PUNTU). (200 HITZ GEHIENEZ)

Marxek testu honetan esaten digu historia klaseen arteko borroka izan dela, edo behintzat historia ulertzeko ezinbestekoa dela klaseen arteko gatatzak ulertzea. Argudio horrek hainbat urtetan bere funtsa izan du, hau da, atzera begiratzen badugu konturatzen gara egia dela: gizartea beti egon da banatuta: aberatsak eta pobreak, haien arteko harremanak ez dira onak izan eta hainbat unetan harreman horiek oso bortitzak izan dira, adibidez Frantziako Iraultzan gertatu zen AEBko independentzia Gerrarekin; nahiz eta ondorio politiko garrantzitsuak izan, ongiaren prezioa zegoen horren atzean. Adibide gehiago ipin ditzakegu, eta guztietan konturatzen gara elementu komun bat dagoela: bi klaseen arteko gatatzak: batzuek dena lortu nahi dute, eta ez zaie inporta besteek zer duten edota nola bizi diren.

Baina sistema kapitalista aurreratuak aldaketa garrantzitsu bat ekarri du: bi klaseen arteko dikotomia apurtzeko klase berri bat sortzea: erdiko klasea, hain zuzen. Gertaera hori sistemaren iraupenerako ezinbestekoa izan da, modu horretan klaseen arteko borroka ez baitago agerian. Ezin dugu gizartea banatu bi taldetan, oraingoan

gutxienez hiru talderi buruz hitz egin behar dugu: pobreak direnak, erdiko klasea eta aberatsak. Modu honetan, erdian daudenak haien gainean daudenei begira daude eta haien bizimodua lortu nahi dute, horretarako sistema kapitalistak, hainbat modutara (soldatak igoz; tresna materialak emanez: automobilak, telebistak, oporrak ordainduz...) pentsarazi die beste taldera (aberatsenera) pasatzea posible dela lan eginez gero, dirua aurreztuz... eta ilusio horrekin ez dute inoiz klase horren kontra joko, eurek ere bizi-maila hori lortu nahi dutelako.

Beraz, gure gizartean antolamenduari begiratuz gero, klaseen arteko borroka, Marxek uste zuen bezala, ez dago agerian; desberdintasun ekonomikoak oso nabariak dira, baina sistema kapitalistak estali egin du borroka hori. Gaur egun, produktibitatearen ikuspuntutik, langile- eta produkzio-bitartekoen jabeek gain, badaude euren kontura lan egiten duten langileak eta horiek, jabe txikiak sentitzen diren neurrian, ez dute bere burua salgai edo merkantzia gisa ikusten. Lehen aipatu dugun bezala, erdiko klasea ekonomia mota horren sostengua da, eta horrek suposatzen du sistema kapitalistaren amaiera ez dela etorriko klase-borroka bidez.

2. MULTZOA: EDUKIAK ETA TESTUINGURU KOKATZEA

2.1. AZAL EZAZU LABUR ZEIN TOKI HARTZEN DUEN JARDUERA IRAULTZAILEAK GIZARTEAREN ALDAKETAN (1,5 PUNTU). (150 HITZ GEHIENEZ)

Ekoizpen-sistema kapitalistak, lehiakortasunaren ondorioz, «etekinen beheranzko joeraren legea» sortzen duen, eta lege horrek, aldi berean, ekoizpen handiak egitera behartu eta sistemaren beraren iraupena ere arriskuan jartzen duen. Etekinen bilatze horrek zera eragiten du: gero eta kapital gehiago inbertitzea makinatan, lanegunetako ordutegiak luzatzea, langile kopurua mugatzea eta soldatak murriztea. Orduan, sistema kapitalistaren barne-kontraesan bat sortzen da: makinatan inbertsio-prozesuak kontsumo-prezioak igotzea dakar, baita etekina gero eta baxuagoa izatea ere. Bestalde, proletarioen pobretze etengabeak proletarioen talde horrexek ekoizten dituen salgaiak ezin erdiestea eragiten du. Horrela, jende langabetu asko egotean, merkatua gainbeherako doa, sistema kapitalistaren beraren porrota eraginez. Marx konbentziturik dago sistema horretan egin daitezkeen zuzenketak ez direla aski, krisian sartzen dena sistema bera baita.

Sistema kapitalistaren krisi ekonomikoa sortzen da. Krisi-egoera horrek ondorio bezala zera dakar: proletarioek egoeraz kontzientzia hartzea. Izan ere, sistema kapitalistarekin behin betiko bukatzeko beharrezko elementuak, kondizio objektiboak eta langileriaren kontzientzia gertatzen dira. Egoera hori aintzat hartuz, Marxek berehalakotzat zuen klaserik gabeko gizarte eta alienazioen ezabapena ekarriko zuen iraultza proletarioa.

Beraz, gizakia gizarte kapitalistatik gizarte sozialistara jauzi egiteko gertu dago, horrela bere alienazioei amaiera ipiniz. Dena dela, kapitalismotik komunismorako jauzi kualitatiboa ezin gerta daiteke aurretik iraultzarik ez badago, gainegitura-mailan dauden instituzioen suntsitzea eraginen duen iraultzarik gertatu ezik. Iraultzak badu helburu argi bat: jabego pribatuarekin amaitzea, horrek klase sozialen arteko desberdintasunak sortzen baititu.

2.2. ZEIN DA MARXENTZAT HISTORIAREN MOTORRA? (1,5 PUNTU) (150 HITZ GEHIENEZ)

Historiaren motorra dialektika da. Marxentzat historia animatua errealitateko kontraesanaren presentziak determinatzen du, hots, materiak, ekonomikoa denak.

Hori dela eta, kontraesan historikoak egitura ekonomikoan kokatzen dira: produkzio-bitartekoen jabeen eta produkzio-indarren arteko harremanetan.

Gizarte-harremanek hainbat egoeratik igaro behar izan dute (testuan irakurtzen dugun bezala), ekoizpen-indarrek eragindako presioak direla eta; esklabotzatik gremioetako feudalismora, eskulangintzako lehen industriak ekarri zuen lanaren zatiketara, eta, azkenik, ekoizpen industrial kapitalistan ugazaben eta langileen artean dauden harreman berrietara.

Hori guztia, egiaz, krisi iraultzaileen eta klaseen borrokaren bidez baino ez da gertatu: historia guztia, oinarrizko zentzu materialista horretan, klaseen arteko borroka da.

Beraz, aurkaritza edo kontrako horiek borrokaren bidez baino ezin dira gainditu, zeren dialektikak kontrario baten deuseztatzea inplikutzen baitu. Horregatik dio Marxek, historia eta borroka estuki loturik doazela: borrokarik gabe ez dago aurrera egiterik, borroka beharrezko bitartekotza da aurrerapen historikoa egon dadin.

Klaseen borroka horren bidez, historiaren akabera edo azken garaia den klase gabeko gizarteko bidea egiten da. Eta giza historia horretara doa.

2.3. AZALDU NIETZSCHEK ERLIJOARI ETA EZARRITAKO BALIOEI EGINDAKO KRITIKA (2 PUNTU) (200 HITZ GEHIENEZ)

Nietzscheren iritziz, erlijioa beldurretik sortzen da, bizitzaren aurrean gizakiak dituen larrimin- eta ezintasun-sentimenduetatik. Erlijioak ez du inoiz egia esan, eta naturaz gaindiko izaki transzendentalei errealitatea ematean metafisikak egindako errore berbera gauzatzen du. Horrela agertzen da Nietzsche tradizio judu-kristauaren kontra, budismoaren kontra, eta, oro har, edozein forma erlijiosoren aurka. Zehazki, Mendebaldeko gure historian kristautasunak irauli zituen antzinatasun klasikoaren balio dionisiakoak, mundu ideal baten asmakuntzaren bidez eta mundu erreal bakarraren mespretxua zela bide. Hilezkortasunaren onarpenarekin, bizitza hau pasabide iragankor bihurtzen da. Nietzscheren iritziz, kristautasuna platonismo herrikoa da, ahulentzat eta esklaboentzako filosofia eta moral arrunta. Bestalde, erlijioak balio dekadenteak soilik proposatzen ditu: artaldearen balioak edo esklaboarenak: umiltasuna, mendekotasuna, obediencia, sakrifizio eta antzekoak, guztiak sen bitalen aurkakoak. Besteak beste, bekatua, errua, damutasuna eta penitentzia izeneko kontzeptuekin egiten ditu erlijioak bizitzaren aurkako erasoak.

Oro har, erlijioak, eta batik bat kristautasuna eta budismoa, gaixoen eta ahulen erlijioak diren bezala, gizakiak bere mugak etengabe gainditzen joateko oztopoak izan dira. Osoko bizitzari, edo osoz mamitu beharreko bizierari kontrajartzen zaio bizitza ahula eta artaldearen morala. Horixe da erlijioak goraipatzen duen jardunbidea, indarra eta hobetzeko ausardiaren ordez beldurrez jarduten duen morala.

Grinak, bulkadak, senak, oro har gorputzari gogoko zaion guztiak eta balio estetikoak arbuiatu izana leporatzen dio kristautasunari. Hori dela eta, garaiko gertaerarik garrantzitsuenak. Jainkoaren heriotzak, hain zuzen, gizakiaren erabateko garapenaren ateak zabaltzen ditu, bere indar sortzaileak hedatzeko. Kristau-jainkoa, bere debekuak, agindu eta guzti, alde batera gelditzen dira. Era honetara, gizakion begiak ez dira haraindiko mundura zuzentzeko, gezurrezko mundura jo beharrean, honako mundu honetara joko dute eta.

Beraz, Nietzscheren iritziz, Jainkoa desagertukoan, berari atxikitzen zaizkion balio kristauak ere desagertu egingo dira. Lehenago edo geroxeago, Jainkoaren heriotzak balio absolutuaren eta lege moral objektiboaren hondamena ekarriko du. Hala dio Nietzschek: «Balioei dien arbuioa nihilismoaren ezaugarria da».

F. NIETZSCHE

2013KO EKAINAREN AZTERKETA

«Jainkoaren ideia bizitzaren antinomia gisa asmatu da. Hark biltzen du, beldurgarritzko batasun batean, kaltegarria den oro, pozoitsua den oro, bizitzaren kontra dagoen oro. Haraindiko munduaren asmakizuna existitzen den mundu bakarraren mesprezurako da, geure mundu honi helburu, arrazoi eta etxe oro ebasteko. Arima hilezinaren kontzeptuak gorputza erdeinatzen du, bizitzan aintzat hartzea merezi duen guztia ezabatzeke.»¹⁴

F. NIETZSCHE, *Ecce Homo*

GALDERAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Labur ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu)
- 1.2. Azal itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko)
- 1.3. «Jainkoaren ideia bizitzaren antinomia gisa asmatu da» tesia kontuan hartuta, gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu tesiaren inguruko zure hausnarketa (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Deskriba itzazu, laburki, Nietzscheren *apolineo* eta *dionisiako* nozioak (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.2. Deskriba ezazu, laburki, Nietzscheren Mendebaldeko zibilizazioari egiten dion kritika (1,5 puntu) (Gehienez, 150 hitz)
- 2.3. Deskriba ezazu Marxen alienazio erlijiosoak (2 puntu) (Gehienez, 250 hitz)

¹⁴ «¡El concepto de “Dios” ha sido inventado como antinomia de la vida; en él se resume, en una unidad espantosa, todo lo que es dañino, venenoso, calumniador, la entera hostilidad a muerte contra la vida! El concepto del “más allá”, del “mundo verdadero”, no ha sido inventado más que para despreciar el único mundo que existe, para no conservar ya a nuestra realidad terrenal ninguna meta, ninguna razón, ninguna tarea. ¡El concepto de “alma”, de “espíritu”, y, en fin de cuentas, también el de “alma inmortal”, ha sido inventado para despreciar el cuerpo...»

ERANTZUNAK:

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1. LABUR EZAZU PASARTEA, HAREN IDEIAK ETA IDEIEN ARTEKO LOTURAK ERRESPETATUZ

Nietzscheren aburuz, Kristautasunaren ideia guztien oinarrian Jainkoa dago, eta bizitzaren aurkakoa da hori. Ondorioz, indarra, askatasuna eta espirituaren independentzia sendotzeko, hots, benetako bizitzari dagokiona berrindartzeko, Nietzschek ateismoa aldarrikatzen du, sinesmena ahultasunaren eta koldarkeriaren adierazle delako, bizitzaren aurkako jokaera, hitz gutxitan esateko. Jainkoaren ideien sorrera ametsezkoa da guztiz; are gehiago, gizakiak berak bizitzan zehar bere bizitzaren jabe izateko egin behar duena jainkoaren esku uzten du. Hau da, mundu honetako bizitzari uko egiten dio eta mundu honetaz haraindiko ustezko munduan jartzen du bere esperantza.

1.2. AZAL ITZAZU AZPIMARRATURIKO TERMINOAK

ARIMA: Pentsamendu klasikoan, *psyché*-a edo *arima* bizidunen bizia eta mugimenduaren printzipio orokorra da, alde batetik, eta gorputzetik at topa dezakegun gizakiari dagokion ezaugarri garrantzitsuena (hau da, arrazoimenaren ahalmena), bestaldetik. Gizakiaren natura eratzen duten osagai bietako bat; bestea gorputza da. Arima hilezkorra da eta gorputza hilkorri estekaturik dago. Kristautasunaren arabera, arima da espiritua, hots, Tomas Akinokoak esaten duen legez, *forma subsistentea* — bizirik irauten duena—; hau da, materiarekin (gorputzarekin) batera ematen bada ere, eginkizun propioa du, pentsatzea; eta gorputzak ez du horretan parte hartzen. Hori guztia kontuan hartuta, Nietzschek arimari buruzko azaltzen duena ulergarria da. Arima edo espiritua, pentsalari horren arabera, asmakeria hutsa besterik ez da, zeren eta gorputzaren —hau da, giza senen, bulkaden, grinen, desioen, eta abarren— kontra baitago. Metafisikan eta erlijioetan sortzen diren kontzeptu *unibertsalen* artean kokatuta dago, bizitzarentzako preziatuenari uko egiteko.

BIZITZA: Nietzscheren arabera, bizitza agente nahian funtsatzen da batik bat. Bizitza *Macht* (indarra, boterea) da; hots, dinamismoa, aldakuntza, eragozpenen aurkako borroka, zentzu erlatiboak. Bizitzan ez dago ezer absoluturik, baina bizitza gauza guztiak balioesteko erreferentzia da: bizitzari laguntzen diona egiazkoa eta ona da.

Bizitza errealitate bakar eta funtsezkoena da, eta bat datoz horretan bitalista guztiak. Nietzscheren bizitza ez da filosofo zaharren izanaren pareko, Heraklitoren bilakaeraren antzeko baizik; etengabeko jariora da, eta kontrako borroka eta harmonia nagusitzen dira hor. Azkenik, Nietzschek (baita bitalismoak ere) bere osotasunean erabiltzen du bizitzaren kontzeptua: bizitzaren zenbait alderdi garrantzitsu guztiz irrazionalak dira, eta ondorioz, bizitza ezin daiteke mekanizismotik ulertu, ezta kategoria arrazionaletatik ere.

1.3. «JAINKOAREN IDEIA BIZITZAREN ANTINOMIA GISA ASMATU DA» TESIA KONTUAN HARTUTA, GARA EZAZU DISERTAZIO LABUR BAT, GUTXIENEZ TESIAREN ALDEKO ARGUDIO BAT ETA HAREN KONTRAKO BESTE ARGUDIO BAT EMANEZ. ONDOREN, EMAN EZAZU TESIAREN INGURUKO ZURE HAUSNARKETA

Nietzschek, Jainkoa aipatzen duenean, gizabanakoaren bizitzari uko egiten dion elementuaz hitz egiten du. Zentzu horretan ulertu behar dugu esaldi horren bidez

Nietzscheren proposatutako tesi hori. Jainkoaren existentziaren aldarrikapenak gizaki bakoitzari dagokion bizitzaren ezeztapena besterik ez baitu esan nahi.

Bizitzaren antinomia horren benetako esangura ulertzeko kontuan hartu behar ditugu egile alemaniarrek erabiltzen dituen argudioak. Argudio horien arabera, erlijioaren sortutakoarekin batera bizitzaren ezeztapen hori, hots, gizartearen gainbehera hasi zen. Jainkoak gizakia esklabo bihurtzen du, bizitzari zentzua ematen dion aldetik: balioak gizakiarengan aurkitu ordez, Jainkoarengan aurkitzen dira. Baina Jainkoa desagertzen bada, ez da debekurik gelditzen, eta dena posible da. Orduan egiaz ez dago, eta bizitzaren berezotasuna eta balioak izango dira bizitzari zentzua emango diotenak.

Jainkoaren irudiaren inguruan, gizakiek sortutako erlijio guztietan gerorako ustezko bizitzaren izenean benetako bizitza bera (Lurrean bizi dena, hain zuzen) baztertzen da¹⁵. Izan ere, bai Nietzscheren esanetan, bai Freuden ustetan, grinak, bulkadak, senak, balio estetikoak eta oro har gorputzak gogoko duen oro arbuiatu izana leporatu ahal diogu erlijioari eta, zer esanik ez, kristautasunari. Ondorioz, Nietzscheren garaiko gertakizun garrantzitsuenak, Jainkoaren heriotzak hain zuzen, ateak zabaltzen dizkio gizakiaren erabateko garapenari, haren indar sortzaileen askapenari. Kristauen jainkoa bazterrean gelditzen da, bere agindu, debeku eta abarrekin. Era horretan, gizakiak ez du berriro haraindiko mundura begiratuko, gezurrezko mundura joko, eta honetako mundu honi erreparatuko dio.

Funtsezko errealitatea bizitza denez, azken honen alderdi afektiboak azpimarratzen ditu egile horrek, eta ukatu egiten dio arrazoimenari alderdi horiek hautemateko gaitasuna.

Gizakiaren zerizana historikoa da, eta ez dira existitzen ez egia absolutua ezta balio unibertsalak ere. Horregatik, uko egiten die Nietzscheren bere garaiko metafisikan eta erlijioan oinarrituriko pentsamenduei. Jarrera honek indarrean dauden balioen suntsipena dakar, eta ondorioz, nihilismoa gailentzen da. Nihilismoak ateak zabaltzen dizkio sortzear den gizaki berriari, supergizakiari, balio berrietan oinarrituko denari. Ildo horretan, Nietzscheren proposatu zuen balioen transmutazioa. Pentsalari horrek gezurtzat hatzen du bere garaiaren egiaztat jotzen dena, eta alderantziz.

Nietzscheren filosofia bizitzaren baieztapen erradikal batetik abiatzen da. Bizitzaren ezaugarriak honako hauek dira: oinazea, borroka, suntsiketa, gogorkeria, erlatibismoa, zentzugabekeria, oldarra, sena, grina, sentimendua, dinamismoa eta aldakortasuna. Alderdi arrazionalak sortzen dituzten kontzeptu eta kategoriek (kausalitatea, xedea, egia, zerizana, ongia, Jainkoa...) ezin dute funtsezko errealitatea den bizitza adierazi. Nietzscheren iritzian, ahulek bizitza horri dioten beldur, gorroto eta ezintasuna medio, «mundu ideala», mundu faltsua, sortu dute filosofia, moral eta erlijioa tradizionalak.

Egileak, arrazistarik gabeko bizitzaz gogaiturik, aro berri baten profetatzat hartzen du bere burua, ateismoa, askatasuna eta bizitzaren gorespina nagusi izango diren aro baten profeta. Platonen pentsamendutik sortutako balio absolutu, dekadente eta idealistetan oinarritutako kulturaren aurka matxinatzen da, eta balioen transmutazioa proposatzen du.

Nietzscheren iritzian, ez daude bi mundu, mundu bakarra baizik, etengabeko aldakuntzan dagoen mundu sentigarria. Horregatik, gizarte tradizionalan indarrean egon diren balioak baztertu behar dira, hau da, mundu faltsuan oinarritutakoak, morroien moralari dagozkionak (apaltasuna, umiltasuna, sakrifizioa, errukia, bizitza

¹⁵ Nietzscheren aburuz, bizitzaren berreskurapena irudikatzen, Lurraren espiritua berreskuratu behar dugula esaten digu behin eta berriro.

gorrotatzea...), eta jaunen moralaren balioak onartu behar dira, bizitzaren aldekoak: harrokeria, handinahikeria, indarkeria, bortizkeria, bizitzari bai esatea... Horixe da testuan aipatzen den balioen transmutazioa. Dena dela, eraldaketa hau ez da bat-batean gertatuko, eta hiru urratsetatik igaro ondoren gauzatuko da: gamelua, lehoia eta haurra.

Pentsamendu honek arrisku batzuk ditu, harrokeria, indarkeria, grina... ez kontrolatzeak ondorio txarrak izan ditzakeelako bai gizartean bai gizabanakoarengan. Ez dugu ahaztu behar zenbaiten ustez pentsamolde honek nazismoarekin eta faxismoarekin izan zituen loturak. Nire ustez, pentsamendu honek alderdi onak ere izan ditzake, gizartean ondo kokatuta dagoen pertsona bati begira, adibidez. Nolanahi ere, ateismoaren oinarritzen denez, beharbada ez da egokiena gaixo, gose, hilzorian, lur jota... dagoenarentzat.

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1. DESKRIBA ITZAZU, LABURKI, NIETZSCHEREN *APOLINEO* ETA *DIONISIAKO* NOZIOAK

Apolo eta Dionisos bizitza ulertzeko elkarren aurkako bi jarrerren sinbolo, eredu eta jainkoak dira.

Apolo argitasunaren eta neurriaren jainkoa da, eta formak eta ideiak erakusten ditu. Dionisos, aldiz, itxuragabea eta neurrigabearen adierazgarria da, sexu-kilikaduren eta gauaren jainkoa. Bereizketa eta aurkakotasuna nabarmena den arren, ezin daiteke bata bestea gabe bizi. Hala eta guztiz ere, Europako filosofia-tradizioan, joera arrazionalistak dioen moduan (Platonen itzala handi samarra izan da beharbada harrezkero), arrazoi-arimak mendean hartu behar ditu sumina, atseginak eta bestelako irrikak arimaren jardueretan, sentipenen izaera berez zantarra delako.

Nietzsche horixe bera leporatzen dio filosofiari, eta, aipatutako bi joeren arteko oreka berreskuratzeko aldarrikapen sutsua egiten du. Joera zientifiko arrazionalista (Apolok erakusten duena) ez da errealitatearen mugikortasunaz ohartzen. Hori dela eta, ez dago ez espiriturik, ez arrazoimenik ezta egirik ere, eta horiek guztiak fikziozkoak dira, baliorik eta etekinik gabekoak.

2.2. DESKRIBA EZAZU, LABURKI, NIETZSCHEREN MENDEBALDEKO ZIBILIZAZIOARI EGITEN DION KRITIKA

Nietzschek zioen Europako kultura degeneratuta eta biziatuta dagoela. Bizitza ukatzen duen joera aurkitu zuen Mendebaldeko kulturean, eta bereziki metafisikaren oinarrian.

Tragediaren sorreran Greziako kulturaren eboluzioari buruzko ikuspegi berri bat aurkeztu zuen. Ordura arte garai klasikotzat hartu izan zenari Nietzschek gainbeheraren garai deitu zion.

Greziarren bizitza ulertzeko zuten ezintasuna agertzen da tragedietan: bizitza liluragarria da, baina baita beldurgarria eta arriskutsua ere. Hala ere, greziarrek ez zioten bizitzari uko egiten; ez zuten atzera jotzen. Bizitza den bezala onartzen zuten, datorrena datorrela. Artearen bidez egiten zioten aurre, tragediaren bidez. Bizitzak sortzen duen izuari aurre egiteko, ikusi dugun legez, bi era agertzen ditu tragediak: orekaren eta ezagutzaren bidezkoa, edota festaren eta instintuen bidezkoa. Lehenengoa Apolok sinbolizatzen zuen, edertasunaren, mugaren eta orekaren jainkoak; errepresentazioen munduaren, irudi eta formen munduaren sinboloa. Bigarrena Dionisiok sinbolizatzen du, neurrigabekeriaren jainkoa, kontzientzia pertsonala deuseztatzen duen jainkoa; artea sortzeko ahalmenaren iturri, errepresentazioen azpian dagoen formarik gabeko munduaren jainkoa da.

Baina Greziako tragedia handitasunaren lekuko izateaz gain, gainbeheraren lekuko ere bada. Euripidesek egin zuen berrikuntzak tragediaren gainbehera ekarri zuen, koroarekin batera, bizitzari aurre egiteko alderdi irrazionala kendu zuen. Bizitzaren balioa bera zalantzan jarri zuen. Hala ere, Sokrates izan zen errudun nagusia, betiere Nietzscheren interpretazioaren arabera. Ordura arte, greziarrek bizitzaren alde iluna ere onartzen zuten, eta horrek sortzen zien beldurra artearen bidez gainditzen zuten. Bizitza helburua zen; ez beste helbururik lortzeko bidea. Indartsuena, ederrena zen onena. Balio aristokratikoak ziren nagusi.

Baina Sokratesek arrazionalismoaren aldeko sekulako pausoa eman zuen, bizitzaren alderdi dionisiakoaren kontrakoa. Instintuak eta pasioak baztertu egin zituen, eta arrazionaltasunari lehentasuna eman zion. Haren esanetan, arrazoimenaren bidez lortzen da bertutea, eta gizaki bertutetsua da zoriontsu, betiereko egiaren jabe dena, egia horren izenean bizitzaren kontra joan behar badu ere. Kategoria unibertsalak bilatu zituen, hau da, egia objektiboa. Geroztik, egiaren jabe izatea bihurtu zen eredu. Baina betiereko egia horiek bizitzatik kanpo daude; Sokratesen asmakizunak baino ez dira, instintuak gaitzesteko.

Nietzscheren ustez, Sokratesek ez zuen arte dionisiakoaz baliatzeko ahalmenik, eta horregatik aztertu nahi izan zuen artea, zientziaren eta teoriaren ikuspegitik. Nietzscheren bizitzaren ikuspegia zeharo dionisiakoa zen, eta teoriari eta zientziari artearen ikuspegitik begiratzeko proposamena luzatu zuen. Haren ustez, mundua izugarritzko indar iraunkorra da; eta haren muga, ezereza. Indar hori kaotikoa da, eta guztiaren aldaketa iraunkorra sortzen ari da, mundua behin eta berriz sortzen eta suntsitzen ari da. Horrela, gizakia aske da, askatasun hori muga dezakeen ezer ez dagoelako naturan. Gizakia, izaki adimentsua izateaz gain, **bizi** egiten da.

Sokratesek joera horri hasiera eman bazion ere, Platonek areagotu egin zuen, bi mundu asmatu zituenean. Eta bi mundu horien artean, mundu sentikorra itxurazkoa dela esan zuen, maila baxukoa eta mespretxagarria, ideien kopia kaskarra; ideien mundua, berriz, ederra, ona, perfektua, gorena.

Errealitatea, berez aldakorra eta mugikorra, kategoriarik eta ordenarik gabea, aldaezinezko errealitate batez estali, eta ezkutatu egin zuten lehen arrazionalistek.

Gero, kristautasunak Platonen Ideien teoria plagiatu zuen. Monoteismoak eta moral judukristauak indarra hartu zutenean, pasioen eta sentimenduen aurkako joera indartu egin zen. Mundu honetako bizitza egiazko bizitza lortzeko bidea besterik ez da, hau da, Jainkoarekin bat egitea. Moral kristauaren azpian mendekuaren espiritua dago, eta hortik sortzen dira kulpa, kontzientzia, gupida. Juduen erruz, pobreak, sufritzen dutenak, errukarriak dira onak; Jainkoak onartutakoak dira. Aitzitik, indartsuak kondenatu egiten ditu. Kristautasunak larriagotu egin zuen egoera Jesusekin. *Jesusek Israeleko mendeku-espirtua bikaina* egin zuela zioen Nietzschek, *amu arriskutsua* zela. Greziako moral aristokratikoa *erresuminaren* moralak ordezkatu zuen. Ondorioz, indarra, pasioa, lehentasuna, ausardia gaitzetsi egin ziren.

Nietzschek egiten duen historiaren interpretazio genealogikoan, beste aro bat ere bereizi zuen: Ilustrazioaren garaia. Mendebaldeko pentsamendu berriak Jainkoaren heriotza ekarri zuen. Baina haren lekua beste batek hartu zuen: arrazoimenak (estatua eta aurrerabidea, *ongiaren*, Jainkoaren orde). Ordutik aurrera, gizakiaren pasioak eta instintuak arrazoimen zientifikoaren eta estatuaren arauen mende daude.

Zientziak, bere aldetik, ahalegin guztiak egiten ditu lege mekanizisten eta positibisten bidez bizitza esplikatzen. Bizitza ustezko erregulartasunean oinarritzen dela sinesten du zientziak. Baina Nietzschek ez zuen oinarri hori onartzen. Haren aburuz, bizitzan ez dago erregulartasunik; espontaneotasuna, mugimendua eta desordena dira bizitzaren ezaugarri nagusiak. Erregulartasuna gure adimenaren behar bat da, mundu

kaotikoa ulertzerik ez dugulako; era logikoan ordenatutakoa bakarrik uler dezakegulako. Zientziaren determinismoa¹⁶ gizakiaren ideia bat da, gure arrazoimenak mugikorraren eta aldakortasunaren aurrean sentitzen duen izuaren ondorioz sortutakoa. Baina egia bakarra da determinismo hori ez dela erreal. Zientziak gure bizitza mundu arrazionalan hertsu nahi du, eta hori salatu beharra dago, bizitzaren potentzialtasun guztiak garatzen utzi nahi badira.

Bizitzatik kanpo gelditzen den asmakizun hori errealitatez mozorrotu du filosofiak; aldaezinezkoa eta perfektua izatearen itxura duen errealitatea, gainera. Eta errealitate horretan bilatu nahi du arrazoimenak bizitzaren munduko esplikazioa. Horretan dago, hain zuzen ere, okerra.

---oOo---

[KONTU HORREN INGURUAN, ERA LABURREAN, HONAKO HAU ESAN DAITEKE]

Darwinek landatutako haziak sustraiak botatzen ditu filosofiaren lurlean, eta Nietzscheren filosofia da hazi horren lehen fruitua. Nietzsche arrazoiaren oinarritutako balio tradizionalen aurka dago. Ezbaian jartzen du hizkuntza logikoa, arrazionaltasunaren moldeak gainditzen dituzten edukiak huskeria balira bezala baztertzeko harrokeria duelako. **Salaketa** honen bidez, krisi sakona eragiten du Mendebaldeko kontzientzian, eta grekoengandik hasi eta positibismoraino sinesten, eskatzen eta gurtzen zen guztiaren oinarriak suntsitzen ditu.

Aldaketa edo eboluzioaren darwiniar nozio filosofiko nagusiak baztertutako kontzeptu batekin bat dator; hain zuzen, bilakaeraren kontzeptuarekin. Nietzschek gogora ekartzen du berriro kontzeptu hau, eta haren esanetan, filosofiak bilakaera erruduntzat hartzen du, eta, ondorioz, kontzeptu horrek gaitzespena jasotzen du. Platonengandik datorren tradizio filosofikoaren arabera, ezinezkoa da etengabeko bilakaeran dagoen munduan egia ziur eta finkoa aurkitzea. Hala, filosofiak dualismo ontologikoa ezartzen du. Asmatuiko munduan (egiazko mundua) ez dago horregatik, ez minik; mundu hori eraikuntza bat da, eta **Jainkoa** dago haren gailurrean. Nietzscherentzat, mundu hori eraikitzea eta sortzea mundu naturaletik ihes egitea da. Jarrera hori bizitzari uko egiten dion gizakiari dagokio; bizi-balioei uko egitea gaixoari dagokio, hots, dekadenteari.

Hortaz, moral dekadentea metafisikaren jatorrian dago. Nietzsche **metafisikaren aurka** borrokatzen da bizitza osoan zehar, eta laguntza bilatzen du, horretarako, azalpen naturalistetan. Azalpen horiek, Darwinek adibidez, ez dute inongo izaki transzendenterik erabiltzen mundua eta gizakia zer diren azaltzeko. Bestetik, Nietzsche kultura berriaren oinarriak finkatzen ahalegintzen da. Kultura hori gizakiak eraikitzen dute, beren bizitza bizi nahi dutenek, indarrean dagoen moralak gaindituta (supergizakia, Jainkorik gabe bizitzeko gai dena, Jainkoa hilik dagoelako). Nietzschek plano aiderazgarri berri bat sortzen du errealitatea interpretatzeko, eta haren dimentsio kritikoa egoera positibo horren arabera da.

2.3. DESKRIBA EZAZU MARXEN ALIENAZIO ERLIJIOSOA

Alienazio kontzeptuaren bidez, bere baitatik zerbait galtzen duen gizakiaren egoera adierazten dugu. Norberaren burua inorentzea, norberaren buruarekiko arrotz

¹⁶ Determinismoa: dena lege natural iraunkorren arabera da.

bihurtzea. Marxen aburuz, lanaren alienazioa da alienazio nagusia, eta hortik sortzen dira gainerakoak, sustrai ekonomikoa dutelako.

Sistema kapitalistan, gizakia gauza bihurtzen da, giza zerizana galdu eta lan-indar huts bihurtzen da. Gizakiak zerbait eraldatuz lanean sortzen duen produktua bere emaitza eta produktutzat hartzen du. Nolanahi ere, gizaki egilearena den emaitza hori beste pertsona baten jabetza bihurtzen da, subjektu egilea besteren eta arrotz bihurtzen da produktugilearentzat. Giza produzitzaileak eginikoa inorentzeak haren burujabetasunaren galera dakar.

Langile edo proletarioak bere izate osoa jartzen du objektuan, eta berea den objektu hori kentzen diotenean, gauza bihurtzen da, gauzen arteko gauza. Gizakia bera salgai dago, askatasuna galdu eta giza izatea kendu diotelako.

Alienazio ekonomiak beste alienazio mota batzuk eragiten ditu: gizarte-alinazioa, erlijio-alienazioa, alienazio-filosofikoa.

Erljio-alienazioa: Marxen ustez, gizarte-klase menderatzaileak erlijioa sortzen du klase menderatua uztapean edukitzeko. Erljioaren esanetan, giza zoriontasuna haraindiko munduan dago, eta gizakia mundu honetara sufritzera etorri dela dio, ondoren zerua (zoriontasuna) lortzeko. Erljioak geldiarazi egiten du langileak burgesen aurka (produkziobideen jabeen eta kapitalisten aurka) egin dezaketen iraultza, eta Estatu burgesa legitimatzen du. Estatu burgesaren aginduak Jainkoarenak balira bezala onartu behar direla dioenean, erlijioak agintaritza justifikatzen du. Horrela, erlijioak injustiziak justifikatu egiten ditu, eta etsipena eta zuzengabekeria dira alienazio honen ezaugarri nagusiak. Hori dela eta, Marxen hitzetan, «erlijioa herriaren opioa da», herria lokartzen duelako.

